

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1394

27/2012 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluari dagokion curriculuma ezartzen duena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1. artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorrak finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalean aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta –tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30. eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6. artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, lanbide-heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarritzko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide-heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluaren egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako arteztarauak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira kompetentzia orokorra, lanbide-kompetentzia, kompetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren kompetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere lanbide-heziketako tituluak produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Otsailaren 28ko 256/2011 Errege Dekretuak Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluaren ezartzen du eta haren gutxienezko irakaskuntzak finkatzen ditu. Dekretu horrek ordezkatu egin du apirilaren 21eko 630/1995 Errege Dekretuak ezarritako Dekorazio-estetika pertsonaleko teknikariaren tituluaren erregulazioa.

Bestetik, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen aurrez aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua 2. atalean xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, Errege Dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, hezkuntza-sistemaren barruan, Lanbide Heziketaren antolamendua eta araudia ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren esparrurako.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculumak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegorako, Estetikako eta edergintzako teknikariaren titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen otsailaren 28ko 256/2011 Errege Dekretuaren babesean.

Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta kompetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-moduluen bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren kompetentzia profesional, pertsonal eta sozialetatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntzaren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzan.

Honako dekretu hau bideratzean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Hori dela-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostenarekin eta gainerako aginduzko txostenekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Gobernu Kontseiluak 2012ko otsailaren 28an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honek Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegorako.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakaskuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluen programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.– Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle-taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezartzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziatzko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

II. KAPITULUA

TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Estetikako eta edergintzako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Estetika eta edergintza
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa
- Iraupena: 2.000 ordu
- Lanbide-arloa: Irudi pertsonala
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-3

3. artikulua.– Lanbide-profila.

Tituluari dagokion lanbide-profila, konpetentzia orokorraren, konpetentzia profesionalen, pertsonalen eta sozialen, lanbide-kualifikazioen eta konpetentzia-atalen bidez adierazten da.

1.– Titulu honen konpetentzia orokorra honetan datza: edertze pertsonaleko teknikak aplikatzea; eta estetika-zerbitzuak, kosmetikoak eta lurrinak merkaturatzea; kalitate-prozedurak, eta indarrean dagoen araudian ezarritako laneko arriskuen prebentziorako eta ingurumen-babeserako eskakizunak beteta.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

a) Produktuak, aparatuak eta tresnak hartu, bildu eta banatzea, horiek mantendu eta kontserbatzeko baldintza egokietan, eta haien kontsumoa eta stocka kontrolatuta.

- b) Prozesuan zehar bezeroei arreta egitea, enpresak ezarritako prozedura-arauak aplikatuta eta zerbitzuan kalitatea lortuta.
- c) Bezeroen eskariei eta azterketa profesionalari buruzko informazioa lortzea, eta datuak erregistratu eta artxibatzea.
- d) Aplikatuko diren tratamendu edo teknika estetikoetarako material, tresneria eta kosmetiko egokiak hautatzea.
- e) Materiala, tresneria eta instalazioak erabiltzeko baldintza aproposetan mantentzea.
- f) Larruazalaren higieena egitea, hura ondorengo tratamenduetarako prestatuta.
- g) Larruazala hidratatzea, haren itxurari eutsi eta hobetzeko.
- h) Makillaje soziala egitea, hura pertsonalizatuta eta bezeroen beharretara egokituta.
- i) Ilea depilatu eta koloregabetzea, prozedura mekaniko eta produktu kimiko egokiak erabilia.
- j) Edertzeko manikura– eta pedikura-teknikak, eta eskuak, oinak eta azazkalak zaintzekoak aplikatzea.
- k) Azazkal artifizialak prestatzea, bezeroen eskarien arabera teknika eta diseinua banan-banan aplikatuta.
- l) Lurrinen, usain gozoen eta produktu naturalen inguruan aholkatzea, bezeroen ezaugarri pertsonalak, sozialak eta profesionalak kontuan izanda.
- m) Estetika-kabinako tratamenduaren ondoren egin beharreko zainketen eta bizi-ohitura osasungarrien berri ematea bezeroei.
- n) Irudi pertsonaleko enpresa baten esparruan produktuak eta zerbitzuak sustatu eta merkaturatzea.
- ñ) Produkzio-prozesuetako aldaketa teknologikoen eta antolamendukoek sorrarazitako lan-egoera berrietara egokitzea, ezagupenak eguneratuta, eta «bizialdi osoko ikaskuntzarako» dauden baliabideak, eta komunikazio– eta informazio-teknologiak erabilia.
- o) Bere eskumeneko esparruan erantzukizunez eta autonomiaz jardutea, esleitutako lana antolatuta eta garatuta, eta lan-ingurunean beste profesional batzuekin elkarlanean edo talde-lanean arituta.
- p) Bere jarduerarekin lotutako gorabeherak arduraz ebaztea, horien sorburuak identifikatuta, bere eskumen– eta autonomia-esparruaren barruan.
- q) Eraginkortasunez komunikatzea, bere lanaren esparruan esku hartzen duten pertsona guztien autonomia eta eskumena errespetatuz.
- r) Produkzio-prozesuan zehar, laneko arriskuetaarako eta ingurumen-babeserako prozedurak eta prebentzio-neurriak aplikatzea.
- s) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitateko, irisgarritasun unibertsaleko eta «guztientzako diseinuko» prozedurak aplikatzea.
- t) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea.

u) Dagokion jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) IMP120_2. Higiene, depilazio eta makillajeko zerbitzu estetikoak (irailaren 16ko 1087/2005 Errege Dekretua). Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC0354_2: Higiene, depilazio eta makillajeko zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, osasun eta higieneko baldintzetan arreta egitea.

UC0355_2: Aurpegi eta gorputzeko higiene– eta hidratazio-teknika estetikoak aplikatzea.

UC0345_1: Ilea prozedura mekanikoen bidez kentzea eta koloregabetzea.

UC0065_2: Aurpegiaren harmonia makillaje sozialeko estiloekin hobetzea.

UC0352_2: Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzea eta horiek saltzea.

b) IMP121_2. Esku eta oinetako zaintza estetikoak (irailaren 16ko 1087/2005 Errege Dekretua). Kompetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:

UC0356_2: Esku eta oinetako zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, higiene eta osasuneko baldintzetan arreta egitea.

UC0357_2: Azazkalak zaindu eta edertzeko teknikak aplikatzea.

UC0358_2: Azazkal artifizialak landu eta aplikatzea.

UC0359_2: Esku eta oinetako tratamendu estetikoak egitea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Lanbide-irudi honek irudi pertsonalarekin zuzenean lotutako enpresa ertain eta txikietan egiten du lan; zehazki, estetikako eta ile-apainketako zerbitzuen sektoreko establezimenduetan, eta, orokorrean, irudi pertsonaleko eta kosmetikako produktuen salmentarekin lotutako establezimenduetan. Zeregin hauek betetzen ditu: makillaje soziala, depilazio mekanikoa, eta higieneko, eta aurpegi– eta gorputz-hidratazioko eta esku eta oinen estetikako oinarrizko tratamenduak egitea; eta produktu eta zerbitzu estetikoak merkaturatzea, enpresako bezeroei arreta-zerbitzua eskainiz. Norberaren konturako langilea izan liteke, berorren enpresa antolatuta.

2.– Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

Edergintza-zentroetako eta estetika-kabineteetako teknikari estetizista.

Makillatzailea.

Azazkal artifizialeko teknikaria.

Depilazioko teknikaria.

Manikurako eta pedikurako teknikaria.

Estetika-enpresetako harreragilea.

Estetikako tresneriaren, kosmetikoen eta tekniken erakuslea.

Sektoreko enpresetako merkataritza-agentea.

Lurrin-dendetako eta drogerietako aholkularia edo saltzailea.

III. KAPITULUA

HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASKUNTZAK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakaskuntzak.

Heziketa-zikloaren irakaskuntzetan honako alderdi hauek sartzen dira:

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Produktuak, materialak eta tresnak identifikatzea eta sailkatzea, horien propietateak eta maneiatzeko eta kontserbatzeko baldintza egokiak ezaugarrituta, haiek hartzeko, biltegitratzeko eta banatzeko.

b) Protokoloetan diseinatutako arauak interpretatzea eta deskribatutako prozedurak harrerako unetik agurtu arte aplikatzea, erabiltzaileari arreta egiteko.

c) Larruazal-organoa aztertzea, haren ezaugarriak ebaluatzea, larruazal-fototipoak bereiztea eta larruazalaren asaldurak identifikatzea, informazio estetikoa lortzeko.

d) Lanabesak, tresneria eta kosmetikoak identifikatzea, eta horien ezaugarriak ebaluatzea, aplikatu beharreko tratamendu edo teknikarako egokienak hautatzeko.

e) Materialak, tresneria eta instalazioak higienizatzea, horiek garbituz, desinfektatuz eta esterilizatuz; baldintza aiposetan mantentzeko.

f) Teknika egokiak aplikatzea, ezarritako protokoloei, eta kalitate-, segurtasun- eta higienearauei jarraituz; larruazala garbitzeko.

g) Teknika egokiak aplikatzea, ezarritako protokoloei, eta kalitate-, segurtasun- eta higienearauei jarraituz, eta horiek larruazalaren behar fisiologikoekin lotzea; larruazala hidratatzeko.

h) Apainketako kosmetikoak eta makillaje-estiloak aplikatzeko bisajismo-teknikak diseinatu eta gauzatzea, eta horiek erabiltzailearen ezaugarri pertsonal, sozial eta profesionalekin lotzea; makillaje sozial pertsonalizatua egiteko.

i) Ilerako prozedura mekanikoak eta kimikoak hautatzea, eta teknika egokia aukeratu eta erabiltzea; ilea depilatu eta koloregabetzeko.

j) Manikurako eta pedikurako eragiketa teknikoak egitea, gauzate-protokoloak egokituta; eskuak, oinak eta azazkalak edertu eta zaintzeko.

k) Azazkal-protesiak lantzeko materialak eta produktuak hautatzea eta aplikatzea, segurtasun- eta higienebaldintzetan argibide teknikoei jarraituz; azazkal artifizialak lantzeko.

l) Fitokosmetikoen, geokosmetikoen, itsas produktuen eta aroma-molekulen ezaugarriak eta propietateak antzematea, eta dagozkien erabilerekin eta aplikazioekin lotzea; lurrinen, usain gozoen eta produktu naturalen inguruan aholkatzeko.

m) Tratamendu estetikoaren motak eta bizitza-ohitura osasungarriak aztertzea, eta horiek gizakiaren anatomofisiologiarekin lotzea; erabiltzailearentzako tratamenduaren pertsonalizazioa eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko.

n) Denda-marketinako publizitate-teknikak eta salmenta-eragiketak identifikatzea, eta merkatuaren ezaugarriak eta eskariak balioestea; produktu eta zerbitzu estetikoak sustatu eta merkaturatzeko.

ñ) Kosmetiko egokiak hautatzea, larruazalaren beharrak eta mota, eta haien konposizioa eta aurkezteko era kontuan izanda; haiek aplikatu daitezkeen gomendatzeko eta aplikatzeko.

o) «Bizialdi osoko ikaskuntzarako» dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta ezagupenak eguneratzeko, hobekuntza profesional eta pertsonalerako aukerak antzemanda, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekoetara egokitzea.

p) Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua balioestea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartzea, eta taldeko edo banakako erabakiak hartzea; erantzukizunez eta autonomia jokatzeke.

q) Lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea, dagokion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.

r) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta hartzaileren ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

s) Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien sorburuekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta dagozkion protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, inguruneari eta ingurumenari kalterik ez egiteko.

t) Irisgarritasun unibertsalari eta guztientzako diseinuari erantzuteko beharrezko teknikak aztertu eta aplikatzea.

u) Ikasteko prozesuko lanaren eta erreferentziazko produkzio-sektorearen kalitate-prozedurak hobetzeko beharrezko teknikak aplikatu eta aztertzea.

v) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta lanbide-ekimenekoarekin lotutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarritzeko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

w) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

2.– Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak
- b) Makillajea
- c) Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea
- d) Eskuetako eta oinetako estetika

- e) Azazkal artifizialeterako teknikak
- f) Analisi estetikoa
- g) Estetika-kabinako jarduerak
- h) Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak
- i) Estetikarako eta edergintzarako kosmetogolia
- j) Lurringintza eta kosmetika naturala
- k) Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta
- l) Ingeles teknikoa
- m) Laneko prestakuntza eta orientabidea
- n) Enpresa eta ekimen sortzailea
- ñ) Lantokiko prestakuntza

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtsotan eman beharko diren.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen arabera egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtsotan emango diren, dekretu honen 10. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezartzen da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtsoko azken 12 asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

5.– Europako Batzordeak ezarritako oinarrizko kompetentziak garatzeko eta sakontzeko gomendioei jarraituz eta lehentasuneko arloekin lotzen den prestakuntzaren garapenaren indarrez, curriculumean Ingeles teknikoa modulua txertatuta landuko da heziketa-ziklo horretan atzerriko hizkuntza, betiere Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta kompetentziak lortzeko gutxieneko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehazten dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena IV. eranskinaren 1. atalean ezartzen dira.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezartzen dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena.

Irakasleen espezialitateetarako 1. atalean adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jasotzen dira.

3.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barne hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean ematen dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluaren helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –irakaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

IV. KAPITULUA

BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

Estetikako eta edergintzako teknikariaren titulua edukitzeak aukera ematen du:

1.– Erdi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera, proba bidez edo berariazko ikastaro bat gaindituta, lanbide-arlo bereko goi-mailako heziketa-ziklo guztietan sartzeko; baita beste heziketa-ziklo batzuetan sartzeko ere, eskatutako zikloetarako lotura ematen duen batxilergoaren modalitate berekoak direnean.

3.– Batxilergoko edozein modalitatetan sartzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 44.1 artikuluan eta hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean «Laneko prestakuntza eta orientabidea» modulua edo «Enpresa eta ekimen sortzailea» modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluaren eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-konpetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarritzko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztagiria badute –prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztagiria izango da–.

5.– Titulu honen profilarekin lotzen diren konpetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Ingeles teknikoko modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta proiektuko lanbide-modulua gainditzen badute. Edonola ere, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko dute, uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 40.5. artikuluan xedatutakoaren indarrez.

6.– Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta konpetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– VI. eranskinean jasotzen da.

10. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ziklo honetako irakaskuntzak araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarritzko alderdiak (hala nola, moduluen iraupena eta sekuentziazioa) arautuko ditu, hala badagokio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari eta Hezkuntzako Erreforma Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorreko teknikari laguntzailearen tituluak otsailaren 28ko 256/2011 Errege Dekretuan ezarritako Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluaren ondorio profesional berberak izango dituzte. Hona aipatutako tituluak:

Estetikako teknikari laguntzailea, «Ile-apainketa eta estetika» adarra.

Aurpegi-estetikako teknikari laguntzailea, «Ile-apainketa eta estetika» adarra.

2.– Apirilaren 21eko 630/1995 Errege Dekretuak ezarritako Dekorazio-estetika pertsonaleko teknikariaren tituluak otsailaren 28ko 256/2011 Errege Dekretuak ezarritako Estetikako eta edergintzako teknikariaren tituluaren ondorio profesional eta akademiko berberak izango ditu.

3.– Dekretu honetan «Laneko prestakuntza eta orientabidea» lanbide-modulurako ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

2012ko martxoaren 22a, osteguna

4.– Dekretu honetako lanbide-moduluetan, oro har, ezarritako prestakuntzak beharrezko trebakuntza ematen du «erradiazio ultramore bidezko beltzarantze artifizialeko» jarduerarako, erradiazio ultramoreen bidez beltzarantzeko jarduera arautzen duen urriaren 28ko 265/2003 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bigarrena.– Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoaz bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko otsailaren 28an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

2012ko martxoaren 22a, osteguna

OTSAILAREN 28KO 27/2012 DEKRETUAREN I. ERANSKINA
LANBIDE MODULUEN ZERRENDA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide modulua	Ordu esleipena	Kurtsoa
0633	1.- Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak	231	1.a
0634	2.- Makillajea	147	2.a
0635	3.- Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea	165	1.a
0636	4.- Eskuetako eta oinetako estetika	132	1.a
0637	5.- Azazkal artifizialeterako teknikak	84	2.a
0638	6.- Anlisi estetikoa	99	1.a
0639	7.- Estetika-kabinako jarduerak	147	2.a
0640	8.- Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak	99	1.a
0641	9.- Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia	132	1.a
0642	10.- Lurringintza eta kosmetika naturala	84	2.a
0643	11.- Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta	99	1.a
E100	12.- Ingeles teknikoa	33	1.a
0644	13.- Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0645	14.- Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2.a
0646	15.- Lantokiko prestakuntza	380	2.a
	Zikloa guztira	2.000	

OTSAILAREN 28KO 27/2012 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak.

Kodea: 0633.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 231 ordu.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Larruazal mota identifikatzen du, miaketa-teknikak aplikatuta, eta lortutako datuak erregistratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazal mota identifikatu du parametroen arabera (hala nola, emultsio epikutaneoak, larruazalaren lodiera, baskularizazioa, etab.).

b) Bezeroari arreta egiteko faseak ezarritako prozeduren arabera identifikatu ditu.

c) Datu interesgarriak (hala nola, bizi-ohiturak, erabiltzen diren kosmetikoak, eguzkiarekiko eta klima-agenteekiko erreakzioak, etab.) biltzeko elkarrizketa edo galdera sorta bat egin du.

d) Modeloa jarrera anatomiko egokian ipini eta babestu du, segurtasun- eta ongizate-baldintzetan.

e) Larruazalaren egoera eta litezkeen asaldurak behatzeko diagnostikoko aparatuak eta bitartekoak erabili ditu.

f) Beste profesional baten tratatu behar dituen larruazalaren asaldurak balioetsi ditu.

g) Fitxa teknikoetan lortutako datuak erregistratu ditu.

h) Lortutako datuen azterketatik eta balioespenetik abiatuta, analisi profesionala egin du.

2.- Higiene-teknika egokiena, eta beharrezko kosmetikoak, tresneria eta lanabesak hautatzen ditu, eta erabiltzailearen beharrak, ezaugarriak eta larruazalaren baldintzak balioesten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzailearen beharrak identifikatu ditu, aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak egokitzeko.

b) Hautatutako higiene-teknika eta jarraitu beharreko prozesuaren sekuentziazioa justifikatu ditu.

c) Tresnak, materialak eta osagarriak desinfektatu edo esterilizatu ditu, kutsatzailea eta materialaren ezaugarriak kontuan izanda.

d) Aurpegiaren eta gorputzaren higiean erabili beharreko kosmetikoak hautatu ditu, larruazalaren mota eta egoera kontuan izanda.

e) Aurpegiaren eta gorputzaren higiea egiteko aparatu, tresna eta material egokiak

hautatu ditu.

f) Materialak, kosmetikoak, tresnak eta aparatuak ordenaz antolatu ditu, horiek errazago erabiltzeko.

g) Erabili beharreko aparatuak ikuskatu ditu, eta segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan daudela egiaztatu du.

3.- Makillajea kentzeko, eta esfoliazio mekaniko eta kimikorako eragiketa teknikoak egiten ditu, berariazko kosmetikoak eta aparatuak erabiltzeko oharrak eta jarraibideak betez.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eremu periokularreko, betiletako eta ezpainetako makillajea kendu du, eremuaren ezaugarrietarako eta sentikortasunerako teknika eta kosmetiko egokien bidez.

b) Berariazko kosmetikoekin aurpegiko, lepoko eta bularraldeko makillajea kendu du, maniobrak dagokion eremura egokituta.

c) Kosmetiko esfoliatzaile egokia aukeratu du, larruazalaren ezaugarriak kontuan izanda.

d) Kosmetiko esfoliatzailea teknika eskuzkoen edo mekanikoen bidez aplikatu eta kendu du, haren forma kosmetikoa eta fabrikatzailearen jarraibideak kontuan izanda.

e) Esfoliazioa efektu mekanikoko aparatuekin egin du, horiek erabiltzeko oharrak eta jarraibideak kontuan izanda.

4.- Berariazko masaje estetikoko maniobrak aplikatzen ditu, parametroak eremu bakoitzaren ezaugarrietara eta lortu nahi diren efektuetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tratatu beharreko eremuan masaje-teknikak baztertzeko arrazoi izango den asaldurarik ez dagoela egiaztatu du.

b) Larruazala prestatu eta masajea egiteko produktu egokia aplikatu du.

c) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetarako masaje estetikoko maniobrak hautatu ditu, bezeroaren larruazala zein egoeratan dagoen kontuan izanda.

d) Berariazko masaje estetikoko maniobrak modu sekuentziatuan aplikatu ditu.

e) Tratatu beharreko alde anatomikoaren arabera moldatu ditu eskuak.

f) Denbora, erritmo, intentsitate eta norabideko parametroak lortu nahi diren efektuetara eta larruazalaren ezaugarrietara egokitu ditu.

g) Masajea aplikatzean erabiltzailearen larruazalarekiko kontaktuari eutsi dio.

5.- Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak egiten ditu, kosmetikoak, eta bitarteko teknikoak eta eskuzkoak bateratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak erabiltzailearen behar eta eskaeren arabera hautatu ditu.

b) Erabiltzaileari aplikatuko zaizkion aurpegi- edo gorputz-higieneko prozesuak dituen faseen berri eman zaio.

c) Berariazko tekniken, kosmetikoen, bero lehor edo hezeko aparatuen eta masajearen bidez prestatu du larruazala, haren higiena errazteko, larruazalaren ezaugarriak eta beharrak kontuan izanda.

d) Zaldarrak larruazalaren baldintzetara eta egoerara egokitutako produktuen, tresnen eta bitartekoen arabera atera ditu.

e) Prozesu osoan higiene-neurriak eta norbera babesteko tresneria erabili ditu.

f) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan erabiltzen diren kosmetikoak eta aparatuak egoki aplikatu ditu, erabiltzailearen ezaugarriak eta sentikortasuna eta fabrikatzailearen zehaztapenak kontuan izanda.

g) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tratamendua denbora egokian amaitu du, lortu nahi diren efektuak lortzeko teknika aproposak erabilita.

h) Erabiltzailearen fitxa teknikoan, erabilitako kosmetikoak eta teknikak erregistratu ditu, bai eta litezkeen gorabeherak ere, ondorengo lanak optimizatzeko.

6.- Lortutako emaitzak balioesten ditu, eta aurpegiko eta gorputzeko higieneari buruzko ohituren, kosmetiko egokiaren eta horiek erabiltzeko jarraibideen inguruan aholkatu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-zerbitzu egokirako irizpideak zehaztu ditu.

b) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan arazoak ekar ditzaketen arrazoi nagusiak identifikatu ditu.

c) Lortutako emaitzak balioetsi ditu.

d) Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan erabiltzailearen gogobetetze-maila antzemateko teknikak aplikatu ditu.

e) Litezkeen zuzenketa-neurriak identifikatu ditu.

f) Egoera fisiologiko bakoitzerako kosmetikoei eta higiene-arauei dagokienez, tratamendu ondoko aholkularitza simulatu du.

g) Bizitza-ohitura osasungarriek duten garrantziaren eta horiek larruazalaren egoeran duten eraginaren inguruko aholkularitza simulatu du.

B) Edukiak:

1.- Larruazal mota identifikatzea

Bezeroari arreta egiteko eta fitxa teknikoan oharrak idazteko protokoloak gauzatzea.

Larruazalaren ezaugarriak eta baldintzak identifikatzea.

Larruazala eta horren eranskinak analizatzeko erabiltzen diren aparatuak identifikatu eta aplikatzea:

- Pertsonaren larruazalaren mota eta baldintzak zehaztea, zuzeneko behaketa bisualaren,

haztapenaren, argi-luparen, Wood-en argiaren eta bestelakoen bidez.

- Beharrezkoa denean beste profesional batzuegana bideratzea.

- Segurtasun- eta ongizate-neurriak aplikatzea.

Bezeroari arreta egiteko protokoloak.

Larruazal-tipologia zehazteko jardun-protokoloa.

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan eragina duten larruazaleko eta horren eranskinetako asaldurak.

Larruazala analizatzeko erabiltzen diren aparatuak: hautatzeko jarraibideak. Aplikazio-teknikak.

Aurpegiko eta gorputzeko diagnostiko-prozesuak gauzatzeko autonomia.

Betiere, egiten duen lanaren erantzukizuna hartzea.

Irudi eta higiene pertsonala zaintzeko interesa.

Segurtasun eta higieneari buruzko arauetako errespetua.

2.- Higiene-teknikak, kosmetikoak, tresneria eta lanabesak hautatzea

Larruazal edo asaldura estetiko bakoitzerako kosmetiko egokienak hautatu eta sailkatzea:

Produktu kosmetikoen, eta aurpegiko eta gorputzeko higienearen arteko lotura: prozesuaren faseetako lotura.

Produktu kosmetikoak aplikatu, erabili eta kontserbatzea.

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan erabiltzen diren aparatuak identifikatzea.

Produktu kosmetikoak, eta desinfektatu, esterilizatu eta higienizatzeko aparatuak eta tresnak identifikatzea.

Metodoak zerrendatzea.

Aurpegiko eta gorputzeko higienarako berariazko kosmetika: hautatzeko irizpideak, produktu kosmetikoen motak, eta horiek prestatu, manipulatu eta kontserbatzeko jarraibideak.

Aurpegiko eta gorputzeko higienarako berariazko aparatuak, tresnak eta materialak: hautatu eta aplikatzeko irizpideak. Osagarriak.

Tresneria eta lanabesak mantentzeko teknikak.

Tresneria bakoitzaren efektuak, indikazioak eta kontraindikazioak.

Higiene, desinfekzio eta esterilizazioko teknikak: hautaketa eta gauzatze teknikoak. Profesionala eta bezeroa babesteko neurriak.

Kosmetikoen, tekniken eta aparatuen efektu sinergikoak eta antagonikoak.

Produktu kosmetikoak, aparatuak eta tresnak zuzen erabiltzeko zorroztasuna.

Laneko arriskuen prebentziorako ezarritako arauak errespetatu eta betetzea.

Segurtasun eta higieneari buruzko arauetako errespetua.

3.- Makillajea kentzeko, eta esfoliazio mekaniko eta kimikorako teknikak egitea

Tratatu beharreko eremuaren ezaugarrietarako makillajea kentzeko kosmetikoak identifikatzea.

Aurretiazko eragiketak egitea (eremu periokularraren eremuko, betileetako, begietako, aurpegiko, lepoko eta bularraldeko makillajea kentzea).

Aurpegiko, lepoko eta bularraldeko makillajea kentzeko teknikak egitea.

Makillajea kentzeko eta esfoliazio prozesuetan segurtasunari, higieneari eta osasunari buruzko arauak aplikatzea.

Produktu kosmetiko esfoliatzaileak aplikatu, erabili eta kontserbatzeko jarraibideak zehaztea.

Larruazalaren ezaugarriak kontuan izanda, esfoliazio mekanikoa edo kimikoa egitea.

Makillajea kentzeko eta esfoliazio prozesuetan aparatuak erabiltzea: eskuila birakarietako aparatuak eta peeling ultrasonikoa, besteak beste.

Berriazko produktuen eta euskarri egokien bidez makillajea kentzeko eragiketa teknikoak. Faseen deskribapena.

Makillajea kentzeko kosmetikoak: prestatu, manipulatu, aplikatu eta kontserbatzeko jarraibideak.

Kosmetiko esfoliatzaileak: prestatu, manipulatu, aplikatu eta kontserbatzeko jarraibideak. Faseen deskribapena.

Esfoliaziorako berriazko aparatuak (eskuilak, peeling ultrasonikoa): erabiltzeko jarraibideak. Aplikazioa.

Kideekiko, bezeroekiko... tratu soziala eta errespetuzkoa izateko interesa.

Garatzen duen lanarekiko erantzukizuna.

Ordena eta garbitasun pertsonalerako ezarritako higie- eta osasun-arauak betetzea (garbitasun pertsonala, laneko arropa).

4.- Eskuzko teknikak aplikatzea

Masaje-teknikak egitea kontraindikatzeko duten asaldurak identifikatzea.

Aurpegiko eta gorputzeko masaje estetikoan egin beharreko maniobra mota hautatzea.

Masajea egiteko berriazko produktuak aplikatzea.

Berriazko masaje estetikorako maniobrak modu sekuentzian egitea.

Eskuzko tekniken parametroak aplikatzea, eritmoari, intentsitateari, norabideari eta denborari dagokienez, eta masajerekin lortu nahi diren efektuen arabera.

Muskulu-gainkargak saihesteko, eskuzko teknikak aplikatzean profesionalak hartu beharreko jarrerak zehaztea.

Aurpegiko eta gorputzeko masajea:

- «Masaje» kontzeptua.
- Masajea aplikatzeko eremu eta alde anatomikoak.
- Eskuzko gimnasia.
- Ergonomia.

Masaje motak. Efektuak. Indikazioak eta kontraindikazioak.

Aurpegiko higiene-prozesuei aplikatutako aurpegiko masajea:

- Oinarrizko maniobrak.
- Sekuentziazioa, norabidea eta noranzkoak.
- Efektuak, indikazioak eta kontraindikazioak.

Gorputzeko higiene-prozesuei aplikatutako gorputzeko masajea:

- Oinarrizko maniobrak.
- Sekuentziazioa, norabidea eta noranzkoak.
- Efektuak, indikazioak eta kontraindikazioak.
- Profesionalaren eskuak trebatzea.

Betiere, egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Trebetasuna eta zehaztasuna lana egitean.

Autonomia eta ekimen egiten duen lanean.

Tratu soziala, adeitsua eta errespetuzkoa bezeroen eta kideen aurrean.

Eskuzko teknikari buruzko ezagupenak zabaltzeko interesa.

5.- Aurpegiko eta gorputzeko higiene teknikak egitea

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesua antolatu eta hautatzea.

Aplikatu beharreko aurpegiko eta gorputzeko berriazko tratamendu mota identifikatzea.

Larruazala prestatzea berriazko tekniken, kosmetikoen eta bero lehor edo hezeko aparatuen bidez.

Zaldarrak produktu, tresna eta bitarteko egokiez ateratzea.

Aurpegiko eta gorputzeko berriazko higiene-prozesuetan eta tratamenduetan aparatu

egokiak zehaztu eta aplikatzea: lurruna, bentosak, goi-maiztasuneko korrontea, infragorri-
lanpara, kromoterapia eta presoterapia, besteak beste.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-teknikak eta tratamenduak egitea.

Zerbitzuaren aurreko eta ondoko segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzea.

Hondakinak ezabatzea.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-prozesuen eta tratamenduen faseak.
Antolatu eta hautatzea. Gainazaleko eta sakoneko garbiketa: ezaugarriak, indikazioak eta
kontraindikazioak.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko tratamenduak.

Aurpegiko eta/edo gorputzeko berariazko higiene-prozesuetarako eta tratamenduetarako
aparatuak: lurruna, bentosak, lainoztatze hotzak, goi-maiztasuneko korrontea, infragorri-
lanpara, kromoterapia eta presoterapia, besteak beste:

- Horiek zuzen erabiltzeko jarraibideak:

Zaldarrak ateratzeko teknikak.

Kosmetikoak aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan.

Aurpegiko higiene-teknikak eta berariazko tratamenduak. Higiene-protokoloa larruazal
normalean, alipikoan, deshidratatuan, koipetsuan, akneinoan, sentikorrean eta zahartuan,
besteak beste.

Gorputzeko berariazkoko higiene-teknikak eta tratamenduak: teknika eskuzkoak,
mekanikoak, elektrikoak eta kosmetikoak. Sekuentziazioa.

Lan-plana egiteko interesa eta prestasuna.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-prozesuak eta tratamenduak gauzatzeko
autonomia eta ekimena.

Trebetasuna eta zehaztasuna lanean.

Segurtasun eta higieneari buruzko arauetiko errespetua.

6.- Lortutako emaitzak balioestea

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan kalitatea zehazten duten parametroak
aplikatzea.

Lortutako emaitzarekiko litezkeen desbideratzeak zuzentzeko neurriak identifikatzea.

Prozesuaren emaitzak optimizatzeko neurriak proposatzea.

Tratamendu ondoko aholkularitza kosmetikorako eta higiene-jarraibideetarako
proposamenak egitea.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-prozesuen eta tratamenduen kalitate-
kontrola.

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuen kalitatea zehazten duten parametroak.

Gogobetetze-maila aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-prozesuekiko eta tratamenduekiko.

Lortutako garapenean izan litezkeen desbideratzeak zuzentzeko neurriak.

Erabilera pertsonaleko kosmetikoen inguruko aholkularitza etxean.

Zerbitzua hobetzeko interesa.

Antzemandako arazoak ebazteko ekimena.

Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna.

Etika profesionala aholkularitza kosmetikoan.

2. lanbide-modulua: Makillajea

Kodea: 0634

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 147 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Aurpegiaren morfologia aztertzen du eta bisajismo-tekniken bidezko irudi-aldaketak proposatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzaile-harrerak simulatu ditu, eta adeitasuna, errespetua, enpatia eta zuhurtasuna balioetsi ditu.

b) Fitxa teknikoak egin ditu, aurpegiari buruzko datu pertsonalak, morfologikoak eta fisiopatologikoak kudeatzeko informatika-aplikazioak erabilita.

c) Obaloaren formak zehaztu ditu.

d) Aurpegieren formak deskribatu ditu.

e) Bisajismo-tekniken bidezko aurpegiaren irudi-aldaketak proposatu ditu: lerroak, bolumenak, argiluna eta orrazkeraren ekarpena.

f) Obalo eta aurpegiera mota bakoitzaren diseinu grafikoak egin ditu.

g) Zuzenketak diseinatu eta aurpegiaren ezaugarrietara egokitu ditu: delineatzea, itzalak begietan, eta argiluna kopetan, sudurrean, kokotsean eta obaloan.

2.- Makillajean erabiliko duen kolore sorta hautatzen du, eta kosmetikoen probak, kolorekoak eta argiztapenekoak egiten ditu zirriborroen eta modeloen gainean.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Argiztapenaren eta makillajeko kosmetikoak hautatzearen arteko lotura aztertu du.

b) Aurpegiaren harmonia ezaugarritzen duten faktoreak eta horiek makillaje-koloreekin duten lotura ezarri ditu.

- c) Eremu zehatzetan kolore-probak egin ditu, argiztapenaren eragina ikusteko.
- d) Kolore-nahasteak egin ditu, kolorearen eta argiaren arabera lortu nahi diren tonalitateak lortzeko.
- e) Proposatutako makillajeari buruzko zirriborroak marraztu ditu.
- f) Makillajearen ezaugarriak garai historikoeekin lotu ditu.

3.- Bekainen eta betileen aldaketak proposatu eta egiten ditu, depilazio-teknikak, tindaketakoak, permanentekoak eta ordezeko betileak aplikatzekoak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesuan bezeroaren arropak eta begiak babestu ditu.
- b) Bekainen morfologia aztertu eta espresioekin lotu ditu.
- c) Bekainaren kolore, dentsitate eta formaren aldaketak proposatu ditu.
- d) Tindaketa- eta permanente-teknikak egitearen, eta ordezeko betileak aplikatzearen bideragarritasuna balioetsi du.
- e) Beharrezkoa izan denean, beste profesional batengana bideratu du.
- f) Erabilitako tresnak eta materialak garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko eragiketak egin ditu, material bakoitzerako metodo egokienaren arabera.

4.- Lan-eremua, kosmetikoak eta tresnak prestatzen ditu, eta jarraitutako prozedura justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Makillaje-kabina baten ezaugarriak eta argitasun-alderdietan bete behar dituen baldintza bereziak zehaztu ditu.
- b) Prozesu jakin batzuetan, behin erabiltzeko materiala baliatzeko aukera balioetsi du, segurtasun- eta higiene-neurri gisa.
- c) Apainketa-produktuen egiturak larruazal motarekin eta makillatu beharreko aurpegiaren eremuarekin lotu ditu.
- d) Makillatu aurretik, bitartean eta ondoren larruazal-tipologia bakoitzerako egokiak diren kosmetikoen motak, erabilgarritasuna, eginkizuna eta aplikazioa deskribatu ditu.
- e) Infekzio gurutzatuak saihesteko, makillajeak, ezpain-margoak, itzalak, begi-arkatzak eta betileen maskarak nola manipulatu beharko diren zehaztu du.
- f) Materialen (pintzelak, belakiak, espatulak, kotoi-txotxak, etab.) erabilera, helburua eta maneia deskribatu ditu.
- g) Makillajeko aerografoaren erabilgarritasuna, funtzionamendua, maneia eta garbiketa deskribatu ditu.
- h) Kosmetikoen eta aerografo bidezko makillajearen propietateak eta berezitasunak zehaztu ditu.

i) Aeroografiako aparatuetarako segurtasun- eta higiene-arauak azaldu ditu.

5.- Hainbat gizarte-ekintzatarako makillaje pertsonalizatuen prozedurak gauzatu eta jarraitu beharreko prozedura eta sekuentzia arrazoitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Makillajea gauzatu aurretik larruazala prestatzeko eragiketak zehaztu eta egin ditu.

b) Asaldura txikiak disimulatzeko eta akatsak neutralizatzeko kosmetiko zuzentzaileak aplikatu ditu.

c) Makillaje-hondoak hautatu eta aplikatzeko irizpideak deskribatu ditu.

d) Delineatzeko, lausotzeko, nabarmentzeko, etab. makillaje-teknikak egin ditu.

e) Hainbat kosmetiko motaren bidez (hautsak, aerosoleko finkatzaileak...), makillaje-hondoa finkatu du.

f) Aurpegiaren ezaugarrietara eta hainbat gizarte-egoeratarara egokitutako aurpegi-makillajeak egin ditu.

g) Argazkirako, ibiltokirako, telebistarako... aurpegi-makillajeak egin ditu.

h) Fantasiako aurpegi-makillajeak egin ditu.

i) Prozesuan erabilitako tresnak eta materiala garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko teknikak garatu ditu, haren mota eta ezaugarriak kontuan izanda.

j) Sortutako produktu-hondakinak gaika ezabatu ditu.

6.- Erabiltzailea kosmetikan eta makillaje-tekniketan aholkatzen du, zerbitzuaren kalitatea zehazten duten parametroak kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzaileari bere larruazal eta estilorako gehien komeni zaizkion apainketako produktu kosmetikoen inguruko erabilera-jarraibideak eta erreferentziak eman dizkio.

b) Estiloen arabera, makillajearen arloko aholkularitza-prozedurak prestatu ditu.

c) Zerbitzuaren emaitza aztertzeko fitxak egin ditu eta erabiltzailearen gogobetetzea balioetsi du.

d) Zerbitzua ebaluatu du eta hobetzeko neurriak proposatu ditu.

e) Aholkularitza hizkuntza tekniko erabili du.

f) Makillajea optimizatu eta iraunarazteko jarraibideak eman ditu.

g) Iradokizunak aztertzeko prozedurak ezarri ditu.

B) Edukiak:

1.- Aurpegiaren morfologia aztertzea

Makillajeko fitxa estetiko egitea: datu pertsonalak, morfologikoak eta fisiologikoak

idaztea.

Aurpegiaren analisia eta azterketa egitea. Aurpegiaren eremuak identifikatzea.

Obaloaren eta aurpegieraren desproporzio eta diskordantzia estetikoak identifikatzea: begiak, bekainak, sudurra, ezpainak...

Obaloan efektu optikoen bidez eta aurpegieran makillajearen bidez egin beharreko zuzenketak zehaztea.

Aurpegiaren fisiopatologia kamuflajeko kosmetikoekin lotzea.

Makillajerako diseinu grafikoak egitea.

Makillajearen lerroa eta forma aplikatzea.

Makillajearen informatika-aplikazioak erabiltzea.

Makillajeko fitxa estetikoak: datu pertsonalak, morfologikoak eta fisiologikoak.

Erabiltzailearen eskariak aztertzea.

Bisajismoa:

- Aurpegiaren analisia eta azterketa. Morfologia. Aurpegiko eremuen izendapena. Bertikaltasunaren eta horizontaltasunaren teoria.

- Aurpegia zuzentzeko neurriak eta teknikak: depilazioa, koloratzea, lerroen oreka. Argilunaren teknikak.

- Obaloa: geometria, proportzioa eta lerroak. Obaloen sailkapena eta motak.

- Aurpegieraren azterketa: bekainak, begiak, ezpainak, kopeta, sudurra eta kokotsa.

Aurpegiaren fisiopatologia kamuflajeko kosmetikoekiko.

Makillajerako marrazketa-teknikak.

Lerroa eta forma makillajearen.

Informatika makillajearen. Makillaje birtualeko programak.

Ordena eta kontrola datuak bideratu eta erregistratzean.

Zehaztasuna datuak erregistratu eta interpretatzean.

Jasotako informazioaren isilpekotasun-konpromisoa.

Adeitasuna, errespetua eta zuhurtasuna lana egitean.

2.- Kolore sorta hautatzea: makillajearen harmonia

Argiztapen motak (naturala eta artifiziala) identifikatzea.

Argiak makillajearen gainean dituen efektuak zehaztea.

Makillajeko harmonia kromatikoak sailkatzea.

Koloreek makillajearen dituzten efektuak identifikatzea.

Larruazalaren, ilearen, begien eta jantziaren koloreen eta tonuen arteko harmonia zehaztea.

Larruazal mota aztertzea, makillajea egoki hautatzeko.

Hainbat garaitako makillajeak sailkatzea.

Makillaje sozialeko estiloak identifikatzea.

Makillajearen aplikatutako kolorearen teoria.

Makillajearen aplikatutako argiaren teoria. Argi motak eta horien eragina.

Makillajearen aplikatutako argiztapenaren teoria.

Zirkulu kromatikoa.

Harmonia kromatikoak.

Kolore hotzak eta beroak, eta horien lotura makillaje sozialeko argiarekin.

Larruazal motaren eragina makillajea hautatzean.

Makillajearen historia eta garaiak.

Makillaje sozialaren estiloak.

Laneko plana egiteko prestasuna.

Harmonia kromatikoari eta makillaje sozialaren estiloari buruzko ezagupenak zabaltzeko interesa.

Adeitasuna, errespetua eta zuhertasuna lana egitean.

3.- Bekainetarako eta betileetarako proposamenak eta gauzatzea: espresioak eraldatzea.

Bekainen eta betileen kolorearen eta formaren desproporzioak eta diskordantziak identifikatzea.

Bekainak depilatuta aurpegian zuzenketak egitea.

Tindurekiko sentikortasun-proba egitea.

Bekainen eta betileen ilean kolore-aldaketa iraunkorrak egitea.

Bekainetarako eta betileetarako apaintetako kosmetikoak hautatu eta prestatzea.

Bekainak ilez ile edo trinkoki simulatzeko makillaje-teknikak aplikatzea.

Betileen forman aldaketa iraunkorrak egitea.

Ordezko betileak multzotan, zerrendan eta luzapenetan aplikatzea.

Profesionalarentzako eta bezeroarentzako segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzea.

Bekainetarako berariazko bisajismoa: bekainen azterketa eta zuzenketa-teknikak. Bekainen espresioak eta haien hitz gabeko komunikazioa. Erabiltzailea jarri eta prestatzea.

Bekainak depilatzekeo teknikak. Prebentzio-neurriak.

Tinduarekiko sentikortasun-proba.

Bekainak koloregabetu eta tindatzeko teknikak.

Bekainak ilez ile edo trinkoki simulatzeko makillaje-teknika.

Bekainen eta betileen apainketako kosmetika: hautatzeko irizpideak. Prestatzeko jarraibideak.

Betileak tindatzeko teknikak.

Betileen permanente-teknikak.

Ordezko betileak: multzotan, zerrendan eta luzapenetan.

Betileen makillajea aplikatzeko teknikak.

Prozesuetan tresnak eta materialak garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko teknikak.

Laneko plana egitekeo prestasuna.

Bekainekin eta betileekin lotutako makillaje-teknika osagarriei buruzko ezagupenak zabaltzeko interesa.

Adeitasuna, errespetua eta zuhurtasuna lana egitean.

4.- Lan-eremua prestatzea: apain-mahaia antolatzea

Makillaje-kabina prestatzea.

Makillatzeko tresnak eta materialak identifikatzea, erabilera-tekniken eta -jarraibideen arabera.

Makillatzeko kosmetikoak helburuaren arabera identifikatzea.

Makillatzeko aerografoa erabiltzeko teknikak aplikatzea.

Makillajea behin erabiltzeko materiala erabiltzea.

Bitarteko teknikoan garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa identifikatzea.

Makillaje-kabina: berariazko ezaugarriak.

Makillatzeko tresnak eta teknika osagarriak. Erabilera-jarraibideak, deskribapena eta garbiketa.

Makillatzeko kosmetikoak: hautatu eta aplikatzeko irizpideak. Moten, egituren eta aurkezpen-moduen araberrako sailkapena.

Aerografoa makillajea. Aerografoaren pita-euskarriaren multzoaren deskribapena, zatiak, funtzionamendua, erabilera, garbiketa, muntaia eta desmuntaia. Konpresorea aerografian. Aerografian erabiltzen diren produktu kosmetikoak hautatzeko irizpideak. Aerografiako

osagarriak: txantiloiak, etab.

Makillajearen baliatzen den behin erabiltzeko materiala.

Norberaren itxura edo higieena zaintzeko interesa izatea.

Lan-eremua antolatzearen garrantziari buruzko balioespen positiboa.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiarekiko errespetua.

Lana garatzean kalitatearekiko konpromisoa izatea.

5.- Makillaje-prozedurak gauzatzea

Makillajearen aurreko teknikak aplikatzea: makillajea kentzea eta larruazala prestatzea.

Berriazko apainketa-produktu kosmetikoak helburuaren arabera aplikatzea.

Delineatzeko, lausotzeko, arrastatzeko... makillaje-teknikak egitea.

Apainketako kosmetiko bereziak aplikatzea: kolore-ura.

Makillaje sozialeko estiloen prozesua gauzatzea, aurpegiko baldintzen edo egoeren arabera pertsonalizatuta (goiza, arratsaldea, festa...).

Argazkirako, bideorako... makillajea egitea.

Fantasiako makillajea egitea.

Purpurinak, lentejuelak, lumak... aplikatzea. Horiek garbitu eta kontserbatzea.

Makillaje-prozesuan ergonomia aplikatzea.

Makillaje-prozesuei aplikatutako higie, desinfekzio eta esterilizazioko neurriak aplikatzea.

Hondakinak ezabatzea.

Makillajea aplikatu aurreko teknikak. Makillajea kentzeko teknikak. Larruazala prestatzeko teknikak.

Hondoko makillajea. Astintzearen, arrastatzearen eta lausotzearen teknikak.

Makillaje sozialeko berriazko produktu kosmetikoak aplikatzeko teknikak: goiza, arratsaldea, gaua, festa, emaztegaia, ibiltokia, gizonezkoa... Makillaje-oinarria, hondoak, hautsak, masailtako gorria, zuzentzaileak, itzalak, delineatzaileak, ezpainenakoak: aplikazio-eremuak, norabidea, aplikazio-materiala, kolorea, maniobrak...

Apainketako kosmetiko bereziak aplikatzeko teknika. Kolore-ura.

Aerograforako apainketako kosmetiko bereziak aplikatzeko teknikak.

Zuzenketa argiak eta ilunak egiteko teknikak.

Helburu hauetarako makillaje-zuzenketak egiteko teknikak:

- Begiak: nabarmentzea, eye liner, banana, lausotzeak.

- Ezpainak: nabarmentzea eta makillatzea.

- Masailetak gorria: kolorea eta forma.

Makillaje sozialaren estiloak.

Sailkapena: makillaje goizekoa, arratsaldekoa, gauekoa, festakoa, emaztegaikoa, ibiltokikoa, gizonetzkoa, makillaje bereziak (betaurrekoak, orbanak, bestelako asaldura estetikoak, etab.). Ezaugarriak eta gizarte-ekintzekiko lotura.

Makillaje sozialeko estiloak egiteko prozesua eta teknika, eta horien egokitzapena modelora, sexura, adinera eta distira-egoerak. Automakillajea. Makillaje zuzentzaile bereziak.

Argazkirako, bideorako... makillaje-teknikak.

Makillajeak finkatu, mantendu, ukituak eman eta eraldatzeko teknikak.

Makillajerako osagarriak: purpurinak, lentejuelak, lumak... Horiek kendu, garbitu eta kontserbatzea.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Lana garatzeko autonomia eta ekimena.

Bezeroen egoera zehatza ulertzea eta horretara egokitzea.

Adeitasuna, errespetua eta zuhurtasuna lana egitean.

6.- Zerbitzuaren kalitatea eta aholkularitza

Makillaje sozialeko prozesuen kalitatea ebaluatu eta kontrolatzea.

Makillaje-prozesuetan eta teknika osagarrietan akatsak antzematea eta irtenbide-proposamenak egitea.

Bezeroari informazioa eta aholkularitza ematea, makillajearen aplikazioaren, haren kontserbazio-jarraibideen eta teknika osagarrien inguruan.

Ergonomia makillaje-prozesuan.

Makillaje sozialeko prozesuei aplikatutako higiena, desinfekzioa eta esterilizazioa.

Makillaje sozialeko prozesuen kalitate-kontrola.

Bezeroaren gogobetetze neurtzeko eta makillajeko zerbitzugintzako desbideratzea antzemateko teknikak.

Apainketaren arloan aholkatzeko irizpideak.

Aholkularitza-prozesuari aplikatzekoa zaion hiztegi teknikoak.

Laneko arriskuen prebentzioari, eta segurtasunari eta higieneari buruzko araudiarekiko errespetua.

Antzemandako arazoak ebazteko ekimena.

Zuhurtasuna eta adierazpena gatazkak ebaztean.

Zerbitzua hobetzeko interesa.

Adeitasuna, errespetua eta zuhurtasuna lana egitean.

3. lanbide-modulua: Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea

Kodea: 0635

Kurtoa: 1.a

Iraupena: 165 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Lan-eremua prestatzen du, prozedura justifikatzen du, eta depilazio-tresneriarako ezarritako mantentze- eta higiene-arauak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak garatuko direneko oinarrizko eremuak prozesu bakoitzarekin lotu ditu.
- b) Tresneria eta lanabesak ilea kendu edo disimulatzeko teknikekin lotu ditu.
- c) Profesionalarentzako eta erabiltzailearentzako babes- eta segurtasun-neurriak aztertu ditu.
- d) Behin erabiltzeko materiala baliatzearen garrantzia balioetsi du.
- e) Instalazioak higiene-baldintza aproposetan mantendu ditu.
- f) Tresneriaren eta aparatuen funtzionamendua eta egoera egokiak direla kontrolatu du.
- g) Lan-eremuaren girotze-faktoreak antzeman ditu (aireztapena, argia, kolorea, usaina, etab.), zerbitzuaren kalitate-faktore gisa.
- h) Emaitzak optimizatzeko ergonomia egokia aplikatu du.
- i) Kontrol- eta biltegitratze-arauak aplikatu ditu.
- j) Depilazio-eremuko biltegia ordenatu eta kontrolatu du.
- k) Produktu desegokiak, iraungitakoak edo egoera txarrean daudenak baztertu ditu.

2.- Analisi estetikoa egiten du, ilea depilatu eta koloregabetzeko prozedurako ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Datuak hartzeko fasean komunikazio-teknikak erabili ditu.
- b) Bezeroari arreta egiteko neurriak aplikatu ditu.
- c) Depilatu beharreko eremuko ilearen ezaugarriak ebaluatu ditu.
- d) Tratamendu horiek izan dezakeen ile-sistemaren asaldurak zehaztu ditu.
- e) Depilazioan eragina duten asaldura kutaneoak eta baskularrak bereizi ditu.

f) Ilea sorrarazitako asaldura estetikoak zuzentzeko eskaria interpretatu du.

g) Ilea depilatu eta koloregabetzearen ondorioz sortutako aurkako erreakzioak identifikatu ditu.

h) Fitxa teknikoan prozesu horietarako datu garrantzitsuenak erregistratu ditu, hala nola, ilearen banaketa eta ezaugarriak.

i) Tratamendu horietarako indikazioak eta arretak zehaztu ditu.

j) Jarrera eta nolakotasun profesionalak hartu ditu, hala nola, eskuzko trebetasuna, gustu estetikoak, adeitasuna, erantzukizuna, antolamendua, erreflexu-azkartasuna, etab.

3.- Ilea depilatu eta koloregabetzeko prozedurak hautatzen ditu, eta teknika bakoitzaren propietateak erabiltzailearen beharreko lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Depilazioaren eta epilazioaren terminologia eta teknikak zehaztu ditu.

b) Depilazio-metodoak ezaugarrien edo aplikatzeko moduaren arabera bereizi ditu.

c) Metodoak tratatu beharreko gorputz-eremuaren eta larruazalaren edo ilearen ezaugarrien arabera hautatu ditu.

d) Tratatu beharreko larruazalaren edo ilearen ezaugarriak kontuan izanda zehaztu du metodoen erabilera.

e) Depilatzeko kosmetikoen propietateak, erabilera eta aurkezpena identifikatu ditu.

f) Depilazio mekanikoko egungo teknikak deskribatu ditu.

g) Historian zehar erabilitako depilazio-teknikak deskribatu ditu.

h) Depilazio mekanikorako lanabesak, tresneria eta aparatuak sailkatu ditu.

4.- Depilazio mekanikoa egiten du, prozedura hautatu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tratamenduaren aurretik aplikazio-eremua prestatu du.

b) Eremu bakoitzerako aurpegi- eta gorputz-depilaziorako protokoloa egokitu du.

c) Urgailuak erabili ditu eta depilazio mekanikoa argizari beroarekin egin du.

d) Depilazioa urgailuekin eta urtze txikiko argizariekin egin du.

e) Matxarda bidezko abultsio-depilazioa landu du.

f) Prozesua ezarritako denboran gauzatu du.

g) Zerrendak, espatulak eta hainbat tresna erabili ditu.

h) Depilazio ondoko produktuak eta eskuzko maniobrak erabilia amaitu du tratamendua.

i) Depilazioaren ondoko litezkeen ondorioak balioetsi ditu.

5.- Ilea koloregabetzeko teknikak gauzatzen ditu, produktu egokiak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profesionala edo bezeroa norbera babesteko ekipamenduarekin babestu du.
- b) Ilearen kolorea zehaztu du.
- c) Tratamenduaren aurretik eremuko larruazala prestatu du.
- d) Koloregabetzeko produktu egokia hautatu du.
- e) Agente oxidatzaileen eta alkalizatzaileen proportzioak eta kontzentrazioak koloregabetu beharreko eremuaren arabera egokitu ditu.
- f) Espero den erreakziorako denbora egokia kontrolatu du.
- g) Koloregabetzea sorrarazten duen prozesu kimikoa azaldu du.
- h) Eremuko hondakin koloregabetzaileak garbitu ditu.
- i) Tratamendua kosmetika babesleaz amaitu du.

6.- Ilea depilatu eta koloregabetzeko prozesuetan kalitatea zehazten duten parametroak aztertzen ditu, emaitzak balioestean kontuan hartu beharreko alderdiak kontrolatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ilearen depilazio mekanikoko eta koloregabetzeko prozesuetan kalitate-adierazleak identifikatu ditu.
- b) Ezarritako prozedurak zein neurritaraino betetzen diren egiaztatu du.
- c) Tratamenduaren eraginkortasun-maila kontrolatu du.
- d) Lortu beharreko helburuarekiko litezkeen desbideratzeen aurkako neurriak aplikatu ditu.
- e) Mailarako eta lanbiderako hizkuntza tekniko egokia erabili du.
- f) Depilatu eta koloregabetu ondorengo mantentze-lanak zehaztu ditu.
- g) Zerbitzuaren kalitatea eta bezeroaren gogobetetzea balioetsi ditu.
- h) Depilazio aurreraturako bestelako proposamenak zerrendatu ditu.
- i) Depilazioarekin lotutako beste tratamendu batzuk ezagutu ditu.
- j) Hitz teknikoaren txosten bat prestatu du.

B) Edukiak:

1.- Lan-eremua prestatzea

Ilea ezabatu edo gutxiagotzeko tekniketarako tresneria eta lanabesak identifikatzea.

Aparatuen eta tresneriaren egoera identifikatzea.

Segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzea.

Ilea depilatu eta koloregabetzeko produktuak kontrolatu eta biltegitratzeko arauak aplikatzea.

Lan-eremua eta ingurumen-neurriak antolatzea.

Depilazio-prozesuetarako estetika-kabina.

Ilea depilatu eta koloregabetzeko prozeduretako segurtasuna eta higiena:

- Profesionalarentzako eta bezeroarentzako babes-neurriak.
- Depilazioko aparatuetarako arretak eta mantentze-lanak.
- Materialen eta tresneriaren garbiketa eta desinfekzioa.
- Ezusteko arriskuen aurrean jarduteko protokoloak.
- Ergonomia.
- Behin erabiltzeko materialak.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Segurtasun eta higieneari buruzko arauetako errespetua.

Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiarekiko errespetua.

Norbera eta ingurumena babesteko bitartekoen balorazio positiboa.

2.- Depilaziorako analisi estetikoa egitea

Bezeroen datuak hartzea.

Bezeroen fitxa teknikoak erregistratzea.

Depilatu beharreko eremua aztertzea.

Bezeroak prestatzea.

Ilearen depilazioak eta koloregabetzeak sorraraz ditzaketen erreakzioak identifikatzea.

Bezeroei buruzko fitxak.

Bezeroen eskariak.

Ile motak, banaketa eta eremukako kokapena.

Depilazio-prozesuan eragina duten larruazal-organoaren asaldurak.

Ileak eragindako gorputz-asaldura estetikoak.

Kontraindikazio erabatekoak edo erlatiboak depilazioko tratamendu estetikoak aplikatzean.

Jarrera eta gaitasun profesionalak:

- Deontologia profesionala.

Eman beharreko informazioaren koherentzia eta egiazkotasuna.

Ordena eta kontrola datuak bideratu eta erregistratzean.

Zehaztasuna datuak erregistratu eta interpretatzean.

3.- Depilazio-prozedurak hautatzea

Depilazio- edo koloregabetze-metodoak hautatzea.

Depilatzeko kosmetikoak identifikatzea.

Depilazio mekanikorako metodoak identifikatzea.

Depilazio mekanikorako lanabesak, tresneria eta aparatuak prestatzea.

«Epilazio» eta «depilazio» terminoak definitzea.

Depilazioko terminologia. Depilazioa eta epilazioa. Ezaugarriak eta aldeak.

Historian zehar erabilitako depilazio-moduak.

Depilatzeko teknika motak:

- Kimikoak.

- Fisikoak: moztea, errekontza, urradura, matxarda bidezko abultsioa eta argizariak.

Depilazio mekanikorako materialak, lanabesak eta tresneria:

- Argizari beroko urgailuak.

- Matxardak: onurak eta eragozpenak.

- Argizari epelerako andela eta aplikagailua.

Ilea koloregabetzeko teknikak.

Depilazio-teknikak hautatzeko irizpideak: eremua, ile kantitatea, iraupena, larruazalaren egoera.

Eguno depilazio mekanikoen motak:

- Berrerabileraren arabera. Argizari birziklagarriak: argizari beroak, tenperatura txikiko argizariak. Behin erabiltzeko argizariak: esparatrapuak edo zelofanezko filmak, behin erabiltzeko argizari epela, arrabol bidez edo espatula bidez.

- Urtze-tenperaturaren arabera (beroak, epelak, hotzak).

- Aplikazio-tekniken arabera: arrabolaz edo espatulaz.

- Teknika bereziak.

Depilazio mekanikorako aparatuak, tresneria eta kosmetikoak erabiltzeko arretak.

Lan-plana egiteko interesa eta prestasuna.

Ilearen depilazioari eta koloregabetzeari buruzko ezagupenak zabaltzeko interesa.

Erantzukizuna materiala zaintzean eta maneiatzean.

4.- Depilazio mekanikorako teknikak gauzatzea

Depilazio mekanikoa egitea:

- Aurretiazko eragiketak egitea.

- Alde anatomiko bakoitzeko teknikak gauzatzea. Ondorioak eta kontraindikazioak.

Argizari bero bidezko depilazio-teknika egitea.

Depilazio epeleko teknika egitea.

Matxarda bidezko depilazioa teknika egitea.

Gorputz- eta aurpegi-eremuetarako berariazko prozedurak egitea.

Depilazio mekanikorako denborak kontrolatzea.

Zerrendak, espatulak eta hainbat tresna erabiltzea.

Depilazio mekanikoa: aurretiazko eragiketak. Alde anatomikoa bakoitzerako teknikak eta gauzatzeak. Efektuak.

Kontraindikazioak.

Produktu atzeratzaileak eta depilazio ondokoak.

Argizari beroko depilazio-prozesuko jardunbideak.

Depilazio epeleko prozesurako jardunbideak.

Matxarda bidezko depilazio-prozesurako jardunbideak.

Gorputz- eta aurpegi-eremuetarako berariazko prozedurak.

Bekainen depilazioa. Amaierako teknikak eta teknika osagarriak.

Depilazio ondoko produktuak banatzeko edo masajeko eskuzko maniobrak.

Zerrendak, espatulak eta hainbat tresna erabiltzea.

Nahi ez diren ondorioak eta arriskuen kontrola depilazioan.

Zehaztasuna eta trebetasuna lana egitean.

Lana garatzeko autonomia eta ekimena.

Bezeroen egoera zehatza ulertzea eta horretara egokitzea.

Diskrezioa, errespetua eta adeitasuna harremanetan.

5.- Ilea koloregabetzeko teknikak gauzatzea

Ilea koloregabetzeko teknika egitea.

Produktu koloregabetzaileen aurkako erreakzio baten aurrean jardun-protokoloak betetzea.

Ilea koloregabetzeko nahasteak egitea.

Ilea koloregabetu ondoko tratamendua egitea.

Ilea koloregabetzeko teknikak. Koloregabetzearen oinarriak. Toxikotasuna eta arriskuen kontrola. Aurkako erreakzioak.

Ilea koloregabetzeko jardunbidea: prozesuaren faseak, sekuentziazioa eta denboralizazioa. Tratamenduaren kontraindikazioak.

Ilearen kolorea. Ilearen koloregabetze-maila.

Ilea koloregabetzeko produktuak hautatu eta erabiltzeko irizpideak: kremak, soluzioak, xanpua, oreak, hautsak eta olioak. Oxidatzailearen kontzentrazioa hautatzea; kalkulu bolumetrikoak; koloregabetzeko nahastea prestatzea.

Koloregabetzearen oinarriak. Toxikotasuna eta arriskuen kontrola. Ilearen koloregabetze-maila. Tratamenduaren kontraindikazioak.

Koloregabetzeko produktuen aurkako erreakzio baten aurreko jardunbideak.

Segurtasun- eta higiene-neurriak ilearen koloregabetzea aplikatzean. Profesionala eta bezeroa babesteko berariazko neurriak.

Zehaztasuna eta trebetasuna lana egitean.

Lana garatzeko autonomia eta ekimena.

Bezeroen egoera zehatza ulertzea eta horretara egokitzea.

Diskrezioa, errespetua eta adeitasuna harremanetan.

6.- Soberako ilea depilatu eta koloregabetzeko prozesuetan kalitatea zehazten duten parametroak aztertzea

Lortutako emaitzak balioestea. Emaitzak kontrolatu eta optimizatzea.

Tekniken berezko edo horiei lotutako terminoak erabiltzea.

Ilearen koloregabetzeko eta depilazio mekanikorako prozesuen kalitate-kontrola.

Ilearen koloregabetzeko eta depilazio mekanikorako prozesuen kalitate-faktoreak.

Gogobetetze-maila.

Lotutako beste tratamendu batzuen berri emateko teknikak eta depilazio aurreraturako proposamena.

Lortutako emaitzak balioestea.

Emaitzak kontrolatu eta optimizatzea.

Antzemandako arazoak ebazteko ekimena.

Zuhurtasuna eta adierazpena gatazkak ebaztean.

Kontingentzien aurreko protokoloak.

Zerbitzua hobetzeko interesa.

Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna.

4. lanbide-modulua: Eskuetako eta oinetako estetika

Kodea: 0636

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Manikura- eta pedikura-prozesua zehazten du, eskuen eta oinen morfologia behatu eta gero, eta hura erabiltzailearen eskariekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Manikura- eta pedikura-prozesu estetikoak zehaztu ditu.

b) Oinen eta eskuen morfologia aztertu du.

c) Erabiltzailearen eskariak eta gustuak balioetsi ditu.

d) Manikura- eta pedikura-teknika estetikoak egiteko prozedurak diseinatu ditu.

e) Fitxa teknikoa erregistratu du: prozedurak, datu pertsonalak eta interes profesionaleko informazioa.

f) Teknika horiek gauzatzen dituen profesionalaren neurri estetikoak zaindu ditu.

2.- Eremuak, tresneria, kosmetikoak eta aparatuak prestatzen ditu, manikura- eta pedikura-tekniketara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Manikura- eta pedikura-prozesu estetikoak zein eremutan egingo diren identifikatu du.

b) Instalazioak higiene-baldintza egokietan mantendu ditu haiek erabili aurretik eta ondoren.

c) Tresneria, materialak eta kosmetikoak hautatu ditu.

d) Lanabesak, aparatuak eta kosmetikoak trebetasunez maneiatu ditu.

e) Mantentze-, desinfekzio- eta esterilizazio-lanetarako metodo egokienak aplikatu ditu.

3.- Manikura- eta pedikura-teknikak egiten ditu, segurtasun- eta higiene-arauak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Erabiltzailearen kokapena eta babesa planifikatu ditu, erosotasun- eta segurtasun-irizpideak kontuan izanda.

b) Manikura- eta pedikura-teknika estetikoak egiteko jardunbideak hautatu ditu, berariazko segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatuta.

c) Azazkal-laminako makillajea kentzeko teknikak aplikatu ditu.

d) Azazkalak egokitzeko teknikak egin ditu: ebaketa, konponketa eta forma.

e) Azazkalak haien morfologiaren arabera karrakatu eta leundu ditu.

f) Kutikula egokitu eta/edo kentzeko teknikak aplikatu ditu.

g) Manikura- eta pedikura-teknikak gizonezko erabiltzailearen ezaugarri eta beharretara egokitu ditu.

h) Masaje-teknikak aplikatu ditu, eta horien sekuentziarioa, ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak justifikatu ditu.

4.- Esku, oin eta azazkaletarako berariazko tratamenduak egiten ditu, prozesuan teknika berritzaileak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Oin, esku eta azazkaletarako berariazko tratamendu-prozedurak deskribatu ditu.

b) Manikurako eta pedikurako tratamenduetan eta tekniketan erabiltzen diren aparatuak eta kosmetikoak planifikatu ditu.

c) Berariazko tratamenduetarako aparatuak maneiatu ditu: eflubioak, bentosak, eskuilak, ihinztigailuak, parafina, etab.

d) Erabilera-prozeduren, eta higiene- eta osasun-neurrien arabera berariazko kosmetikoak erabili ditu.

e) Esku eta oinetarako tratamendu estetikoak egiteko teknikak, aparatuak eta kosmetikoak bateratu ditu.

f) Aparatuak, trenak eta kosmetikoak mantendu eta zaintzeko teknikak aplikatu ditu.

g) Teknika horiek aplikatzeko beharrezko bitartekoak erabili eta ezabatzearen inguruan indarrean dagoen higiene- eta osasun-araudiari buruzko ezagupenak erakutsi ditu.

5.- Azazkalak apaintzen ditu, teknikak eta kosmetikoak konbinatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azazkalen makillaje motak grafikoki diseinatu ditu.

b) Apaintzeko eta makillatzeko produktuak egituraren eta aplikazio-tekniken arabera sailkatu ditu.

c) Makillaje-teknika mistoak aplikatu ditu: aerografoa eta pintzela.

d) Esmalteen makillatzeko teknikak aplikatu ditu: mistoak, pintzelekoak eta puntzoikoak.

e) Produktu akrilikoekin makillatzeko teknikak aplikatu ditu.

f) Azazkalak makillatzeko hainbat mota eta diseinu egin ditu: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak eta fantasiak.

g) Gizonezkoen azazkalak edertzeko berariazko teknikak gauzatu ditu.

h) Emaizak egiaztatu ditu, eta erabiltzailearen gustuekin eta beharrekina alderatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Manikura- eta pedikura-prozesu estetikoak zehaztea

Oinen eta eskuen sailkapen morfologikoa.

Eskuen eta oinen morfologia behatuta, manikura- eta pedikura-prozesu estetikoak identifikatzea.

Manikura- eta pedikura-teknika estetikoak egiteko protokoloak identifikatzea.

Erabiltzailearen inguruko protokolo-datuak, datu pertsonalak eta interes profesionaleko informazioa hartzea.

Eskuen eta oinen azterlan estetikoak:

- Eskuen eta oinen morfologia.

- Azazkalen morfologia.

Fitxa teknikoa.

Manikura- eta pedikura-zerbitzuak. Protokoloen diseinua.

Zerbitzugintzaren kalitate-kontrola.

- Erabiltzailearentzako harrera eta arreta.

- Profesionalaren irudia zerbitzugintzako kalitate-faktore gisa: profesionalaren zaintza estetikoak.

Profesionala edo erabiltzailea babesteko neurriak.

Laneko jarrerak.

Itxura eta higiene pertsonalari arreta jartzea.

Errespetua eta adeitasuna bezeroekiko tratuan.

2.- Eremuak, tresneria, kosmetikoak eta aparatuak prestatzea

Manikura- eta pedikura-prozesuak egingo direneko lan-eremua identifikatzea.

Segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzea.

Tresnak, aparatuak eta kosmetikoak hautatzea.

Mantentze-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatzea.

Manikura- eta pedikura-instalazioak:

- Eremuen banaketa. Manikurako eta pedikurako altzariak.
- Argiaren eta airea berritzeko sistemaren garrantzia.

Manikuran eta pedikuran erabiltzen diren tresneria eta kosmetikoak:

- Tresnen eta apartuen maneia, aplikazioa eta kontserbazioa.
- Kosmetikoak manipulatu, aplikatu, kontserbatu eta mantentzeko teknikak.
- Kosmetikoen ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak.
- Materialen aplikazioa eta mantentze-lanak. Aerografoa erabili eta mantentzeko teknikak. Hautatzeko irizpideak.

- Manikura- eta pedikura-prozesuei buruzko araudia.

- Garbiketan eta esterilizazioan aplikatu beharreko jarraibideak. Materialen eta desinfekzio-metodoaren arteko lotura.

Manikura- eta pedikura-prozesuetarako estetika-kabina:

- Manikurarako eta pedikurarako tresneria, materialak eta kosmetikoak hautatu eta erabiltzeko irizpideak.

- Ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak manikura- eta pedikura-tratamendu estetikoak aplikatzean.

Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua.

Norbera eta ingurumena babesteko bitartekoak errespetatzeko interesa.

Lana garatzeko autonomia.

Laneko materiala mantendu eta kontserbatzeko erantzukizuna.

3.- Manikura- eta pedikura-teknikak gauzatzea

Erabiltzailea ipini eta babesteko protokoloa betetzea.

Azazkalen makillajea kentzeko teknika egitea.

Azazkalak egokitzeko teknika egitea.

Azazkalak karrakatu eta leuntzeko teknika egitea.

Kutikulak egokitu eta kentzeko teknika egitea.

Gizonezkoentzako berariazko manikura- eta pedikura-teknikak egitea.

Eskuetan eta oinetan masajea aplikatzea.

Erabiltzailea ipini eta babesteko teknikak.

Manikuraren aurreko teknikak: profesionalaren eta erabiltzailearen eskuak desinfektatzea.

Azazkalen makillajea kentzeko teknika: azazkal inguruko lamina eta tolestura. Konponketa eta forma:

- Ebaketaren eta karrakatzearen bidez azazkalaren forma diseinatzea: obalatuak, karratuak, biribilak eta bestelakoak.

- Eskuetako eta oinetako azazkalak ebakitzeko teknika.

- Azazkalak karrakatu eta leuntzeko teknika.

- Kutikulak egokitu eta kentzeko teknika.

- Gizonezkoentzako berariazko manikura- eta pedikura-teknikak.

Masaje-maniobrak manikuran eta pedikuran:

- Ezaugarriak, ekintza tokikoak eta orokorrak, indikazioak eta kontraindikazioak.

- Masaje-maniobrak: sailkapena, deskribapena eta ondorioak.

- Masajearen parametroak: norabidea, intentsitatea, erritmoa eta errepikapenak.

- Eskuetako, besaurreko eta ukondoko masajea aplikatzeko jarraibideak: hasierako eta amaierako eremuak; maniobren motak eta parametroak hautatzeko irizpideak; sekuentziak.

Oinetako masajea aplikatzeko jarraibideak: hasierako eta amaierako eremuak; maniobren motak eta parametroak hautatzeko irizpideak; sekuentziak.

Norbera babesteko neurriekiko interesa, erosotasun- eta segurtasun-irizpideak kontuan izanda.

Manikura- eta pedikura-tekniketan segurtasun- eta higiene-protokoloak balioestea.

Zehaztasuna eta trebetasuna lana egitean.

4.- Berariazko manikura- eta pedikura-tratamenduak prestatzea

Eskuetako eta oinetako tratamendu estetikoak sailkatzea.

Eskuetako eta oinetako tratamendu estetikoak egitea.

Manikura- eta pedikura-tekniketan aparatuak erabiltzea.

Erabilera-prozeduren, eta higiene- eta osasun-neurrien arabera berariazko kosmetikoak hautatu eta erabiltzea.

Tratamenduak aplikatzean berariazko prozedurak betetzea.

Aparatuak, trenak eta kosmetikoak mantendu eta zaintzeko teknikak aplikatzea.

Esku eta oinetako tratamendu estetikoak:

- Hidratazio-asalduren tratamenduak.

- Pigmentazio-asalduren tratamenduak.

- Keratinizazio-asalduren tratamenduak.

- Baskularizazioko eta odol-odol-zirkulazioko asalduren tratamendua. Interes estetikoak duten bestelako asaldurak.

Manikura- eta pedikura-tekniketan erabiltzen diren aparatuak: eflubioak aplikatzeko maiztasun handiko korranteetako tresneria. Bentosak. Bibragailuak. Eskuilak. Erradiazio infragorriak. Parafina-berogailuak. Dutzak eta lainoztatzeak.

Berariazko kosmetikoak: hautatu eta erabiltzeko irizpideak.

Tratamenduak aplikatzeko teknikak: faseak, sekuentziazioa, denboralizazioa, teknikak eta bitartekoak hautatzeko irizpideak.

Manikurako spa. Pedikurako spa.

Baliatzen diren bitartekoen eta tekniken erabilera-arauak, ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak.

Zehaztasuna eta trebetasuna lana egitean.

Lana garatzeko autonomia.

Berariazko tratamenduak aplikatzeko indarrean dagoen higiene- eta osasun-araudiarekiko errespetua.

5.- Azazkalak apaintzea

Azazkal-esmalteak sailkatzea.

Apaintzeko eta makillatzeko produktuak egituraren eta aplikazio-tekniken arabera identifikatzea.

Azazkaletako makillajeen diseinu grafikoak egitea.

Esmaltearekin makillatzeko teknikak egitea: mistoak, pintzelekoak, aerografokoak eta puntzoikoak.

Produktu akrilikoekin makillatzeko teknikak egitea.

Fantasiako teknikak egitea: goi-erliebea, puntzoi bidezko behe-erliebea, itsastea.

Azazkal-piercingeko teknikak egitea: prestaketa, zulaketa eta akabera, kateatze-itxiera, hari-itxiera.

Azazkaletako makillajeak aplikatzea: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak, marmolazoa eta fantasia.

Gizonezkoen azazkalak edertzeko berariazko teknikak egitea.

Azazkalak leundu eta makillatzeko teknikak: faseak.

Azazkalak esmaltatzea:

- Egituraren arabera.

- Azazkalen formaren eta luzeraren arabera.

- Besteak.

Akrilikoekin makillatzeko teknikak.

Fantasiatzko teknikak. Goi-erliebea, puntzoi bidezko behe-erliebea, itsastea:

- Azazkaletako fantasiatzko makillajeen diseinua.

- Azazkalak apaintzeko materialen eta osagarrien aplikazio-jarraibideak: harriak, hari distiratsuak, zintak, eranskailuak, etab.

Azazkal-piercingeko teknikak: prestaketa eta akabera, kateatze-itxiera, hari-itxiera.

Esmaltearekin makillatzeko teknikak. Pintzelekoak, aerografokoak eta puntzoikoak:

- Eskuen eta oinen prestaketa.

- Azazkalen makillaje zuzentzailea: desproporzioak zuzentzea.

Azazkalak makillatzeko diseinuen teknikak.

Azazkaletako makillajeen motak: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak, fantasia eta bestelakoak.

Eskuak eta oinak zaintzearen inguruan aholkatzeko jarraibidea.

Azazkalak apaindu eta makillatzeko tekniken inguruko ezagupenak azaltzeko interesa.

Lan-taldearekiko elkarlana.

Bitarteko teknikoak zuzen erabiltzea.

5. lanbide-modulua: Azazkal artifizialeterako teknikak

Kodea: 0637

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 84 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Azazkal artifizialak lantzeko prozedura hautatzen du, eta azazkalaren egoerarekin eta hatzen morfologiarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eskuetako eta oinetako azazkalen eta hatzen ezaugarri estetikoak eta morfologikoak zehaztu ditu.

b) Azazkal artifizialak lantzeko prozesuetan eragina duten asaldurak eta gorabeherak zehaztu ditu.

c) Teknika horien kontraindikazio erlatiboak edo erabatekoak deskribatu ditu.

d) Azazkal artifizialen motak sailkatu ditu (ezaugarriak, prozedurak eta metodoak).

e) Azazkal artifizialak aplikatzearen helburua zehaztu du.

- f) Aplikatu beharreko bideragarritasun-irizpideak zein diren adierazi du.
- g) Estetika-zerbitzuetako profesionalaren irudia balioetsi du.
- h) Harrera egiteko protokoloak aplikatu ditu.
- i) Fitxa teknikoan interes profesionaleko datuak erregistratu ditu.

2.- Lantokia segurtasun- eta higiene-baldintzetan prestatzen du, eta erabiltzen dituen instalazioak, materialak, tresneria eta kosmetikoak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Azazkal artifizialak aplikatuko direneko eremuak ikusi ditu.
- b) Azazkal artifizialak aplikatzeko tresneria identifikatu du.
- c) Tornuaren mota eta parametroak (abiadura eta potentzia), fresenak (forma, lodiera eta gogortasuna) eta horiek erabiltzeko arretak hautatu ditu.
- d) Azazkal artifizialak egiteko materialak, tresnak eta aparatuak antolatu ditu: tip-ak, erretxinak, polimeroak, UV lanparak, tornua, fresak, etab.
- e) Tresnen eta aparatuen kontserbazioa eta mantentze-lanak antolatu ditu.
- f) Higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatu ditu.
- g) Azazkal artifizialak egiteko berariazko kosmetikoak eta horiek aplikatzeko ordena identifikatu ditu.
- h) Norbera babesteko ekipamenduaren garrantzia balioetsi du.
- i) Arriskuen eta ingurumenaren babesaren inguruan indarrean dagoen araudia aztertu du.

3.- Azazkal-protesiak aplikatzen ditu, prozedurari jarraituz eta teknika banan-banan erabiliz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen kokapena planifikatu du, erosotasun- eta segurtasun-irizpideak kontuan izanda.
- b) Prozesu horretarako tip-ak edo moldeak aukeratu ditu.
- c) Tip-ak egokitu ditu eta horien forma pertsonalizatu du.
- d) Tip-aren ainguraketa hoberena ematen duten faktoreak zehaztu ditu.
- e) Azazkal artifizialak aplikatu aurreko manikura- eta pedikura-prozesuak egin ditu.
- f) Azazkal naturala berariaz prestatu du.
- g) Gel-teknika erabili du, lanpararekin eta gabe.
- h) Portzelana eta tip-aren teknika erabili du.
- i) Portzelana- eta molde-prozesua zehaztu du.

j) Azazkal artifizialak apainketekin aplikatu ditu.

4.- Azazkal artifizialak apaintzen ditu, teknika bakoitza garatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azazkaletarako makillajeen diseinu grafikoak egin ditu.

b) Esmalte, pintzel eta puntzoi bidez makillatzeko teknikak aplikatu ditu.

c) Aerografo bidez makillatzeko teknikak aplikatu ditu.

d) Fantasiako teknikak egin ditu: goi-erliebea, behe-erliebea eta itsastea.

e) Azazkalak makillatzeko hainbat mota egin ditu: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak eta fantasiak.

5.- Azazkal artifizialaren mantentze-lanak egiten ditu, eta hura betetze- eta berritze-tekniken bidez leheneratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Azazkal artifizialak leheneratu aurreko teknikak aplikatu ditu.

b) Leheneratze-prozedura erabiltzailearen beharrak kontuan izanda antzeman du.

c) Lantokia prozeduraren arabera prestatu du.

d) Azazkal artifizialak betetze-prozeduraren bidez leheneratzeko teknikak egin ditu.

e) Azazkal artifizialak berritze-prozeduraren bidez leheneratu ditu.

f) Erabiltzaileari azazkal artifizialetarako arreten, zaintzen eta mantentze-lanen berri eman dio.

g) Prozesuan zehar sortutako hondakinak gaika ezabatu ditu.

h) Prozesuaren aurrekoa eta ondorengo fitxa teknikoan grafikoki dokumentatu du.

6.- Prozesuaren kalitatea aztertzen du, enpresak ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalitatea, prozesua eta parametroak ebaluatu ditu, emaitzak ikusteko.

b) Zerbitzugintzaren kalitatea kontrolatzeko jarraibideak zehaztu ditu.

c) Emaitzak eta erabiltzailearen gogobetetze-maila ebaluatu ditu, ereduzko galdera sorta baten bidez.

d) Kexuak tratatzeko metodoa ezarri du.

B) Edukiak:

1.- Azazkal artifizialak lantzeko prozedurak hautatzea

Eskuen, oinen eta azazkalen morfologia identifikatzea.

Azazkal artifizialak lantzeko prozesuetan eragina duten asaldurak identifikatzea.

Azazkal artifizialen motak lantze-materialaren arabera sailkatzea.

Azazkal artifizialeterako teknikak sailkatzea.

Bezeroaren datuak hartu eta jasotzea.

Azazkal artifizialeterako prozesuak aztertzea. Eskuen eta oinen morfologia. Azazkalen morfologia.

Azazkal artifizialeterako prozesuetan eragina dute asaldurak. Asaldura tokikoak, aldeetakoak eta sistemikoak.

Azazkal artifizialak. Azazkal artifizialeterako teknikak hautatzeko irizpideak. Kontraindikazio erlatiboak eta erabatekoak.

Profesionala eta bezeroa prozesu horietan. Datuak hartu eta jasotzea. Fitxa teknikoa.

Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua.

Ordena eta kontrola datuak bideratu eta erregistratzean.

Norbera eta ingurumena babesteko bitartekoen balorazio positiboa.

2.- Lantokia prestatzea

Azazkal artifizialeterako tekniketarako tresneria eta lanabesak identifikatzea.

Azazkal artifizialen zerbitzua antolatzea: lantokia, tresneria eta ingurumen-neurriak prestatzea.

Higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-neurriak aplikatzea.

Norbera babesteko neurriak aplikatzea. Autobabesa.

Azazkal artifizialak egiteko estetika-kabina. Instalazioak, beharrak eta instalaziorako arauak. Eremuen diseinua: argiztapenaren garrantzia (argi artifiziala eta naturala), aireztapena eta aire-erazketa.

Lanabesak. Deskribapena, maneiua eta mantentze-lanak.

Aparatuak. Deskribapena, maneiua eta mantentze-lanak. UV lanparak. Tornuak. Fresak. Besteak.

Segurtasuna eta higiena azazkal artifizialak aplikatzeko prozeduretan:

- Profesionalarentzako eta bezeroarentzako babes-neurriak.
- Azazkal artifizialak egiteko aparatuetarako arretak eta mantentze-lanak.
- Materialen eta tresneriaren garbiketa, desinfekzioa eta esterilizazioa.
- Ezusteko arriskuen aurrean jarduteko protokoloak.

Azazkal artifizialak lantzeko erabiltzen diren kosmetikoak. Azazkal artifizialak lantzeko erabiltzen diren produktuak hautatu, erabili eta kontserbatzeko irizpideak. Erabili aurretik eta

ondoren kosmetikoak kontserbatzeko jarraibideak.

Norbera eta ingurumena babesteko bitartekoen balioespen positiboa.

Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

3.- Azazkal-protesiak aplikatzea

Erabiltzailearen kokapena planifikatzea, erosotasun- eta segurtasun-irizpideak kontuan izanda.

Tip-ak edo moldeak hautatu eta egokitzea, eta haien forma pertsonalizatzea.

Azazkal artifizialak aplikatu aurreko manikura eta pedikura egitea.

Gel-teknika egitea, lanpararekin edo gabe.

Portzelana-teknika «tip»-arekin eta moldearekin egitea.

Azazkal artifizialak apainketekin egitea.

Gauzatu aurreko manikura- eta pedikura-prozesua.

Azazkal artifizialeterako teknikak garatzea:

- Moldea edo «tip»-a egokitzeko teknika.
- Moldea edo «tip»-a aplikatzeko ainguraketa-teknika.
- Moldeak edo txantiloak aplikatzeko teknika.
- Erretxinazko azazkala edo azazkal akrilikoa lantzeko teknika.
- Gel-azazkalaren teknika.
- Azazkal artifizialeterako teknika berritzaileak.
- Azazkal artifizialak mantendu eta kontserbatzeko teknikak.

Azazkal artifizialak aplikatzeko jarraibideak: faseak, sekuentziazioa, denboralizazioa.

Betiere, egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

Bezeroarentzako arretaren eta zerbitzuaren garapenaren kalitatearekiko interesa.

Ezarritako arauak errespetatzea eta betetzea.

4.- Azazkal artifizialak apaintzea

Azazkaletarako makillajerako diseinu grafikoak egitea.

Esmalte, pintzel eta puntzoi bidezko makillajea aplikatzea.

Aerografo bidezko makillajea aplikatzea.

Fantasiako makillajea egitea: goi-erliebea, behe-erliebea eta itsastea.

Azkazaletako makillajea egitea: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak, marmolazoa eta fantasia.

Esmaltearekin, pintzelarekin eta puntzoiarekin makillatzeko teknika.

Aerografoaren teknika.

Fantasiako teknikak: goi-erliebea, behe-erliebea eta itsastea.

Azkazaletako makillaje motak: frantsesa, ilargierdia, puntak, diagonalak, loreak, marmolazoak eta fantasia.

Betiere, egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

Bezeroarentzako arretaren eta zerbitzuaren garapenaren kalitatearekiko interesa.

Ezarritako arauak errespetatzea eta betetzea.

5.- Azazkal artifizialen mantentze-lanak

Azazkal artifizialak leheneratu aurreko eragiketak egitea.

Erabiltzailearen beharrak identifikatzea, protokoloak egiteko.

Azazkal artifizialak leheneratzeko prozedurak egitea.

Erabiltzaileari azazkal artifizialearako arreten, zaintzen eta mantentze-lanen berri ematea.

Prozesuan zehar sortutako hondakinak ezabatzea.

Azazkal artifizialak leheneratzeko teknikak:

- Askatutako azazkalak ezabatzeko prozedura.

- Azazkalak erabat ezabatzeko prozedura.

- Betetze-prozedura.

- Berritze-prozedura.

Azazkal berezietarako teknikak: txikiak, hautsiak eta okerrak.

Azazkal naturalak prestatu eta zaintzeko teknikak.

Azazkal artifizialen hondakinak birziklatzea.

Jarraipen-fitxa.

Zehaztasuna eta trebetasuna lana egitean.

Erabiltzaileen egoera zehatzekiko egokitzapena eta ulermena.

Kontrola eta zehaztasuna datuak erregistratzean.

6.- Prozesuaren kalitatea aztertzea

Kalitatea ebaluatu eta kontrolatzea.

Azazkal artifizialak aplikatzean bezeroaren gogobetetze-maila balioestea.

Erabiltzaileari prozesuaren mantentze-lanen eta zaintzen berri ematea.

Azazkal artifizialetako prozesuen kalitate-kontrola.

Azazkal artifizialetako prozesuen kalitate-faktoreak.

Prozesuaren kalitatea ebaluatzeko formularioak.

Bezeroekiko komunikazioaren funtsezko puntuak.

Bezeroarentzako arretaren eta zerbitzuaren garapenaren kalitatearekiko interesa.

Ezusteko egoeretan erantzuteko gaitasuna.

Betiere, egiten den lanaren erantzukizuna hartzea.

6. lanbide-modulua: Anlisi estetikoa

Kodea: 0638

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 99 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Larruazal tipologia bakoitzaren eta dagozkion eranskinen anatomia eta fisiologia ezaugarritzen du, eta horiek betetzen dituzten eginkizunekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazalaren ezaugarri orokorrak zehaztu ditu.

b) Larruazalaren alderdi makroskopikoak eta mikroskopikoak, haren irrigazioa eta inerbazioa deskribatu ditu.

c) Melanogenesi- eta keratinizazio-prozesua deskribatu du.

d) Larruazal-eranskinen egitura zehaztu du, eta haiek betetzen dituzten eginkizunekin eta larruazalaren egoerarekin lotu ditu.

e) Larruazalaren eginkizunak aztertu ditu.

f) Larruazalaren eginkizunak haren desbideratze estetiko posibleekin lotu ditu.

g) Gorputzaren hainbat zatitako larruazalaren, gizonetzkoen larruazalaren, arrazen larruazalaren, etab. ezaugarri bereziak bereizi ditu.

h) Larruazal motak emulzio epikutaneoaren arabera sailkatu ditu.

i) Larruazalak eguzkiaren aurrean dituen erreakzioak zehaztu ditu.

2.- Larruazalaren eta eranskinen oinarrizko lesioak eta asaldurak identifikatzen ditu, eta horien ezaugarriak eta ondorio estetikoak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tratamendu estetikoaren aplikazioan eragina izan dezaketen larruazal-lesio ohikoenak antzeman ditu.

b) Teknika estetikoetan eragina duten hidratazioaren, izerditzearen, lipidazioaren, pigmentazioaren eta keratinizazioaren asaldurak identifikatu ditu.

c) Teknika estetikoekin lotutako asaldura baskularrak deskribatu ditu.

d) Ile-sistemaren kantitatearekin lotutako asaldurak sailkatu ditu, eta desbideratze estetikoaren seinale izan daitezkeenak balioetsi ditu.

e) Dermisaren eta hipodermisaren asaldurak, eta larruazaleko tumore gaiztoak aipatu ditu.

f) Manikurako, pedikurako eta azazkal artifizialeko zaintza estetikoetarako teknikan eragina duten esku eta oinetako asaldurak ezaugarritu ditu.

g) Narritadura- eta alergia-erreakzioak zehaztu ditu, eta horien arteko antzekotasunak eta aldeak ezarri ditu.

h) Estetika-zerbitzuak egiteko kontraindikazioa ekar dezaketen eta beste profesional batek tratatzekoak izan daitezkeen asaldurak identifikatu ditu.

3.- Analisisirako berariazko aparatuak identifikatzen ditu, eta funts zientifikoa haiek segurtasun- eta higiene-baldintzetan erabiltzeko araukin eta indikazioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazala eta eranskinak analizatzeko erabiltzen den tresneria sailkatu du.

b) Bakoitzaren funts zientifikoa aztertu du.

c) Aparatu bakoitzak adierazitako emaitzak interpretatzeko era identifikatu du.

d) Analisi-tresneria erabiltzean kontuan hartu beharreko segurtasun-neurriak eta arretak deskribatu ditu.

e) Tresneria bakoitzaren higiene- eta mantentze-arauak zerrendatu ditu.

f) Larruazala eta eranskinak analizatzeko erabiltzen den tresneriaren funtzionamendua eta erabilera-arauak egiaztatu ditu.

4.- Larruazalaren eta eranskinen analisisa egiten du, ezarritako prozedurak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazala eta eranskinak analizatzeko protokoloaren faseak zehaztu ditu.

b) Elkarrizketa pertsonalean eta fitxa teknikoan jaso beharreko datuak identifikatu ditu.

c) Analisi-zerbitzua egiteko beharrezko materialaren eta tresneriaren prestaketa zehaztu du.

d) Analisisa egiteko prozesua sekuentziatu du: zuzeneko behaketa, ukipena eta haztapena.

e) Analisi-tresneria prozesuaren sekuentziaren arabera erabili du.

f) Elkarrizketa pertsonalean eta miaketaren emaitzetan lortutako informaziotik abiatuta proposatu du analisi estetikoa.

g) Erabiltzailea beste profesional batzuegana noiz, nola eta zergatik bideratu behar den adierazi du.

5.- Estetika- eta edergintza-zerbitzuetan erabiltzen diren aparatuak antzeman eta baliatzen ditu, eta horien funts zientifikoa erabilera-eskakizun teknikoekin eta sortutako ondorioekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Higieneko, hidratazioko, depilazio mekanikoko, eta esku eta oinetako higienetramendu estetikoetarako erabiltzen den tresneria sailkatu du.

b) Haren funts zientifikoa, parametroak, erabilera, ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak aztertu ditu.

c) Tresneria bakoitzaren segurtasun- eta higiene-arauak deskribatu ditu, hura behar bezala erabili, mantendu eta kontserbatzeko.

d) Aparatuak eta tresneria erabili ditu, bezeroak eta profesionala babesteko neurriak aplikatuta.

e) Aparatuak erabiltzean istripurik izanez gero jarraitu beharreko neurriak zehaztu ditu.

f) Egin beharreko berriazko tratamenduaren arabera tresneria egokiaren erabilera justifikatu du.

6.- Bere jarduera garatzean jarrera profesionala izateak duen garrantzia balioetsi du, eta hori arau deontologikoak betetzearekin lotu du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Deontologia profesionalaren kontzeptua definitu du.

b) Profesionalaren betebeharrak identifikatu ditu.

c) Pertsonetikiko errespetu-arauak identifikatu ditu.

d) Estetikako lanbidean sekretu profesionalaren garrantzia justifikatu du eta horrek bezeroarengan edo profesionalarengan zer-nolako eragina izan dezakeen azaldu du.

e) Datuak babesteko legea eta estetikako lanbidean horrek duen eragina aztertu ditu.

f) Konstituzioan jasota dauden pertsonen eskubideak zehaztu ditu.

B) Edukiak:

1.- Larruzal-organoen anatomia eta fisiologia deskribatzea

Lurrazal-morfologiaren ezaugarriak bereizi eta aztertzea.

Grafikoen eta eredu anatomikoen bidez, epidermisaren egitura identifikatzea.

Egiturak eta horiek betetzen dituzten eginkizunak elkarrekin lotzea.

Eskemen eta eredu anatomikoen bidez, dermisaren eta hipodermisaren egitura identifikatzea.

Eskemen eta eredu anatomikoen bidez, larruazal-eranskinen egitura identifikatzea.

Larruazaleko guruin-jariakinen ezaugarrien sailkapenak egitea.

Larruazal-erliebea: larruazalaren ezaugarri makroskopikoak.

Larruazalaren egitura mikroskopikoa: epidermisa, dermisa eta hipodermisa. Zelulak, ehunak, konposizioa eta antolamendua.

Larruazaleko guruin- eta adar-eranskinak: izerdi- eta sebo-guruinak; azazkalak eta ilea.

Larruazalaren eta eranskinen eginkizunak.

Larruazaleko keratinizazioa, melanogenesis, baskularizazioa eta inerbazioa.

Larruazalaren ezaugarri bereziak estetikan interesa duten eremuetan: aurpegia, besapeak, izterondoak, eskuak, oinak...

Larruazal motak: eudermikoa, lehorra (deshidratatua eta alipikoa), koipea (normala eta deshidratatua), okluitua, mistoa, sentikorra, etab. Larruazalaren ezaugarriak, itxura, beharrak eta zaintza kosmetikoak.

Larruazalaren bilakaera bizitzan zehar, emakumearen egoera fisiologikoen arabera.

Gizonezkoen larruazala.

Larruazala eta arrazak.

Larruazala eta eguzkia: eguzki-erradiazioaren ezaugarriak, larruazal-fototipoak, larruazalaren erreakzioak eguzkiarekiko.

Larruazala eta eguzkia: eguzki-erradiazioaren ezaugarriak, larruazal-fototipoak, larruazalaren erreakzioak eguzkiarekiko.

Organismoa babesteko, larruazalaren gainazaleko geruzak duen garrantzia ezagutzea.

Larruazalaren barne-funtzionamendua ezagutzearen garrantzia balioestea.

Larruazalarekin eta haren zaintzarekin lotutako aurrerapen zientifiko guztiak ezagutzeko interesa.

Eguzkiak larruazalean epe laburrera eta luzera dituen ondorioez jabetzea.

2.- Larruazalaren eta eranskinen asaldurak identifikatzea

Tratamendu estetikoekin bateraezinak izan daitezkeen larruazal-gaitzak antzematea.

Oinarrizko larruazal-lesioak sailkatzea.

Teknika estetikoetan eragina duten hidratazioaren, izerditzearen, lipidazioaren, pigmentazioaren eta keratinizazioaren asaldurak identifikatzea.

Teknika estetikoetan eragina duten hidratazioaren, izerditzearen, lipidazioaren, pigmentazioaren eta keratinizazioaren asaldurak identifikatzea.

Tratamendu estetikoetan eragina duten asaldura baskularrak identifikatzea.

Dermisaren eta hipodermisaren asaldurak, eta larruazaleko tumore gaiztoak identifikatzea.

Ile-kantitatearekin lotutako asaldurak identifikatzea.

Narritadura- eta alergia-erreakzioak identifikatzea.

Larruazal-eranskinen asaldurak identifikatzea.

Narritadura- eta alergia-erreakzioak identifikatzea.

Larruazal-asaldurak identifikatzea, asaldurak tratamendu medikoa izan dezakeen edo dermatologoarengana bideratu behar den erabaki ahal izateko.

Larruazalaren oinarritzko lesioak: lesio primarioak eta sekundarioak.

Estetika- eta edergintza-prozesuekin lotutako asaldurak antzemateko protokoloa.

Teknika estetikoetan eragina duten hidratazioaren, izerditzearen, lipidazioaren, pigmentazioaren eta keratinizazioaren asaldurak.

Teknika estetikoekin lotutako asaldura baskularrak. Eritrosia, telangiektasiak eta bestelakoak.

Ile-sistemaren kantitatearekin lotutako asaldurak.

Dermisaren eta hipodermisaren asaldurak.

Larruazaleko tumore gaiztoak.

Eskuen, oinen eta azazkalen berariazko asaldurak.

Narritadura- eta alergia-erreakzioak.

Dagokion konpetentziarekin eta larruazal-organoan eragina duten gaixotasun nagusiekin lotutako tratamendu estetikoaren indikazioak eta kontraindikazioak.

Patologiaren susmagarri izan daitezkeen lesioak mediku espezialistarengana bideratzeko erantzukizuna.

Bezeroek izan ditzaketen asalduren edo gaixotasunen inguruko zuhurtzia.

Edozein motatako larruazal-asaldura dutenenganako errespetua.

Larruazalaren egoera antzemateko errespetua, estetikako profesionalaren hasierako jardun garrantzitsuentzat.

3.- Larruazala eta eranskinak analizatzeko erabiltzen diren aparatuek identifikatzea

Larruazala analizatzeko erabil daitezkeen tresneria identifikatzea.

Analisi-tresneria erabiltzeko segurtasun-, higiene- eta mantentze-neurriak identifikatzea.

Analisian erabiltzen den tresneria: sailkapena. Lupa, Wood-en argia, hidratazio-neurgailua, sebo-neurgailua, mikrokamera eta bestelakoak.

Oinarri zientifikoak deskribatzea eta emaitzak interpretatzea.

Erabilera-arauak eta aplikazio-arretak. Indikazioak eta kontraindikazioak.

Analisi-tresneriaren higieena, desinfekzioa eta mantentze-lanak.

Larruazala analizatzeko erabil daitekeen tresneriaren erabilgarritasuna eta maneiua ezagutzeko interesa.

Jarrera positiboa abian jarri beharreko higie- eta osasun-neurrien aurrean.

Larruazala eta eranskinak analizatzeko erabiltzen den tresneriaren erabilera-arauak errespetatzea.

4.- Larruazala eta eranskinak analizatzea

Larruazala eta eranskinak analizatzeko protokoloak egitea.

Larruazala eta eranskinak analizatzeko protokoloak egitea.

Larruazala eta eranskinak analizatzeko beharrezko materiala eta tresneria prestatzea.

Aurpegi-diagnostikorako protokoloa aplikatuta, bezeroaren asaldura estetikoak, eskaerak eta beharrak identifikatzea.

Tresneria espezializatua behar ez duten bestelako behaketa- eta analisi-metodoak egitea, profesionalaren beraren zuzeneko analisisian oinarrituta: behaketa eta haztapena, besteak beste.

Diagnostiko estetikoa egitea.

Beste profesional batzuegana bideratzekoak diren asaldurak identifikatzea.

Analisi-protokoloaren faseak.

Elkarrizketa pertsonala: historial estetikoa. Fitxa teknikoa.

Miaketa-teknikak: zuzeneko behaketa, ukipena eta haztapena, diagnostiko-tresneriaren bidezko behaketa.

Elkarrizketa pertsonala: historial estetikoa. Fitxa teknikoa.

Miaketa-teknikak: zuzeneko behaketa, ukipena eta haztapena, diagnostiko-tresneriaren bidezko behaketa.

Informazioa; analisi estetikorako sistemak.

Beste profesional batzuegana bideratzeko irizpideak: lotutako dokumentazioa.

Litezkeen asaldurak aztertu eta identifikatzearen, eta bezeroaren eskaerak eta beharrak zehaztearen garrantzia balioestea.

Bezeroari egiten zaizkion galderetatik abiatuta lortzen den informazioa balioestea.

5.- Oinarrizko estetika-tratamenduetan erabiltzen diren aparatuak antzematea

Tratamendu estetikoetan erabiltzen diren aparatuak identifikatu eta zehaztea.

Tratamendu estetikoetako aparatuen segurtasun, higiene, mantentze eta kontserbaziorako neurriak identifikatzea.

Tratamendu estetikoetako aparatuen segurtasun, higiene, mantentze eta kontserbaziorako neurriak aplikatzea.

Bezeroa eta profesionala babesteko neurriak hartzea.

Istripurik izanez gero jarraitu beharreko protokoloak zehaztea.

Erabiltzen den tresneriaren eta egin beharreko tratamenduen arteko lotura.

Tratamendu estetikoetan aparatuak erabiltzeko teknikak:

Deskribapena eta oinarri zientifikoa: lurrina, IR, UV, bentosak, eskuilak, dutxa eta lainoztatze epelak, bibragailua, peeling ultrasonikoa, korrante zuzenetako eta goi-maiztasuneko tresneria (eflubioak), depilazio mekanikorako tresneria, parafinako urgailuak eta bestelakoak.

- Erabilera-arauak eta erabilera-arretak.

- Indikazioak eta kontraindikazioak.

Belzte-kabinen ezaugarriak identifikatzea.

Higiene-, desinfekzio- eta mantentze-teknikak.

Oinarrizko estetika-tratamenduetan erabil daitekeen tresneriaren erabilgarritasuna eta maneia ezagutzeko interesa.

Jarrera positiboa abian jarri beharreko higiene- eta osasun-neurrien aurrean.

Erabiltzen den tresneriaren erabilera-arauak errespetatzea.

6.- Deontologia profesionala aztertzea

Profesionalaren betebeharrak identifikatzea.

Deontologia profesionala aplikatzea.

Profesionalaren eskubideak identifikatzea.

«Deontologia» kontzeptua. Aurrekari historikoak.

Profesionalaren betebeharrak. Arau deontologikoak estetikako lanbidean: segurtasuna, pertsonekiko errespetua, sekretu profesionala.

Datuak babesteko legea eta estetikako lanbidea.

Profesionalen eskubideak.

Zintzotasuna erabiltzailearekiko eta lanbidearen jardunean izan daitezkeen ondorioekiko.

Sekretu profesionalaren garrantzia balioestea.

7. lanbide-modulua; Estetika-kabinako jarduerak

Kodea: 0639

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 147 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Ikasgelan sortutako estatika-kabina baten egitura antolatzen du, eta eremuak, portaera-arauak eta bezeroari arreta egiteko prozedurak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Oinarrizko jardueren prozesuak egingo direneko instalazioak identifikatu ditu.

b) Estetika-kabina bat diseinatu du, eremuak, altzariak, aparatuak eta giro motak banatuta, oinarrizko jarduera bakoitza egiteko.

c) Irudi profesional egokia zehazten duten arauak deskribatu ditu.

d) Bezeroari harrera eta arreta egiteko oinarrizko jarraibideak zehaztu ditu.

e) Bezeroarentzako harrera eta arreta simulatu du, komunikazio-teknikak eta portaera-arauak aplikatuta.

f) Elkarrizketa edo galdera sorta egokiaren bidez, bezeroaren eskaerak/beharrak egoki aztertu ditu.

g) Oinarrizko jardueren prozesuetan, jarrera ergonomiko egokiak, eta norbera eta bezeroa babesteko neurriak ezaugarritu ditu.

h) Kabinako funtsezko gune gisa, higiene- eta desinfekzio-eremua identifikatu du.

i) Oinarrizko jardueretan erabiltzen diren tresneria, material eta lanabesetarako higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokienak aplikatu ditu.

2.- Merkataritza-ekintzaren ondoriozko jarduerak egiten ditu, beharrezko eragiketak eta bitarteko teknikoak bateratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegia prest jarri du, ordenari, garbitasunari, tenperaturari, hezetasunari, etab. buruzko irizpideei jarraituz.

b) Materialak eta kosmetikoak horien aplikazio-esparruaren eta/edo kontserbazio-baldintzen arabera sailkatu eta ordenatu ditu.

c) Biltegia kontrolatu eta kudeatzeko suposizio praktikoak egin ditu, enpresa banatzaileei eskabideak formalizatuta.

d) Merkataritza-garapeneko teknikak diseinatu ditu, hala nola, denda-marketinekoak, sustapenekoak eta publizitatekoak.

e) Merkataritza-jardueraren barruan, paketatze eta enbalatzeko teknikak egin ditu.

f) Informazioko dokumentazioa eta bibliografia espezializatua erabili ditu, etengabe eguneratu eta prestatzeko kontsulta- eta laguntza-elementu gisa.

g) Fitxa tekniko integrala egiteko kontuan hartu beharreko datuak zehaztu ditu.

h) Bezeroei, produktuei eta hornitzaileei buruzko datuak artxibatzeko sistema motak antzeman ditu, datuak babestearen inguruan indarrean dagoen araudia kontuan izanda.

i) Estetika-kabina bat kudeatu eta antolatzeko IKTen aplikazioak eta erabilgarritasunak aztertu ditu.

j) Aurpegia eta gorputza hidratatzeko tratamenduak gauzatzen ditu, bitarteko estetikoaren aplikazioa sekuentziatuta: kosmetikoak, aparatuak eta masajea.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazalaren deshidratazio-mailan eragina duten faktoreak identifikatu ditu.

b) Hidratazioaren asaldurak metodo egokien bidez analizatu ditu.

c) Larruazalaren deshidratazio-maila zehaztu du, tratamendu egokiena gomendatzeko.

d) Larruazalaren hidratazio-tratamendurako kosmetiko eta aparatu egokiak hautatu ditu.

e) Larruazalaren hidratazio-tratamenduan erabiltzen den oinarriko tresneria elektrikoaren parametroak programatu ditu.

f) Aparatu egokiak aplikatu ditu.

g) Eskuzko teknikak hautatu ditu.

h) Larruazalaren hidratazio-tratamenduan, teknika eskuzkoak eta kosmetologikoak, eta tresneria koordinatu ditu.

i) Gainazaleko eta sakoneko hidratazio-tratamenduak egin ditu.

4.- Zerbitzu estetikoak koordinatzen ditu, ezarritako prozesuak sekuentziatu eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proposatutako zerbitzu estetikoa eta jarraituko den prozesuaren sekuentzia justifikatu ditu.

b) Erabiltzaileari egingo zaizkion zerbitzuen eta horretarako gutxi gorabehera behar den denboraren berri eman dio.

c) Egingo den zerbitzuaren arabera prestatu du kabina.

d) Zerbitzu bakoitzean beharrezkoak diren berariazko babes-neurriak erabili ditu.

e) Erabiltzaileari jarraituko den prozesuaren eta teknika bakoitza aplikatzean sumatuko dituen sentazioen berri eman dio.

f) Zerbitzu estetiko bakoitzerako ezarritako protokoloari jarraitu dio.

g) Zerbitzu estetikoetako prozesuak kalkulaturako denboran aplikatu ditu.

h) Prozesuak koordinatzean taldean lan egin du.

5.- Estetika-zerbitzuen emaitzak ebaluatu eta balioesten ditu, eta zuzenketa-neurriak

proposatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Egin beharreko zerbitzuaren kalitaterako erabakigarriak izateagatik ebaluatuko diren alderdiak identifikatu ditu.

b) Egin beharreko zerbitzuan hutsuneak sorraraz ditzaketen arrazoi nagusiak identifikatu ditu.

c) Bai lortutako azken emaitzagatik, bai jasotako arreta pertsonalagatik bezeroaren gogobetetze-maila antzemateko bidea ematen duten ereduazko galderak egin ditu.

d) Egingako zerbitzuak optimizatzeko eta erabiltzaileen gogobetetze-maila hobetzeko neurri zuzentzaileak proposatu ditu.

e) Emaitzak balioesteko suposizio praktikoak egin ditu.

f) Erreklamazio baten aurrean jarraitu beharreko prozesua identifikatu du.

B) Edukiak:

1.- Ikasgelan sortutako estetika-kabina bat antolatzea

Oinarrizko jarduerak egiteko eremuen, giro motaren, altzarien eta aparatuen planoak eta diseinua egitea. Irudi pertsonal egokirako ezarritako arauak identifikatzea.

Bezeroa hartu eta ipintzeko gakoak identifikatzea.

Bezeroari harrera eta arreta egiteko teknikak aplikatzea.

Egin beharreko lan antolatzeko sistema bat aplikatzea, eskuzko eta/do informatika-euskarriko agenda baten bidez.

Bezeroaren eskaerak/beharrak aztertze- galdera sortak edo elkarrizketak egitea.

Aholkularitza tekniko profesional on bat prestatzea, kosmetikoen ekintzari, teknikei eta aplikazio-maiztasunari dagokienez.

Oinarrizko jardueren prozesuetan higie-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatzea.

Oinarrizko jardueren prozesuetan profesionala eta bezeroa babesteko neurriak eta jarrera ergonomiko zuzenak aplikatzea.

Estetika-enpresen sailkapena. Establezimendu motak.

Kabinako jarduerak. Motak: estetika- eta edergintza-zerbitzuak, merkataritza-jarduera, segurtasuna eta higie-, kalitatea, biltegiatzea, etab. Estetikaren zerbitzu osagarriak.

Estetika-kabina: enpresa-irudia, eremuen azterketa eta banaketa. Irizpide funtzionalak eta komertzialak. Bezeroen zirkulazioa lokal barruan. Apaindegiko eremu motak: itxarotekoa, higienekoa, lanekoa, zerbitzu osagarrien eremua.

Elementuak, altzariak eta mihiseria.

Giro-ezaugarriak: lokalaren argiztapena, aireztapena, girotze bisuala (koloreak,

osagarriak, argia, tenperatura eta musika, besteak beste).

Irudia eta profesionaltasuna: profesionalaren irudi pertsonala enpresa-irudi gisa (higienea, makillajea, orrazkerak, jantziak eta osagarriak).

Bezeroen, nagusien, lineako pertsonalaren eta hornitzaileen aurrean portatzeko arauak.

Zerbitzu estetikoetarako bezeroari harrera eta arreta egitea. Zerbitzuak zuzenean eta telefonoz erreserbatzea. Agenda eskuzkoa eta informatika-euskarrikoa antolatzea. Pertsonen arteko komunikazio-teknikak: telefono bidezkoa eta idatzizkoa.

Bezeroaren beharrak eta eskaerak identifikatzeko tresnak. Aholkularitza.

Segurtasuna eta higiena oinarrizko jardueren prozesuetan. Higiena- eta desinfekzio-eremua. Higiena-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatzea. Tratamenduaren arabera profesionala eta bezeroa babesteko neurriak. Ergonomia.

Bezeroen egoera zehatza ulertzea eta horretara egokitzea.

Tratu soziala, adeitsua eta errespetuzkoa bezeroen eta kideen aurrean.

Norberaren itxura edo higiena zaintzeko interesa izatea.

Segurtasun- eta higiena-arauekiko errespetua.

2.- Merkataritza-ekintzaren ondoriozko jarduerak egitea

Apaindegia beharretarako hornikuntza-iturri komenigarrienak erabiltzea.

Eskabideak bete, hartu eta banatzea.

Materialen eta kosmetikoen aurreikuspen kuantitatiboa. Aurreikuspenen kuantifikazioa.

Inbentarioak egitea.

Biltegia antolatu eta prest jartzea.

Produktuen kontrolak eta ikuskapenak egitea.

Produktuak biltegian ipini eta kokatzea.

Litezkeen aldaketak identifikatzea produktuak eta kosmetikoak baztertzea.

Izakinak balioestea.

Stockaren sarrera eta irteerako mugimenduak erregistratu, ikuskatu eta artxibatzea.

Bezeroari, produktuei, erabilitako kosmetikoei eta hornitzaileen zerrendei buruzko datuak eguneratu eta ikuskatzea.

Merkataritza-garapeneko teknikak aplikatzea, hala nola: zorion-txartela, produktuen erakusketa, beira-arsen dekorazioa, sustapenak, publizitatea eta erakustaldiak.

Informatika-aplikazioak maneiatzea.

Hornikuntza-sistemak. Eskabideen formalizazioa eta harrera; eskabideen barne-banaketa. Kosmetikoen eta materialen izakinak kontrolatzea. Inbentarioa.

Biltegitratzeko sistemak. Produktuen sailkapena eta kokapena. Kontserbatzeko baldintzak. Biltegia prest jartzea. Ordena, garbitasuna, tenperatura eta hezetasuna.

Informazio-dokumentazioa. Produktuen eta materialen katalogoa, aldizkari espezializatuak, apartuen txostena, lanbideari buruzko legezko araudia. Dokumentazioa sailkatzeko sistemak.

Artxibatze sistemak. Fitxa teknikoak. Bezero, produktu, kosmetiko eta hornitzaileentzako artxibatze-sistemak hautatzea. Datuak, egindako zerbitzuak, eta produktuen sarrera eta irteera erregistratzea. Datuak babesteari buruzko Lege Organikoa.

Informatika-teknologiak. Utilitateak, aplikazioak, informazioaren transmisioa.

Paketatu eta enbalatzeko teknikak: paketatu eta enbalatzeko materialen erabilera. Bidalketen kudeaketa.

Kontrol- eta biltegitratze-arauak betetzeko interesa eta errespetua.

Zorroztasuna datuak erregistratzean.

Txukuntasuna produktuak kokatzean.

Segurtasuna eta higieena biltegitratzeko prozesuetan.

Erantzukizuna datuen konfidentzialtasuna mantentzea.

3.- Aurpegia eta gorputza hidratatzeko teknikak gauzatzea

Aurpegia eta gorputza hidratatu eta mantentzeko tratamenduak sailkatzea.

Larruazalaren deshidratazioan esku hartzen duten faktoreak identifikatzea.

Gainazaleko eta sakoneko hidratazio-tratamenduak egitea, larruazalaren deshidratazio-mailaren arabera.

Larruazalerako berariazko tratamenduak aplikatzea.

Aurpegirako eta gorputzerako bai hidratazio-tratamenduetan, bai berariazko tratamenduetan erabiltzen diren kosmetikoak eta aparatuak hautatzea.

Aparatu egokiak aplikatzea, larruazala hidratatzeko berariazko tratamenduetan jarraitu beharreko parametroak erabilia.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko berariazko kosmetika prestatu eta aplikatzea.

Hidratazio-tratamenduetan eta larruazalerako berariazkoetan eskuzko teknikak, kosmetikak eta tresneria koordinatzea.

Larruazalaren deshidratazioa: larruazalaren beharrak. Gainazaleko deshidratazioa, sakoneko deshidratazioa.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko prozesuaren faseak: antolamendua eta hautaketa.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko eta berariazko tratamenduetako prozesuetan aplikatzen diren oinarritzko aparatuak: lurrina, IR, bentosak, eskuilak, dutxa eta lainoztatze epelak, bibragailua, peeling ultrasonikoa, korrante zuzeneko eta goi-maiztasuneko tresneria (efludioak), presoterapia, kromoterapia eta bestelakoak. Hautaketa-irizpideak eta aplikatzeko

modua.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko, eta berariazko tratamenduetarako berariazko kosmetika. Hautatu, prestatu eta aplikatzeko irizpideak.

Aurpegia eta gorputza hidratatu eta mantentzeko tratamenduak. Gainazaleko deshidratazioa, sakoneko deshidratazioa, larruazal sentikorra, eguzki ondokoa eta bestelakoak.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko tratamenduak: zahartzearen aurkakoak, zirkulaziokoak, zelulitisen aurkakoak eta bestelakoak.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko, eta horien berariazko tratamendurako teknikak gauzatzeko prozesuak: faseak, sekuentziarioa, denboralizazioa eta aholkularitza.

Aurpegia eta gorputza hidratatzeko, eta horien berariazko tratamendurako segurtasunari, higieneari eta osasunari buruzko arauak.

Aurpegiko eta gorputzeko berariazko higiene-prozesuak eta tratamenduak gauzatzeko autonomia eta ekimena.

Ikasteko eta teknologia berriak egokitzeko interesa.

Trebetasuna eta zehaztasuna lanean.

Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua.

4.- Estetika- eta edergintza-zerbitzuak egitea

Proposatutako zerbitzu estetikoaren eta prozesuaren sekuentziaren inguruko informazioa eta aholkularitza.

Egingo diren zerbitzuak identifikatzea.

Lana banatzea. Kabinaren errendimendua optimizatzeko irizpideak: denborak, baliabideak eta eremuak.

Lantokia egokitzea: produktuak, aparatuak eta materialak hautatu eta prestatzeko irizpideak.

Analisi estetikorako eta alde zuzeneko tekniketarako protokoloa aplikatzea.

Eskatutako oinarritzko jardura garatzeko beharrezko kosmetikoak, materialak eta tresnak identifikatu eta hautatzea, eta horiek erabiltzeko jarraibideak.

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-zerbitzu estetikoak, eta berariazko tratamenduak.

Aurpegiko eta gorputzeko higiene-zerbitzu estetikoak, eta hidratazio- eta mantentze-tratamenduak bateratu eta aplikatzea.

Informazioa eta aholkuak emateko sistemak.

Tratamendu estetikoak eta edergintza: zehaztapena, hautatzeko irizpideak.

Oinarritzko jardueretan erabiltzen diren kosmetikoak, aparatuak, materialak eta tresnak: identifikatu, hautatu eta prestatzea.

Estetikako eta edergintzako zerbitzuen protokoloak. Prozesua prestatzea. Babes-neurriak hautatzeko irizpideak.

Talde-laneko sistemak.

Profesionala edo erabiltzailea babesteko neurriak errespetatzea.

Autonomia eta erantzukizuna garatzen den lanean.

Talde-lanarekiko konpromisoa hartzea.

5.- Estetika- eta edergintza-zerbitzuen kalitatea balioestea

Lortutako emaitzak balioestea. Emaitzak kontrolatu eta optimizatzea.

Prozesuaren emaitzak optimizatzeko neurriak proposatzea.

Neurketa-sistemak egitea eta litekeen asegabetasunaren aurrean berehalako erantzun-ereduak sortzea.

Estetika- eta edergintza-zerbitzuetan sortutako desbideratzeak zuzentzen lagunduko duten teknikak proposatzea.

«Kalitate» kontzeptua eta talde-lanaren garrantzia.

Oinarrizko zerbitzu estetikoetako hutsuneen sorburu nagusiak.

Bezeroen gogobetetze-maila antzemateko teknikak.

Estetika- eta edergintza-zerbitzuetan sortutako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

Erreklamazioak eta kexak ebazteko teknikak.

Oinarrizko zerbitzu estetikoetako hutsuneen sorburu nagusiak.

Lortutako emaitzak eta horien balioespena.

Ordena eta zorrotasuna lanean.

Talde-lanarekiko konpromisoa hartzea.

Argitasuna eta zorrotasuna informazioa helaraztean.

8. lanbide-modulua: Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak

Kodea: 0640

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 99 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Gorputz-irudia ezaugarritzen du, haren egitura, morfologia eta proportzioak identifikatu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eredu eta jarrera anatomikoak zehaztu ditu.
- b) Ardatz eta plano anatomikoen bidez kokapen-terminoak ezarri ditu.
- c) Irudi pertsonaleko terminologia anatomofisiologikoaren erabilera balioetsi du.
- d) Gorputzaren eta aurpegiaren proportzioak zehazten dituzten parametroak ezarri ditu.
- e) Gorputzera mota zehazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Somatotipoak zehazten dituzten aldagai antropometrikoak neurtu ditu.
- g) Aurpegi eta aurpegiera motak identifikatu ditu.

h) Ile-apaintetako eta estetikako tekniken bidez zuzendu daitezkeen desproporzio morfologikoak identifikatu ditu.

2.- Gorputz-sistemak eta -aparatuak ezaugarritzen ditu, haien egitura, funtzionamendua eta irudi pertsonalarekin lotutako asaldurak deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Organismoaren egitura hierarkikoa ezarri du.
- b) Zirkulazio-aparatuaren anatomia ezaugarritu du.
- c) Odolaren eta linfaren eginkizunak zehaztu ditu.
- d) Arnas aparatuaren anatomia eta fisiologia identifikatu ditu.
- e) Mugimendua ahalbidetzen duten muskuluen eta hezurren egitura zehaztu du.
- f) Gorputz-mugimenduen motak ezarri ditu.
- g) Muskulu multzo nagusiak identifikatu ditu.
- h) Oinaren eta eskuaren morfologia manikura- eta pedikura-tratamenduekin lotu du.
- i) Hormonek larruazal-organoan duten eragina zehaztu du.

j) Barne- eta kanpo-ingurumenaren koordinatzaile eta kontrolatzaile gisa, nerbio-sistemaren mekanismoa identifikatu du.

3.- Elikadura- eta nutrizio-jarraibideak identifikatzen ditu, horiek gorputz-irudian eta larruazal-organoan duten eragina aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Elikaduraren eta nutrizioaren arteko aldeak ezarri ditu.
- b) Oinarrizko mantengaiak zehaztu ditu.
- c) Mantengaiak eta horiek organismoan duten eginkizuna lotu ditu.
- d) Organismoaren funtzionamendu egokirako haren nutrizio-beharrak identifikatu ditu.
- e) Elikadura-piramidean barne hartutako elikagaiak antzeman ditu.

- f) Dieta orekatuak osasunean eta gorputz-irudian duen eragina balioetsi du.
- g) Digestio-prozesuan esku hartzen duten aparatuak eta organoak zehaztu ditu.
- h) Digestio-aparatuaren funtzionamendua zehaztu du.
- i) Iraitz-aparatuaren egitura eta funtzionamendua ezaugarritu ditu.

4.- Bizitza-ohitura osasungarriak sustatzen ditu, eta horiek irudi pertsonaleko prozesuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) «Bizimodu osasungarria» kontzeptua zehazten duten parametroak identifikatu ditu.
- b) Hidratazioaren garrantzia eta irudi pertsonalean duen eragina zehaztu ditu.
- c) Ariketa fisikoa eta loa itxura pertsonalean justifikatu ditu.
- d) Tabakoa eta alkohola kontsumitzeak sorrarazten dituzten ondorioak (orokorrak eta larruazalaren gainekoak) identifikatu ditu.
- e) Drogazaletasunaren prebentzioak duen garrantzia justifikatu du.
- f) Higiene pertsonalerako neurriak eta horiek lanbide-esparruan duten ondorioa lotu ditu.
- g) Hormona sexualek larruazalaren anatomofisiologian duten eragina justifikatu du.
- h) Minbiziaren prebentzioa bizitza-ohitura osasungarriekin lotu du.

5.- Higiene- eta desinfekzio-metodoak hautatzen ditu, eta infekzioen eta material-infestazioen arriskuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garapen mikrobiarrerako beharrezko baldintzak ezarri ditu.
- b) Mikroorganismo mota bakoitza identifikatu du.
- c) Infekzioaren eta infestazioaren arteko aldea ezarri du.
- d) Irudi pertsonalaren esparruko infekzio eta infestazio garrantzitsuenak ezaugarritu ditu.
- e) Kate epidemiologikoaren etapak zehaztu ditu.
- f) Irudi pertsonaleko teknikak (tatuajeak, piercing-a, bizarra moztea...) izan ditzaketen arriskuekin lotu ditu.
- g) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta tresneriaren ordena, garbitasuna eta desinfekzio balioetsi ditu.
- h) Garbiketa-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak aplikatu ditu.
- i) Hondakinak tratatzeko metodoak eta horiek sorraraz ditzaketen arrisku biologikoak lotu ditu.

6.- Gaixotasun profesionalei aurrea hartzeko segurtasun-ohiturak zehazten ditu, lotutako

arriskuak eta horiei aurrea hartzeko neurriak identifikatu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak berezkoak dituen arriskuak eta hari lotutako gaixotasun profesionala identifikatu ditu.

b) Irudi pertsonaleko establezimenduetako arriskuak istripuen sorburu ohikoenekin lotu ditu.

c) Eragiketa teknikoak prestatu eta gauzatzeko hartu behar diren norbera babesteko neurriak zehaztu ditu.

d) Ile-apainketako eta estetikako zerbitzuan bezeroarentzako berariazko prebentzio-neurriak aurreikusi ditu.

e) Arrisku profesionalak saihesteko lan-eremuek bete beharreko baldintzak antzeman ditu.

f) Ile-apaintzailea edo estetizista babesteko ekipamenduaren hautaketa garatu beharreko jarduerarekin lotu du.

g) Aurkako erreakzioetan eta istripuetan lehen laguntzetarako teknikak aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Gorputz-irudia ezaugarritzea

Eremu anatomikoak eta plano anatomikoak kokatzea.

Dagokion terminologia anatomofisiologikoa erabiltzea.

Gorputzaren eta aurpegiaren proportzioak zehazten dituzten parametroak identifikatzea.

Gorpuzkera motak identifikatzea.

Somatotipoak zehazten dituzten aldagai antropometrikoak identifikatzea.

Aurpegi eta aurpegiera motak identifikatzea.

Ile-apainketako eta estetikako tekniken bidez desproporzio morfologikoak zuzentzea.

Giza gorputzaren egitura orokorra:

- Gorputzaren aldeak eta eremuak.

- Jarrera anatomikoak.

- Plano eta ardatz anatomikoak.

- Eremuko norabideei edo kokapen eta jarrera erlatiboari buruzko terminoak.

- Mugimenduari buruzko terminoak.

Gorputzaren forma eta proportzioak:

- Ezaugarriak.

- Gorpuzkera baldintzatzen duten faktoreak: hereditarioak eta ingurumenekoak.
- Somatotipoak edo gorpuzkera motak.
- Aldagai antropometrikoak: pisua eta tailua. Neurgailuak.
- Gorputz-irudiak historian zehar izan duen bilakaera.
- Edertasun-kanonetan eragina duten faktoreak.
- Gorputz-irudiarekin lotutako gaixotasunak.

Aurpegiaren forma eta proportzioak:

- Garezurraren, obaloaren eta profilaren forma aztertzea.
- Aurpegi motak.

Gorputz-irudiaren, eta ile-apainketako eta estetikako prozesuen arteko lotura.

Estetikako profesional batentzako gorputzaren aldeak, eremuak eta organoak ezagutzeak duen garrantzia balioestea.

Gure gorputzaren orekarekiko eta funtzionamendu egokiarekiko errespetua, eta oreka horren eta bizitza-ohitura osasungarrien arteko lotura.

2.- Gorputz-sistemak eta -aparatuak ezaugarritzea

Egitura eta fisiologia zelularra deskribatzea.

Zirkulazio-aparatuaren anatomia eta fisiologia zehaztasunez deskribatzea.

Linfaren eta odolaren eginkizunak deskribatzea.

Arnas aparatuaren anatomia eta fisiologia zehaztasunez deskribatzea.

Mugimendua ahalbidetzen duten muskuluen eta hezurren egitura deskribatzea.

Muskulu multzo nagusien kokapena eta horien fisiologia.

Oinaren eta eskuaren morfologiaren eta manikura- eta pedikura-tratamenduen arteko lotura.

Hormonen eta larruazal-organoaren arteko lotura.

Hormonen eta horien ondorio nabarmenen arteko lotura.

Nerbio-sistemaren fisiologia deskribatzea.

Organismoaren antolamendu-mailak:

- Maila molekularra.
- Maila zelularra.
- Maila plurizelularra.

Organismo barruko substantzia-garraioarekin lotutako sistemak:

- Zirkulazio-aparatuaren anatomia eta fisiologia: odol-sistema eta sistema linfatikoa. Zirkulazio-aparatua: bihotza, gongoil linfatikoak, odol-hodiak eta hodi linfatikoak. Odola. Odol-zirkulazioa eta zirkulazio linfatikoa.

- Arnas aparatuaren anatomia eta fisiologia.

- Asaldura ohikoenak eta horien lotura irudi pertsonalarekin.

Mugimenduarekin lotutako sistemak:

- Hezur- eta muskulu-sistemaren anatomia eta fisiologia. Eskeletoa, hezurak eta artikulazioak. Muskuluen egitura eta eginkizuna deskribatzea.

- Eskuak eta oinak: morfologia, hezurak, muskuluak eta mugimendua.

- Asaldura ohikoenak eta horien lotura irudi pertsonalarekin.

Erregulazioarekin eta kontrolarekin lotutako sistemak:

- Sistema endokrinoaren anatomia eta fisiologia. Guruinak, hormonak eta horien erregulazioa.

- Nerbio-sistemaren eta zentzumen-organoen anatomia eta fisiologia. Egitura makroskopikoa eta mikroskopikoa. Nerbio-bulkadaren transmisioa.

Asaldura ohikoenak eta horien lotura irudi pertsonalarekin.

Odol-zirkulazioa eta zirkulazio linfatikoa hobetzen duten jarduerak egin eta gomendatzeko interesa, gorputz osoaren osasunari, eta larruazalaren eta horren eranskinen egoera egokiari eusteko bitarteko gisa.

Modu egokian arnastearen garrantzia, eta bihotz- eta arnas aparatuaren funtzionamenduan ariketa fisikoak duen garrantzi balioestea.

Estetikako profesional batentzako gorputzaren aldeak, eremuak eta organoak ezagutzeak duen garrantzia balioestea.

3.- Elikadura- eta nutrizio-jarraibideak identifikatzea

Elikadura eta nutrizioa bereiztea.

Oinarrizko mantenugaiak identifikatzea.

Eginkizunaren arabera, elikagaiak multzotan sailkatzea.

Elikadura-piramidean barne hartutako elikagaiak antzematea.

Dietaren, eta osasunaren, larruazal, ile eta azazkalen egoeraren, eta siluetaren arteko lotura.

Elikadurarekin lotutako gaixotasunak identifikatzea.

Prozesuak zehaztu eta bereiztea: irenstea, digestioa, xurgatzea, hondakinak ezabatzea, iraitzea.

Iraitz-aparatuaren organoen anatomia eta fisiologia deskribatzea.

Digestio-aparatuaren organoak kokatzea (marrazkia, eredu anatomikoa).

Digestio-aparatuaren organoen anatomia eta fisiologia deskribatzea.

Elikadura eta nutrizioa:

- Mantenu gaiak: sailkatzeko irizpideak.
- Elikagaiak. Sailkapena. Elikagaien osaera-taula.
- Eginkizun energetikoa, plastikoa eta erregulatzaila.
- Elikadura orekatua: elikadura-piramidea eta nutrizio-beharrak.
- Dieta eta horren lotura irudi pertsonalarekin.

Digestioaren anatomofisiologia:

- Egitura eta eginkizuna: digestio-hodia eta horri erantsitako guruinak.

Iraizte-prozesuan esku hartzen duten aparatuak eta organoak: giltzurrunen eta gernuaren anatomofisiologia.

Dieta orekatuaren garrantzia, eta larruazalaren eta ilearen itxuran, eta gorpuzkeran duen eragina balioestea.

Digestio-prozesua hobetu dezaketen nutrizioaren alderdiak ezagutzeko interesa.

Iraitz-aparatuaren higienarako eta zaintzetarako neurriak balioestea.

Hizkuntza zientifikoa erabiltzeko interesa eta jarrera.

4.- Irudi pertsonalean bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea

«Bizimodu osasungarria» kontzeptua zehazten duten parametroak bereizi eta aztertzea.

Irudi pertsonalean hidratazioak duen garrantzia deskribatzea.

Ariketa fisikoa eta loa osasunarekin eta itxura pertsonalarekin lotzea.

Tabakoa, alkohola eta bestelako drogak kontsumitzeak dakartzan arrisku-faktoreak identifikatzea.

Drogazaleatasunaren prebentzioari buruz ikertzea.

Higiene pertsonalerako neurriak eta horiek lanbide-esparruan duten ondorioa biltzea.

Hormona sexuak larruazalaren anatomofisiologian duten eragina deskribatzea.

Minbiziaren aurkako dekalogoaren oinarriak ezagutzea.

Gaixo onkologikoentzako irudi pertsonalaren oinarritzko ideiak deskribatzea.

«Osasun» kontzeptua.

Ura eta larruazalaren hidratazioa. Behar hidrikoak.

Irudi pertsonala eta eguneroko ohiturak: ariketa fisikoa. Loa.

UV izpien ondorio biologikoak fototipo mota bakoitzaren eta haien aurkako erreakzioen arabera. Segurtasun- eta higiene-arauak. UV izpien bidez belztearen inguruan indarrean dagoen legeria.

Drogak eta larruazal-organoa.

Higiene- eta osasun-heziketa. Norberaren higieena.

Gorputz-irudia eta sexualitatea:

- Ugaltze-aparatua: egitura eta funtzionamendua. Karaktere sexualak eta ziklo obarikoa.

- Antisorgailuak.

Minbizia: minbizirako prebentzio-neurriak.

«Osasun eta bizi-kalitate» kontzeptuan estetikako profesionalak esku hartzeko interesa.

Drogek, loak, bizitza-ohitura osasungarriek eta ariketa fisikoak osasunean, larruazalean eta ilean duten eragina balioestea.

5.- Higie- eta desinfekzio-metodoak hautatzea

Mikroorganismo motak ezagutzea.

Lanbidean erabiltzen diren tresnetan, aparatuetan eta osagarrietan ohikoenak diren zikinkeriarren, kutsatzaileen, infekzioen eta infestazioen konposizioa identifikatzea.

Garbitu, desinfektatu eta esterilizatzeko teknikak identifikatzea.

Bezeroekin erabili beharreko higie- eta osasun-neurriak aplikatzea.

Tatuaje- eta piercing-tekniken arteko lotura eta arriskuak, eta kontuan hartu beharreko oinarrizko zaintzak.

Behin erabiltzeko materiala erabaki eta erabiltzea.

Hondakinak ezabatzea.

Hondakinak tratatzeko metodoak erabiltzea.

Hondakinak tratatzeko metodoen eta horiek sor ditzaketen arrisku biologikoen arteko lotura.

Mikroorganismoak:

- Garapen mikrobiarrerako beharrezko baldintzak: pH-a, tenperatura, hezetasuna, etab.

- Mikroorganismoen sailkapena.

«Infekzio eta infestazio» kontzeptua:

- Infekzioak eta infestazioak, eta irudi pertsonaleko prozesuak.

- Infekzio gurutzatuak: ile-apainketako eta estetikako zerbitzuen prebentzioa.

- Agente sorrarazlearen araberako sailkapena: bakterioen, onddoen, birusen eta parasitoen ondoriozko infekzioak. Ezaugarriak, sintomak eta zeinuak. Ezkabiak, pedikulosia, folikulitisa eta papilomak: kate epidemiologikoa. Kutsadura-bideak.

Garbiketa, higiene, desinfekzio eta esterilizazioko prozesuak.

Desinfekzio-mailak:

- Aplikazio-metodoak: fisikoak eta kimikoak.

- Hondakinen tratamendua eta arrisku biologikoak.

Ingurumena errespetatzea, hondakinak tratatzea eta hondakinen tratamendurako araudi ez betetzeak sorraraz ditzakeen arriskuak balioestea.

Garbiketa- eta desinfekzio-prozesuekiko erantzukizuna lanbide-jardunean.

Mikroorganismoen garapena galarazten duten baldintzak errespetatzea.

6.- Ile-apainketako eta estetikako jardueretarako segurtasun-ohiturak zehaztea

Lan-ingurunean istripuak eta arrisku-puntuak sorrarazten dituzten faktoreak identifikatzea.

Estetikako eta edergintzako establezimenduetan sor daitezkeen arrisku ohikoenak aztertzea.

Estetika- eta edergintza-zentro batean istripuei aurrea hartzeko hartu beharreko neurriak hautatzea.

Istripuetarako oinarritzko sorospen-arauak ezagutzea.

Botikin profesionala deskribatzea.

NBEak irudi pertsonalaren esparruan duten aplikazioaren arabera sailkatzea.

Gaixotasun eta istripu profesionaleri aurrea hartzeko arauak hautatzea.

Gorputz-jarrera zuzenak eta erabili beharreko neurri ergonomikoak bereiztea.

Gorputz-jarrera okerrak, sorraraz ditzaketen asaldurak eta haien ondorio profesionala.

Aurkako erreakzioetan eta istripuetan lehen laguntzetarako teknikak aplikatzea.

Laneko istripuen arriskuak eta horiei lotutako gaixotasun profesionalak:

- Arriskuak kosmetikoen eta desinfektatzaileen erabileran. Aurkako erreakzioak: tokikoak eta sistemikoak. Arrisku kimikoren bat sorraraz dezaketen kosmetikoen eta desinfektatzaileen sailkapena.

- Arriskuak tresneria elektrikoa aplikatzean. Lesio elektrikoak.

- Material ebakitzailerekin lotutako arriskuak: arrisku biologikoak eta odoljarioak.

- Arriskuak produktu eta tresneria bero-sorrarazleak aplikatzean: besteak beste, argizariak, infragorriak, UVak, lurrunak eta lehorgailuek sorrarazitako erredurak.

- Jarrera-ohiturei lotutako arriskuak: jarrerak, altzariak, giro termikoa, argiztapena eta hotsa, besteak beste.

- Lanbide-jardueraren bestelako arrisku independenteak.

Istripu-arriskua areagotzen duten faktoreak.

Jarduerarekin lotutako istripuei aurrea hartzeko neurriak aplikatzea:

- Neurri orokorrak eta berariazko neurriak.

- Instalazioetan istripuak eragozteko prebentzio-neurriak.

- Norbera eta taldea babesteko ekipamendua. Norbera babesteko ekipamendua sailkatzea. Arrisku motaren eta NBEak hautatzearen arteko lotura.

Lehen laguntzetako teknikak litezkeen aurkako erreakzioen edo istripuen aurrean.

Neurri ergonomikoak eta gorputz-jarrerak abian jartzeko interesa.

Segurtasun- eta higiene-neurriak balioestea.

Laneko istripuetarako prebentzio-neurriekiko eta horiek abian jartzeko interesa.

9. lanbide-modulua: Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia

Kodea: 0641

Kurtoa: 1.a

Iraupena: 132 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Kosmetiko baten osagaiak zehazten ditu, eta araudi teknikoa eta osasunekoa aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Produktu kosmetikoa zehaztu du eta sendagai bereizi du.

b) Produktu kosmetikoen araudi teknikoa eta osasunekoa aztertu du.

c) Ontziratzeari, etiketatzeari eta iraungipen-datari dagokienez, produktu kosmetikoek bete beharreko eskakizunak deskribatu ditu.

d) Produktu kosmetiko baten fabrikatzaileak emandako informazioa aztertu du eta indarrean dagoen legeria betetzen duela egiaztatu du.

e) Kosmetikoetan gehien erabiltzen diren substantzien ezaugarriak deskribatu ditu.

f) Kosmetiko baten printzipio aktiboaren, eszipientearen, gehigarriaren eta zuzentzailearen kontzeptuak zehaztu ditu, eta horietako bakoitzaren eginkizuna aztertu du.

g) Hainbat kosmetiko komertzialaren osagai multzo nagusiak antzeman ditu.

2.- Kosmetikoak prestatzeko tresneria, laborategiko materiala eta oinarrizko eragiketak

identifikatzen ditu, eta lortutako produktuen izaera fisiko-kimikoa antzematen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sistema homogeen eta heterogeen arteko aldeak justifikatu ditu.
- b) Disoluzioen konposizio, ezaugarriak, propietateak eta kontzentrazioa, haiek kosmetikan duten aplikazioa identifikatu ditu.
- c) Sistema sakabanatu heterogeen konposizioa, propietateak eta ezaugarriak, eta haiek kosmetikan duten aplikazioa deskribatu ditu.
- d) Tentsioaktiboak sailkatu ditu eta horien eginkizuna aztertu du.
- e) Esekiduren, gelen eta emultsioen arteko aldeak interpretatu ditu.
- f) Hainbat kosmetikoren izaera fisiko-kimikoa identifikatu du.
- g) Kosmetikoak prestatzeko beharrezko materiala eta laborategiko tresneria identifikatu ditu.
- h) Kosmetikoen fabrikazioan erabiltzen diren eragiketa fisikoak teknika horietarako berriazko materialekin lotu ditu.
- i) Kosmetiko baten prestaketari buruzko fitxaren atalak antzeman eta bete ditu (osagaiak, kontzentrazioa, forma kosmetikoa, erabilitako materialak, modus operandi-a, erabilitako substantzien deskribapena, lortutako emaitzak...).

3.- Produktu kosmetikoak aurkezteko eraren arabera sailkatzen ditu, eta larruazaleko sartze-mailarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kosmetikoak euren ekintza nagusiaren aplikazio-tokiaren arabera sailkatu ditu.
- b) Kosmetikoak aurkezteko erak identifikatu ditu.
- c) Forma kosmetikoen onurak eta eragozpenak, eta haien erabilera deskribatu ditu.
- d) Kosmetikoen larruazaleko sartze-bidea eta -maila ebaluatu ditu.
- e) Kosmetikoen larruazaleko sartzean eta jarduteko moduan eragina duten faktoreak aztertu ditu.
- f) Kosmetikoen eraginkortasun zehazten duten eta haien kalitatean eragina duten parametroak zehaztu ditu.

4.- Larruazal tipologia bakoitzerako higiene-kosmetiko egokiak hautatzen ditu, horien konposizioa, ezaugarriak eta jardunbidea identifikatu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) «Higiene» kontzeptua definitu du eta larruazalaren gainazalean metatzen den zikinkeraren osagaiak identifikatu ditu.
- b) Substantzia garbitzaileen ekintza-mekanismoak bereizi ditu.

c) Larruazala garbitzeko erabiltzen diren kosmetikoek bete beharreko ezaugarriak deskribatu ditu.

d) Aurpegia eta gorputza garbitzeko produktuen konposizioa, onurak eta eragozpenak aztertu ditu.

e) Aurpegi-toniko baten jarduteko era haren osagaiekin lotu du.

f) Kosmetiko esfoliatzaileak sailkatu ditu eta haien ekintza-mekanismoa bereizi du.

g) Maskarak euren printzipio aktiboen eta forma kosmetikoaren arabera sailkatu ditu.

h) Usain-kengarrien eta transpirazioaren aurkakoen printzipio aktiboak horien ekintza-mekanismoaren arabera identifikatu ditu.

i) Laborategian hainbat higiene-kosmetikoren formula errazak aztertu eta prestatu ditu.

5.- Larruazal tipologia bakoitzerako larruazala hidratatu, mantendu eta babesteko kosmetikoak hautatzen ditu, eta horien printzipio aktiboak eta ekintza-mekanismoak lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Larruazalaren hidratazioan esku hartzen duten substantzia naturalak bereizi ditu.

b) Printzipio aktibo hidratatzaileak ekintza-mekanismoaren arabera sailkatu ditu.

c) Kosmetiko hidratatzaileen konposizioa horiek erabiliko diren larruazal motaren arabera hautatu du.

d) Gorputza hidratatzeko olioaren eta emultsioaren arteko aldeak ezarri ditu.

e) Eguzki-kosmetikoak euren helburuaren eta aplikatzeko unearen arabera sailkatu ditu.

f) Eguzki-fotobabesleen formulazioan esku hartzen duten printzipio aktiboak bereizi ditu.

g) Eguzki-fotobabesle baten urarekiko erresistentzia-maila eta babes-ahalmena interpretatu ditu.

h) Eguzkia hartu ondoko produktuen konposizioa horiek betetzen duten eginkizunarekin lotu du.

i) Laborategian larruazala hidratatu, mantendu eta babesteko hainbat kosmetikoren formula errazak aztertu eta prestatu ditu.

6.- Larruazal tipologia bakoitzera egokitutako apainketako kosmetikoak hautatzen ditu, horien konposizioa, eginkizuna eta aplikazio-eremua identifikatu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kosmetikoen apainketa-ekintzaren ondorio diren printzipio aktiboak identifikatu ditu eta haien disolbagarritasunaren arabera bereizi ditu.

b) Apainketako kosmetikoen konposizioa horiek aurkezteko erarekin lotu ditu.

c) Apainketako kosmetikoak aplikazio-eremuaren arabera sailkatu ditu.

d) Aurpegiaren larruazala, begiak eta ezpainak makillatzeko kosmetikoak aztertu ditu, eta horien helburua zehaztu du.

e) Gogortasunari eta konposizioari dagokienez, ezpainetako kosmetiko batek bete beharreko baldintzak zehaztu ditu.

f) Azazkalak makillatzeko prozesuetan erabiltzen diren kosmetikoen konposizioa zerrendatu du.

g) Gorputza makillatzeko kosmetikoak sailkatu ditu.

h) Kosmetiko autobelzgarrien printzipio aktiboak eta horien jarduteko era bereizi ditu.

i) Apainketako kosmetikako berrikuntzei buruzko artikuluak eta txostenak aztertu ditu.

7.- Larruazalaren adar-eranskinetarako kosmetikoak, larruazal tipologia bakoitzerako egokituak, hautatzen ditu, eta konposizioa aurkezpen-erarekin eta sortutako ondorioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Depilatzailek kimikoen osagaiak eta ilearen gainean sortzen duten ondorioz identifikatu ditu.

b) Argizarien motak, konposizioa eta ezaugarriak deskribatu ditu.

c) Depilazioaren aurretik eta ondoren erabiltzen diren kosmetikoen konposizioa, ondorioak eta ekintza-mekanismoak aztertu ditu.

d) Ilea kentzeko hainbat kosmetikoren onurak eta eragozpenak zehaztu ditu.

e) Koloregabetzeko kosmetikoen jarduteko era bereizi du, horien printzipio aktiboetan oinarrituta.

f) Manikuran eta pedikuran erabiltzen den kosmetiko bakoitzaren konposizioa aztertu du.

g) Manikurako eta pedikurako, eta eskuak eta oinak tratatzeko kosmetikoak hautatzeko irizpideak ezarri ditu, haien ekintzaren eta egin beharreko zerbitzuaren arabera.

h) Azazkal artifizialeterako erabiltzen diren kosmetikoen konposizioa eta jarduteko era deskribatu ditu.

8.- Kosmetikoak gorde, kontserbatu eta manipulatzeko jarraibideak aplikatzen ditu, haiek erabiltzeko baldintza aproposak identifikatzen ditu eta sorraraz ditzaketen aurkako erreakzioei aurre hartzen die.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kosmetikoetan sarrien asaldurak sorrarazten dituzten arrazoiak eta faktoreak antzeman ditu.

b) Produktu kosmetikoen konposizio-aldaketak haien ezaugarri organoleptikoetan sortzen diren aldaketekin lotu ditu.

c) Produktu kosmetikoen kontserbazio egokia ziurtatzeko leku eta biltegiatze-baldintza aproposak, eta biltegiaren antolamendu egokia identifikatu ditu.

d) Aplikaziorako higie- eta osasun-baldintza aproposak ziurtatzeko, produktu kosmetikoak manipulatzeko jarraibide egokiak zehaztu ditu.

e) Produktu kosmetikoak oker manipulatzearen ondorioak aztertu ditu.

f) Produktu kosmetiko kutsatuak eta/edo aldatuak indarrean dagoen araudia eta ingurumena errespetatuz biltzeko jarraibideak deskribatu ditu.

g) Kosmetikoek sorraraz ditzaketen aurkako erreakzioak eta horiei aurrea hartzeko bitartekoak identifikatu ditu.

h) Arriskuei eta gaixotasun profesionalei aurrea hartzeko, eta kutsadurak saihesteko profesionalak jarraitu beharreko arretak zerrendatu ditu.

i) Kosmetikoekiko aurkako erreakzioak agertzean profesionalak jarraitu beharreko jardunbideak eman ditu.

B) Edukiak:

1.- Kosmetologia orokorra

Kosmetiko baten kanpoko eta barruko zatiaren artean bereiztea.

Kosmetikoaren kanpoko zatiak bete beharreko eskakizunak identifikatzea.

Kosmetikan gehien erabiltzen direnen printzipio aktiboa eta lotura deskribatzea.

Lanbidean asko erabiltzen diren printzipio aktibo batzuk sailkatzea, ondorioa eta ekintza kontuan izanda.

Kosmetiko bat formulatzeko erabiltzen diren eszipientek, gehigarriak eta zuzentzaileak bereiztea, eta horien eginkizuna zehaztea.

Kosmetikoari buruzko araudia identifikatzea.

Etiketak interpretatzea.

«Kosmetiko» kontzeptua eta sendagaiekiko aldeak.

Produktu kosmetikoen araudi teknikoa eta osasunekoa.

Kosmetiko baten zatiak:

- Kanpoko zatia: kanpoko elementuak (ontzia, kartoiak, erabilera-orria eta etiketa). Etiketatzea: eskakizunak. Sinboloak (PAO). Osagaiak: konposizio kualitatiboa eta kuantitatiboa. Etiketatzeko bete beharreko arauak. INCI kodea edo nomenklatura. Substantzia mugatuak eta horien zehaztapenak etiketatzean. Kosmetikoaren kanpoko zatiaren garrantzia, informazio-bitarteko eta marketin-elementu gisa.

- Barruko zatia. Kosmetikoetan gehien erabiltzen diren substantziak: ura, pH-aren aldaketak, hezegarriak, biskositatearen aldaketak. Kosmetikoaren barruko osagaiak: printzipio aktiboa, eramailea, gehigarriak eta zuzentzaileak. Ur oxigenatua: propietate koloregabetzaileak. «pH» eta «azido/base» kontzeptuak. Neutralizazioko eta oxidazio-erredukzioko erreakzioak. Erredox erreakzioak.

Lanbide-jardun serioa eta arduratsua egiteko, kosmetikari buruzko oinarriko ezagupenen garrantzia balioestea.

Kosmetologiaren esparruko aurrerapenetan egunean egoteko interesa.

Etiketatzearen eta horri buruzko araudiaren garrantziaz jabetzea, eta lanbide-jardunean horrek duen erabilgarritasuna ulertzea.

2.- Laborategi kosmetikorako sarrera

Sistema homogeen eta heterogeen artean bereiztea.

Disoluzioen konposizioa, propietateak eta kontzentrazioa antzematea.

Tentsioaktiboen sailkapenak egitea eta haien eginkizuna aztertzea.

Kosmetikan ohikoenak diren emultsio motak bereizi eta aztertzea.

Emultsioen, esekiduren eta gelen arteko aldeak eta antzekotasunak identifikatzea.

Kosmetikoak prestatzeko oinarrizko jarraibideak interpretatzea.

Produktu kosmetiko jakin bat prestatzeko jarraitu beharreko urratsak aplikatzea.

Laborategian erabilitako materiala garbitu eta biltegitzeko neurriak aplikatzea.

Kosmetikoen izaera fisiko-kimikoa: sistema sakabanatuak, sistema homogeenak: disoluzioak; sistema heterogeenak, sakabanatzeak: esekidurak; gelak, emultsioak eta aerosolak.

Formula kosmetikoa: kontzentrazioaren adierazpena. Formularen faseak: urtsua, oliotsua, termolabila.

Laborategia: lanabesak, materialak eta tresneria. Kosmetikoak prestatzeko oinarrizko eragiketak: pisu-neurriak, bolumen-neurriak, pH-aren neurketa, nahaste-metodoak, bereizte-metodoak.

Kosmetikoen prestaketa.

Ingurumena babesteko erantzukizuna.

Zorroztasuna eta doitasuna produktu kosmetiko jakin bat prestatzean.

3.- Kosmetikoak sailkatzea. Larruazalean sartzea

Kosmetikoak, besteak beste, konposizioaren eta forma kosmetikoaren arabera sailkatzea.

Lanbidean ohikoenak diren egungo forma kosmetikoak, eta bakoitzaren propietateak eta ezaugarriak identifikatzea.

Kosmetikoak larruazalean zehar sartzean eragina duten faktore nagusiak interpretatzea.

Kosmetikoen larruazaleko sartze-bidea eta -maila identifikatzea.

Forma kosmetikoak.

Kosmetikoen larruazaleko sartze-bideak eta -mailak.

Kosmetikoen sartzean eragina duten faktoreak.

Kosmetiko baten eraginkortasuna: eraginkortasuna zehazten duten parametro zientifikoak.

Besteen iritziekiko errespetua.

Talde-lanean duen garrantzia balioestea.

Forma kosmetiko klasikoekiko, eta aurrerapen zientifikoaren eta teknikoaren ondorioz agertutako forma kosmetiko berriekiko interesa.

4.- Aurpegi- eta gorputz-higienarako kosmetikoak deskribatzea

«Higienea» definitzea eta larruazala zikintzeko mekanismoak identifikatzea.

Larruazalaren garbiketa eta higienarako erabiltzen diren produktu kosmetikoak identifikatu eta sailkatzea.

Larruazala garbitzeko produktu mota bat edo bestea erabiltzearen onurak eta eragozpenak zehaztea.

Larruazalaren garbiketa eta higienarako kosmetikoek bete beharreko ezaugarriak deskribatzea.

Produktu horiekin batera datorren informazio teknikoa interpretatzea.

Produktu esfoliatzaileen printzipio aktiboak, jardunbideak, erabilera-teknikak eta aplikaziorako arretak deskribatzea.

Esfoliatzaile motak eta horien erabilera identifikatzea.

Aurpegi-tonikoen printzipio aktiboak, jardunbideak, erabilera-teknikak eta aplikaziorako arretak identifikatzea.

Usaina kentzeko eta transpirazioaren aurkako produktuen printzipio aktiboak, jardunbideak, erabilera-teknikak eta aplikaziorako arretak identifikatzea.

Maskaren printzipio aktiboak, jardunbideak, erabilera-teknikak eta aplikaziorako arretak identifikatzea.

Maskarak motaren arabera sailkatzea.

«Higiene» kontzeptua.

Garbitzeko substantziak: ekintza-mekanismoak.

Aurpegiko eta gorputzeko higiena:

- Kosmetiko garbitzaileak: konposizioa, ekintza-mekanismoa eta forma kosmetikoak; xaboiak, syndet-ak, lozioak, olioak, emultsioak, paper-zapiak, eta begietako eta ezpainetako makillajea kentzekoak..

- Kosmetiko bizkorgarriak: kontzeptua, konposizioa, ekintza-mekanismoa, sailkapena.

- Kosmetiko esfoliatzaileak: fisikoak, kimikoak eta entzimakoak. Ekintza-modua, konposizioa, forma kosmetikoak.

- Kosmetiko osagarriak. Maskarak: motak, konposizioa, larruazalaren arabera hautatzeko

irizpideak.

Gorputz-higienea:

- Kosmetiko garbitzaileak.
- Bainurako kosmetiko osagarriak: gatzak, tabletak, olioak.

Gorputz-higienarako kosmetiko osagarriak: usain-kengarriak eta transpirazioaren aurkakoak.

Larruazal garbi eta zainduta edukitzearen garrantzia balioestea.

Larruazalaren higienarako produktu egokien inguruan bezeroak aholkatzeko gaitasuna.

5.- Larruazala hidratatu, mantendu eta babesteko kosmetikoak aztertzea

Aurpegirako eta gorputzerako produktu hidratatzaileak aztertzea.

Larruazala hidratatzen duten substantzia naturalak antzematea.

Printzipio aktibo hidratatzaileak ekintza-mekanismoaren arabera sailkatzea.

Printzipio aktibo hidratatzaileen eta larruazal moten arteko lotura.

Eguzki-erradiazioaren aurrean larruazalak duen babes naturaleko mekanismoak interpretatzea.

Eguzki-kosmetikoak sailkatzea, horien printzipio aktiboa identifikatzea, hori dagokion ekintza-mekanismoarekin, helburuarekin eta aplikatzeko unearekin lotzea.

Eguzkia hartu ondoko kosmetiko baten konposizioa deskribatzea.

Eguzki-babeseko faktore egokia hautatzea, larruazal mota bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanda.

Fotobabesle baten urarekiko erresistentzia-maila interpretatzea.

Kosmetiko hidratatzaileak eta larruazalaren mantentzea:

- «Larruazal-hidratazio» kontzeptua.
- Printzipio aktibo hidratatzaileak.
- Aurpegi-hidratatzaileak: emulsio hidratatzaileak eta nutritiboak.
- Gorputz-hidratatzaileak: emulsioak eta olioak.

Eguzki-kosmetikoak:

- Belztu aurreko kosmetikoak.
- Fotobabesleak: konposizioa, urarekiko erresistentzia, eguzki-babeseko faktorea, forma kosmetikoak.

Eguzkia hartu ondoko kosmetikoak.

Eguzkiak larruazalean dituen ondorio kaltegarriez jabetzea.

Produktu egokiekin larruazalari hidratazioa eta babesa emateak duen garrantzia balioestea.

6.- Apainketako kosmetikoak sailkatzea

Makillatzeko erabiltzen diren kosmetiko motak sailkatzea.

Apainketako kosmetikoen osagaiak, ekintza-mekanismoak eta ondorio garrantzitsuenak bereiztea.

Ezpain-margoen eta masailetak gorrien osagaiak antzematea.

Makillatzeko produktu jakin batzuk aplikatzeak larruazalean sorraraz ditzaketen aurkako erreakzioak deskribatzea.

Hondoko makillajeen, oinarri zuzentzaileen eta makillaje-hautsen ezaugarri desiragarriak interpretatzea.

Aurkezpen-moduak identifikatzea.

Hondoko makillajeen, oinarri zuzentzaileen eta makillaje-hautsen funtsezko osagaiak identifikatzea.

Begien aldeko makillajerako erabiltzen diren kosmetikoak eginkizunaren arabera sailkatzea.

Azazkalak makillatzeko kosmetikoak, eta horien ezaugarriak, osagaiak eta jardun-mekanismoak berezi eta aztertzea.

Fantasiako makillajeen erabiltzen diren produktu kosmetikoak sailkatzea.

Kosmetiko autobelzgarri baten konposizioa deskribatzea.

Konposizio orokorra: printzipio aktiboak eta eszipienteak.

Berrikuntzak apainketako kosmetikan: interferentzia-pigmentuak eta kolore fotonikoa, besteak beste. Eszipienteak: betetze-agenteak eta berariazko aktiboak, besteak beste.

Aurpegia makillatzeko kosmetikoak: makillajearen aurrekoak, zuzentzaileak, makillaje-hondoa, hautsak eta masailetak gorriak.

Begiak apaintzeko kosmetikoak: itzalak eta delineatzaileak, betile-maskarak, bekainetarako produktuak.

Ezpainetarako kosmetikoak: formulazioa eta sailkapena.

Azazkalak apaintzeko kosmetikoak: oinarriak, bernizak, babesleak.

Aerograforako kosmetikoak.

Gorputza apaintzeko kosmetikoak: mota eta forma kosmetikoak.

Belzte artifizialerako kosmetikoak: konposizioa, forma kosmetikoak eta erabilera.

Makillajeak duen garrantzi sozialaz eta psikologikoaz jabetzea.

Makillajerako kosmetikoek larruazalean sorraraz ditzaketen aurkako erreakzioez jabetzea.

Makillaje-prozesuaren azken emaitzan produktuak egoki hautatzeak duen garrantzia balioestea.

7.- Larruazalaren adar-eranskinetarako kosmetikoak

Argizarien motak identifikatzea: konposizioa eta ezaugarriak.

Depilazio-teknika fisikoak eta depilazio-teknika kimikoak erabiltzeko arretak identifikatzea.

Depilazio-metodo kimikoak aplikatzeko irizpide egokiak hautatzea.

Ilearen hazkuntza atzeratzeko produktuak deskribatzea.

Depilatu aurretik eta ondoren erabiltzen diren kosmetikoak deskribatzea: konposizioa, ondorioak eta jardunbideak.

Koloregabetzeko kosmetikoen jardunbideak haien printzipio aktiboen arabera bereiztea.

Azazkalak zaintzeko kosmetikoak hautatzea: ezaugarriak, osagaiak eta jardunbideak.

Eskuak eta oinak zaintzeko erabiltzen diren kosmetikoak sailkatzea.

Eskuak eta oinak zaintzeko, eta horien asalduretarako kosmetikoak aplikatzeko jardun-protokoloa deskribatzea, larruazalaren mota eta egoera kontuan izanda.

Dauden azazkal artifizialen motak sailkatzea, eta horien osagaiak eta jardunbideak bereiztea.

Depilatzeko eta koloregabetzeko kosmetikoak.

Depilatzeko kosmetiko kimikoak.

Argizariak: motak, konposizioa eta ezaugarriak.

Depilatu aurreko eta ondoko kosmetikoak.

Koloregabetzeko kosmetikoak.

Eskuetarako eta oinetarako kosmetikoak.

Manikurako eta pedikurako kosmetikoak. Konposizioa, ekintza-mekanismoak eta forma kosmetikoak: makillajea kentzekoak, orban-kentzekoak, azazkaletakoak, kutikula biguntzaileak, kutikula-kentzekoak, azazkalak leuntzekoak, gogortzekoak, etab.

Eskuen eta oinen tratamendu estetikorako kosmetikoak: garbitzaileak, esfoliatzaileak eta hidratatzaileak, besteak beste.

Azazkal artifizialetarako kosmetikoak.

Oinen higie-neak duen garrantzia balioestea, ikuspegi estetikitik eta osasunean duen garrantziaren ikuspegitik, guren euste-elementu bakarra den heinean.

Ilea kentzeko teknikak ezagutzeko interesa, kasuak kasu hautaketa egokiena egiteko.

Irudi pertsonalaren oso zati garrantzitsutzat, eskuen zaintza balioestea.

8.- Kosmetikoak biltegitatu, kontserbatu, manipulatu eta aplikatzeko segurtasuna eta higieena

Kosmetikoen egonkortasunean eragina izan dezaketen faktore fisikoak, kimikoak eta biologikoak identifikatzea.

Kosmetikoak higie- eta osasun-baldintza egokietan manipulatu eta erabiltzeko estrategiak aplikatzea, arriskuei eta gaixotasun profesionalari aurrea hartzeko, eta kutsadura saihesteko helburuarekin.

Kosmetikoetako konposizio-aldaketan, eta horien ezaugarri organoleptikoetan sortutako aldaketan eta prebentzio-neurrien arteko lotura.

Produktu kosmetikoak oker manipulatzearen ondorioak identifikatzea.

Kosmetikoetan aurkako erreakzioak agertzen direnerako jardun-protokoloak deskribatzea.

Kosmetiko kutsatuak edo aldatuak biltzean indarrean dagoen araudia eta ingurumen-araudia aplikatzea.

Produktu kosmetikoak behar bezala biltegitatzeko jarraibideak aplikatzea, biltegiaren kontserbazio eta antolamendu egokia ziurtatzeko.

Kosmetikoen egonkortasuna eta aldaketak.

Kontserbatu eta biltegitatzeko teknikak.

Manipulatu eta aplikatzeko teknikak.

Kosmetikoak manipulatu eta aplikatzearekin lotutako asaldurak.

Produktu kosmetiko kutsatuak edo aldatuak biltzeari buruzko araudia.

Kosmetikoekiko aurkako erreakzioak: arrazoiak, ondorioak, prebentzioa eta jardunbidea.

Kosmetikoak manipulatzearrekin lotutako gaixotasun profesionalak: prebentzioa.

Kosmetikoak behar bezala erabili eta biltegitatzeko erantzukizuna, sor daitezkeen aldaketez jabetuta.

Kosmetiko kutsatuak edo aldatuak biltzeko araudiari zorrotz eta zehatz jarraitzea.

Kosmetikoak oker manipulatzek izan ditzakeen ondorioekiko interesa.

10. lanbide-modulua: Lurringintza eta kosmetika naturala

Kodea: 0642

Kurtoa: 2.a

Iraupena: 84 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Lurringintzako produktuak ezaugarritzen ditu, horien egitura aztertu ondoren, eta haien hautaketaren inguruan aholkatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Historian zehar lurrinak izan duen erabilera sekuentziatu du.
- b) Lurrina definitu du, haren konposizioa analizatu du eta hura osatzen duten lehengai motak sailkatu ditu.
- c) Lurrinaren egitura hondoko notak, gorputza eta irteera identifikatu ditu.
- d) Lehengai naturalak ateratzeko metodoak bereizi ditu.
- e) Usain gozoak usain-sentsazioen arabera sailkatu ditu.
- f) Lurrinaren aromaren banakako garapenean eragina duten faktoreak azaldu ditu.
- g) Lurrin motak esentzietan eta soluzio alkoholikoan duten edukiaren arabera eskematizatu ditu.
- h) Lurrinak kontserbatzeko arauak eta aplikatzeko arretak zerrendatu ditu.
- i) Lurrin bat hautatzean eragina duten faktoreak deskribatu ditu.
- j) Lurrina modarekin eta irudi pertsonaleko profesionalak ematen dioten erabilerarekin lotu du.

2.- Aromaterapiako produktuak identifikatzen ditu, haien propietate kosmetikoak aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aromaterapiaren eta olio esentzialen kontzeptuak zehaztu ditu.
- b) Olio esentzialen konposizioa eta ezaugarriak analizatu ditu.
- c) Aroma-molekulak eta horiek nerbio-sisteman dituzten ondorioak lotu ditu.
- d) Olio esentzialen ondorio orokorrak deskribatu ditu.
- e) Olio esentzialak aplikatzeko erak identifikatu ditu.
- f) Larruazalean aplikatu ahal izateko, olio esentzialekin nahas daitezkeen olio eramaileak zerrendatu ditu.
- g) Olio esentzialak nola kontserbatu behar diren zehaztu du.
- h) Haiek erabiltzeko arretak eta erabileraren ondoriozko kontraindikazioak eskematizatu ditu.
- i) Olio esentzialek estetikan erabiltzeko izan behar duten kalitatearen garrantzia zehaztu du.
- j) Estetikako eta edergintzako tratamenduak olio esentzialen erabileraren arabera banakatu ditu.

3.- Kosmetiko naturalak eta produktu osagarriak antzematen ditu, eta oinarritzko tratamendu estetikoetan duten aplikazioa adierazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kosmetiko naturalen ezaugarriak zehaztu ditu.
- b) Denboran zehar produktu naturalek izan duten bilakaera adierazi du.
- c) Landare-estraktuak lortzeko prozesuak zehaztu ditu.
- d) Landare-estraktuak sailkatu ditu, horiek ateratzeko erabilitako disolbatzailearen arabera.
- e) Produktu kosmetikoak prestatzeko erabiltzen diren landare-estraktuen ondorioak eta indikazioak aztertu ditu.
- f) Itsasotik datozen produktuak, eta horien ondorioak eta indikazioak zehaztu ditu.
- g) Kosmetikarekin lotutako buztin eta mineral motak zehaztu ditu.
- h) Estetikako eta edergintzako tratamenduen osagarri gisa nutri-kosmetikoek dituzten indikazioak deskribatu ditu.
- i) Kosmetiko naturalen eta produktu osagarrien kontraindikazioak eskematizatu ditu.
- j) Produktu naturalak kontserbatu eta biltegitratzeko era identifikatu du.

4.- Lurrinak eta kosmetikoak prestatzen ditu, lehengai naturalak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lurrin eta kosmetiko natural baten formula kosmetikoa analizatu du, eta haien osagaiak identifikatu ditu.
- b) Materiala eta prestaketa-eremua segurtasun- eta higiene-baldintzetan antolatu ditu.
- c) Lurrin eta kosmetiko natural bat prestatzeko prozedura deskribatu du.
- d) Lurrinak formula errazetatik abiatuta eta hainbat lehengaiekin prestatu ditu.
- e) Kosmetiko naturalen formula errazak prestatu ditu.
- f) Arte-sorkuntza lurrinduen motak zehaztu ditu.
- g) Arte-sorkuntzak prestatu ditu, hala nola, gatzak, pindak eta bestelakoak.
- h) Formula kosmetiko herrikoiak bildu eta analizatu ditu.

5.- Kosmetika naturaleko establezimendu motak bereizten ditu, eta enplegua sortzeko aukerarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kosmetika naturala saltzeko establezimendu motak bereizi ditu.
- b) Lurringintzako eta drogeriako establezimenduak zehaztu ditu.
- c) Belar-denden ezaugarriak eta estetikarekin duten lotura deskribatu ditu.

- d) Saltoki handietan kosmetika naturala saltzeko sailak identifikatu ditu.
- e) Esentziak eta arte-sorkuntzak saltzeko establezimenduen espezializazioa zehaztu du.
- f) Estetika-kabinaren barruan egiten den salmenta pertsonalizatuko gunea adierazi du.
- g) Establezimenduaren dekorazioa eta giro-lurrina enpresaren profesionaltasun-irudiarekin lotu ditu.
- h) Kosmetika naturaleko establezimenduetan denda-marketinak duen garrantzia balioetsi du.

B) Edukiak:

1.- Lurringintzako produktuak ezaugarritzea

Lurrin bat prestatzeko erabiltzen diren lehengaiak identifikatzea.

Lurrinak aromen arabera sailkatzea.

Lurrinaren egitura hondoko notak, gorputza eta irteera identifikatzea.

Aromak eta lehengaiak ateratzeko metodoak deskribatzea.

Lurrin motak esentzietan eta soluzio alkoholikoan duten edukiaren arabera sailkatzea.

Lurrin bat hautatzeko aholkularitza-teknikak aplikatzea.

Lurrinak kontserbatzeko arauak eta erabiltzeko arretak aplikatzea.

Kolonia prestatzea.

Lurrinaren erabileraren historia.

Lurrina. Definizioa. Lurrinaren konposizioa eta egitura.

Lurrin bat prestatzeko erabiltzen diren lehengaiak lortu eta analizatzeko teknikak.

Lurrinaren aroma aldatzen duten banakako faktoreak.

Lurrin motak. Soluzio lurrinduak eta bestelakoak.

Lurrina kontserbatzeko teknikak.

Lurrina hautatzeko eta usaimena hezteko teknikak.

Lurrina aplikatzeko teknikak eta kontuan hartu beharreko arretak.

Modan lurrina erabiltzeko teknikak.

Produktu kosmetikoen osagai gisa lurrinak duen garrantzia balioestea.

Lurringintzak kosmetikaren esparruan eta gizartean irudikatzen duena errespetatzea.

2.- Aromaterapiako/aromakosmetikako produktuak identifikatzea

Olio esentzialen ezaugarriak eta konposizioa, efektuak eta aplikatzeko modua

identifikatzea.

Olio esentzialak nahas daitezkeeneko olio eramaileak identifikatzea.

Olio esentzialak kontserbatzeko metodoak aplikatzea.

Olio esentzialak erabiltzeko arretak eta kontraindikazioak deskribatzea.

Aromaterapiak edergintzan eta osasunean dituen erabilerei buruzko bibliografia interpretatzea.

Aromaterapiari eta produktu esentzialei dagokienez, etiketetan agertzen diren osagaiak interpretatzea.

«Aromaterapia» kontzeptua.

Olio esentzialak eta horien konposizioa.

Aroma-molekulak eta horien lotura nerbio-sistemarekin.

Ondorioak, aplikatzeko moduak, olio eramaileak.

Olio esentzialak kontserbatzeko arauak. Arretak eta kontraindikazioak.

Aroma-kosmetika: kontzeptua eta aplikazioak. Olio esentzialak erabilia egiten den kosmetika pertsonalizatua.

Aromaterapiarekiko sentikortasuna.

Olio esentzialak lortzeko prozesua eta horiek tratamendu estetikoetan duten aplikagarritasuna ezagutzeko interesa.

Baliabide naturalak arrazoiz erabiltzeko kezka.

Etiketen interpretazioari eta horietan agertzen den konposizio aromatikoari buruzko ezagutzarekiko interesa.

3.- Kosmetiko naturalak eta produktu osagarriak antzematea

Landare-estraktuak lortzeko prozesuak identifikatzea.

Landare-estraktuak sailkatzea, horiek ateratzeko erabilitako disolbatzailearen arabera.

Kosmetikan erabiltzen diren landare-estraktuen eta produktu osagarrien ondorioak, indikazioak eta kontraindikazioak identifikatzea.

Kosmetikan erabiltzen diren itsasotik datozen produktuen, buztinen eta mineralen ondorioak eta indikazioak identifikatzea.

Estetikako eta edergintzako tratamenduetan nutri-kosmetikoek dituzten indikazioak deskribatzea.

Produktu naturalak biltegitatu eta kontserbatzeko teknikak aplikatzea.

Kosmetika naturala: kontzeptua eta ezaugarriak.

Kosmetika naturalaren bilakaera urteetan zehar.

Fitokosmetika. Landare-estraktuak: kontzeptua, ateratzeko metodoak eta sailkapena. Ondorioak eta erabilerak.

Itsas kosmetika: kontzeptua. Estetikan erabiltzen diren itsas produktuak.

Kosmetikan erabiltzen diren buztinak eta mineralak: ondorioak eta erabilerak.

Nutri-kosmetikoak: kontzeptua.

Kosmetika naturalaren eta produktu osagarrien kontraindikazioak eta aurkako ondorioak.

Produktu naturalak biltegitatu eta kontserbatzea.

Kosmetikan landareen estraktuak erabiltzearen garrantzia antzeman eta balioestea.

Larruazalaren eta ilearen asaldura estetikoak zuzentzeko aukera natural gisa, fitokosmetika balioestea.

4.- Lurrin eta kosmetiko naturalak prestatzea

Lurrinaren osagai kosmetikoak identifikatzea.

Lurrina prestatzeko materiala eta eremua antolatzea.

Lurrina prestatzeko segurtasun- eta higiene-neurriak aplikatzea.

Formula errazetatik abiatuta eta hainbat lehengaiekin lurrina prestatzea.

Formula errazetatik abiatuta eta hainbat lehengaiekin kosmetiko naturalak prestatzea.

Arte-sorkuntzak prestatzea, hala nola, pindak gatzak eta bestelakoak.

Lurrinak prestatzeko teknikak: beharrezko materiala, formula kosmetikoa, modus operandi-a.

Arte-sorkuntza lurrinduak: gatzak, pindak, zorrotxoak, lore-egiturak, talkoak, kandelak eta bestelakoak.

Kosmetiko naturalak prestatzeko teknikak: kremak, artisau-xaboiak eta bestelakoak.

Lurrin eta kosmetiko naturalak prestatzeko higiene- eta osasun-arauak errespetatzea.

Kosmetiko naturalak prestatzeko lehengai naturalak eta sintetikoak erabili eta manipulatzeko interesa.

5.- Lurringintza eta kosmetika naturaleko establezimenduak

Kosmetika naturaleko establezimendu motak identifikatu eta bereiztea: lurrin-dendak, drogeriak, belar-dendak, saltoki handiak, edergintza-zentroak eta bestelakoak.

Establezimendu mota bakoitzerako apainketarako eta giro-lurrinerako proposamenak egitea.

Kosmetika naturala eta lurrinak saltzeko establezimendu motak: lurrin-dendak, drogeriak, belar-dendak, esentziak eta arte-sorkuntzak saltzeko establezimenduak, edergintza-zentroak eta bestelakoak.

Lurrinak eta kosmetika naturala saltzeko enpresetan dekorazioak, giro-lurrinak eta denda-marketinak duten garrantzia.

Establezimendu bakoitzean kosmetika naturalaren filosofia eta aplikagarritasun-maila balioestea.

Kosmetika naturaleko establezimenduetan denda-marketina balioestea.

11. lanbide-modulua: Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta

Kodea: 0643

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 99 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Irudi pertsonaleko enpresen produktuak eta zerbitzuak identifikatzen ditu, marketin-teknikak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Irudi pertsonalaren esparruko marketina ezaugarritu du.

b) Marketin motak identifikatu ditu.

c) Enpresak erabil ditzakeen «marketing mix»-aren elementuak zehaztu ditu.

d) Ondasun baten (produktu material gisa) eta zerbitzu baten arteko aldeak ezarri ditu.

e) Zerbitzuen berezko ezaugarriak zehaztu ditu.

f) «Marketing mix»-aren tresna gisa prezioak duen garrantzia aztertu du.

g) Irudi pertsonalarekin lotutako banaketa-bideen motak (handizkariak eta txikizkariak) zerrendatu ditu.

h) Ile-apainketako eta estetikako frankiziak autoenplegurako aukerak dituen banaketa motatzat balioetsi ditu.

i) Serbukzioaren elementuak identifikatu ditu.

j) Marketin-planaren faseak zehaztu ditu.

2.- Bezeroen beharrak zehazten ditu, irudi pertsonaleko produktuak eta zerbitzuak erosteko motibazioak aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bezeroa irudi pertsonaleko enpresetako elementu garrantzitsuentzat identifikatu du.

b) Irudi pertsonaleko bezeroen kontsumoan eragina duten aldagaiak aztertu ditu.

c) Bezeroak erosteko dituen motibazioak identifikatu ditu.

d) Erosketa-prozesuaren faseak ezarri ditu.

- e) Maslow-en teoriaren motibazio-mailak zehaztu ditu.
- f) Bezeroen sailkapena horien tipologiaren, izaeraren eta rolaen arabera ezarri du.
- g) Bezeroak leial bihurtzeko mekanismoak zehaztu ditu.

3.- Bezeroari arreta egiteko jarraibideak ezartzen ditu, komunikazio-teknikak eta horien tresnak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bezeroari arreta egiteko prozedura fase guztietan zehaztu du, harreratik aurrera arte.
- b) Komunikazioaren elementuak, etapak, oztopoak eta helburuak identifikatu ditu.
- c) Irudi pertsonaleko enpresek barruko eta kanpoko komunikazioan erabiltzen dituzten tresnak identifikatu ditu.
- d) Erabiltzaileekiko hitzezko komunikazioa ezaugarritu du.
- e) Merkataritza-aurrezpen edo -hitzaldi batean jarduteko sekuentzia ezarri du.
- f) Telefono-komunikazioaren faseak identifikatu ditu.
- g) Idatzizko komunikazio-tresnak aztertu ditu (eskutitzak, liburuxkak, txartelak...).
- h) Merkataritza-harremanetan keinuzko komunikazioak duen garrantzia balioetsi du.
- i) Produktuen eta zerbitzuen erakustaldiak egin ditu.

4.- Sustapen- eta publizitate-teknikak erabiltzen ditu, eta erabilitako tresnen hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publizitatearen helburuak identifikatu ditu.
- b) Publizitate-kanpaina baten faseak ezarri ditu.
- c) Sektoreko enpresek gehien erabiltzen dituzten publizitate-bideak zehaztu ditu.
- d) Sustapenaren tresnak helburuekin eta ondorioekin lotu ditu.
- e) Sustapen-kanpaina baten faseak ezarri ditu.
- f) Estetikako produktu/zerbitzu baten sustapen-kanpaina egin du.

5.- Sustapeneko denda-marketinako teknikak aplikatzen ditu, berariazko tresnak erabilia eta horiek enpresaren irudira egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Denda-marketinaren helburuak ezarri ditu.
- b) Erosketa motak bezeroaren portaeraren arabera sailkatu ditu.
- c) Denda-marketinaren elementuak zehaztu ditu.

- d) Girotze bisualaren, soinuuzkoaren eta usaimenezkoaren efektuak zerrendatu ditu.
 - e) Eremuen eta produktuen salmenta-puntuko banaketa ezarri du.
 - f) Kartelak eta erakustokiak saltokiko publizitate-tresna gisa identifikatu ditu.
 - g) Erakusleihoaren eginkizuna eta kontsumitzaileak erosteko erabakian duen eragina aztertu ditu.
 - h) Denda-marketinaren elementuak aplikatu eta konbinatu ditu.
- 6.- Irudi pertsonaleko zerbitzuak eta produktuak saltzeko erakustaldiak egiten ditu, etapak zehaztuta eta berariazko teknikak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Merkataritza-harremanetan salmenten aholkulariak bete beharreko nolakotasunak jarrerak, gaitasunak eta trebetasunak identifikatu ditu.
 - b) Merkataritza-harremanetan erabiltzen diren asertibotasun-teknikak ezarri ditu.
 - c) Asertibotasun-teknikak eta gizarte-trebetasunak aplikatu ditu.
 - d) Salmentaren faseak eta teknikak ezarri ditu.
 - e) Merkataritza-argudiaketa bezeroari gomendatzeko formula gisa ezarri du.
 - f) Salmentarako eragozpenak ebazteko jarraibideak ezarri ditu.
 - g) Salmenta ixteko seinaleak identifikatu ditu.
 - h) Salmenta bat ixteko estrategiak ezarri ditu.
 - i) Merkataritza-prozesuetan saldu ondoko jarraipena egiteko prozedurak ezarri ditu.
- 7.- Erreklamazioak eta kexak tratatzen ditu, gatazkak ebazteko prozedurak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gatazkak eta erreklamazioak ebazteko prozedura deskribatu du.
- b) Erreklamazioak jasotzeko prozedura deskribatu du.
- c) Erraz konpon daitezkeen erreklamazioen aurrean bezeroei eskain dakizkiekeen prozedurarako hautabideak identifikatu ditu.
- d) Erreklamazioari buruzko informazioa aurrez ezarritako hierarkia-ordenaren arabera helarazi du.
- e) Salmenta ondoko gertakizunen, eta bezeroen eskaeren eta erreklamazioen jarraipenari buruzko informazio erregistratu du, betiere egindako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen leialtasuna areagotzeko adierazle gisa.

B) Edukiak:

- 1.- Irudi pertsonaleko enpresetan produktuak eta zerbitzuak identifikatzea

Salmentaren eta marketinaren artean bereiztea.

«Marketing mix»-aren osagaien arteko loturak identifikatzea.

Banaketa-bideak ezagutzea (handizkaria, txikizkaria, frankiziak...).

Frankiziak autoenplegu gisa identifikatzea.

Hainbat egoeratan, dagokion komunikazio mota identifikatzea, bai eta komunikazio horretan parte hartzen duten elementuak ere.

Marketinaren historia.

Marketinaren definizioa eta oinarritzko kontzeptuak: produktua, zerbitzua, beharra, nahia eta eskaria.

Marketin motak: estrategikoa eta eraginkorra. «Marketing mix»-a:

- Produktua: motak.
- Prezioa.
- Banaketa. Bide motak: txikizkariak eta handizkariak.
- Frankiziak eta horien ezaugarriak.
- Komunikazioa. Motak eta ezaugarriak.

Marketin-plana. Faseak eta prestaketa.

Irudi pertsonaleko produktuak eta zerbitzuak: ezaugarriak.

Serbukzioa.

Salmentarekiko interesa, lanbide askoren funtsezko zeregin gisa.

Salmentaren profesionalarentzat produktua/zerbitzua ezagutzeak duen garrantzia balioestea.

Zenbat produktu/zerbitzu mota dauden jakiteko nahia.

2.- Bezeroen beharrak zehaztea

Prozesuaren fase guztietan bezeroari arreta egiteko protokoloak zehaztea.

Kontsumitzailearen beharrak identifikatzea, horiek bete ahal izateko.

Erosteko erabakiaren prozesuak dituen etapak identifikatzea, eskuratu beharreko produktu motaren, kontsumitzaile motaren eta horren maila ekonomikoaren arabera.

Bezeroak erosteko dituen motibazioak identifikatzea.

Salgai jakin baten aurrean pertsona batek duen kontsumitzeko portaerari buruzko azterlanak egitea.

Bezero motak sailkatzea, hura identifikatzen dituen ezaugarriak behatuta, eta erosteko beharrak antzemateko planifikatutako galderen zerrenda bat egitea.

Bezeroak leial bihurtzeko mekanismoak identifikatzea.

Bezeroaren garrantzia irudi pertsonaleko enpresetan.

«Bezeroak identifikatzeko sistemak» kontzeptua: barruko bezeroa, kanpoko bezeroa.

Bezeroaren beharrak eta gustuak. Maslow-en teoria.

Bezeroen kontsumoan eragina duten aldagaiak.

Motibazioa, frustrazioa eta babes-mekanismoak. Erostea erabakitzeko prozesua.

Bezero motak: tipologiaren, izaeraren eta rolaren arabera.

Bezeroen gogobetetasuna.

Bezeroak leial bihurtzea.

Bezeroak euren tipologiaren, izaeraren eta rolaren arabera aztertzeko teknikak.

Bezeroari arreta egiteko protokoloa prozesuaren fase guztietan, harreratik aurrera arte.

Kontsumitzailearen portaera ezagutzearen garrantzia balioestea.

Pertsona guztiek komunenak dituzten erosteko motibazioekiko interesa.

Egon litezkeen bezero motak ezagutzeko interesa, haiekin harreman egokiak izateko.

Bezeroak nola gogobete jakiteko eta horretarako erabil daitezkeen tresnak ezagutzeko interesa.

3.- Bezeroari arreta egiteko jarraibideak

Produktuak edo zerbitzuak aurkeztu eta erakusteko teknikak aplikatzea.

Hainbat egoeratan, komunikazio mota identifikatzea, bai eta komunikazio horretan parte hartzen duten elementuak ere.

Enpresan eta salmentan komunikazioak duen garrantzia ebaluatzea.

Ahozko komunikazioaren ezaugarriak eta arauak zerrendatzea.

Egoera jakin batzuetan jendaurrean eta telefonoz ondo hitz egiteko arauak aplikatzea.

Gorputz-hizkuntza interpretatzea.

Idatzizko komunikazioaren ezaugarriak identifikatzea.

Komunikazio-proiektuak prestatzeko IKTak erabiltzea.

Prozesuaren fase bakoitzean bezeroari arreta egiteko prozedurak aplikatzea.

Produktua edo zerbitzua aurkeztu eta erakustea. Horretarako jarraibideak.

Komunikazioa marketinean: barruko eta kanpoko komunikazioa.

Komunikazio-prozesuaren etapak eta elementuak: igorlea, mezua, kodea, hartzailea,

feedback-a.

Komunikazioaren helburuak.

Komunikazio motak irudi pertsonaleko enpresa batean:

- Hitzezko/ahozko komunikazioa. Pertsonen arteko eta taldeko komunikazio-teknikak. Komunikazioaren oztupoak. Hitzaldien antolamendua. Telefono bidezko komunikazioa.

- Idatzizko komunikazioa. Idatzizko komunikazioko eta adierazpeneko arauak. Irudi pertsonaleko enpresetan erabiltzen diren idatzizko komunikazio-tresnak: gutunak, liburuxkak, barruko dokumentuak, txartelak. Prentsa-artikuluak irudi pertsonaleko atal espezializatueta.

- Keinuzko komunikazioa. Irudi pertsonalaren esparruan, bezeroaren eta aholkulariaren arteko harremanarekiko interesaren, errespetuaren, adeitasunaren eta kortesiaren garrantzia.

Paramintzairaren garrantzia. Keinuak eta horien esanahia. Komunikazioaren kategoria.

Enpresarentzat, salmentarako bezeroarentzako eta aholkulariarentzako komunikazioak duen garrantzia balioestea.

Ahozko eta keinuzko komunikazioek merkataritza-jardueran duten eginkizunarekiko interesa.

Errespetua eta zuzentasuna jendaurrean edo telefonoz hitz egitean.

Salmentako profesional baten jardueren artean idatzizko komunikazioak duen garrantzia balioestea.

4.- Publizitate- eta sustapen-teknikak

Estetikako produktuen eta zerbitzuen sustapenak egitea.

Dagokion lanbide-esparruan produktuen eta zerbitzuen publizitatea egitea.

Publizitate motak alderatzea.

Erakustaldiak egitea, sustapen-elementu gisa eta ondorengo salmenta posiblerako.

Publizitatea:

- «Publizitate» kontzeptua. Helburuak.

- Publizitate-kanpaina: faseak. Mezua eta publizitate-bitartekoak.

- Salmenta-teknika gisa publizitateak dituen osagaiak. Publizitate-liburuxka eta web-orria, besteak beste.

Salmenten sustapena:

- Kontzeptua eta sailkapena.

- Sustapenak lortu nahi dituen helburuak eta efektuak.

- Sektorean erabiltzen diren sustapen-tresnak.

Sustapen-kanpaina: irudi pertsonaleko sustapen-kanpaina baten faseak eta diseinua.

Salmenta-prozesuetan sustapenak eta publizitateak duten garrantzia balioestea.

Marketin-tresna gisa sustapenaren erabilera balioestea.

Salmenta-prozesuan erakustaldien teknika garatzeko interesa.

5.- Denda-marketineko teknikak aplikatzea

Erosketa motak bezeroaren portaeraren arabera sailkatzea.

Salmenta-puntuetan eremuak eta produktuak antolatzea.

Girotze bisualaren, soinu-zukoaren eta usaimenezkoaren efektuak identifikatzea, salmenta-prozesuen eragingarri gisa.

Denda-marketinaren elementuak zehaztea.

Denda-marketina aplikatzea.

Hainbat suposiziotan, denda-marketinaren elementuak identifikatu eta ezaugarritzea.

Erakusleihoak, errotuluak, kartelak eta erakustokiak identifikatzea.

«Denda-marketin» kontzeptua. Oinarrizko denda-marketina: helburuak.

Sustapeneko denda-marketina: irizpideak eta faktore erabakigarriak. Denda-marketin apaindegian.

Erosketa motak: aurreikusitako erosketak eta bulkadazko erosketak.

Denda-marketinaren elementuak:

- Girotze orokorra. Altzariak eta dekorazioa. Argia eta kolorea. Usain- eta soinu-girotzea.

- Salmenta-puntuak: atalen antolamendua. Salmenta-gune eta -puntu hotzak eta beroak. Lokal barruko zirkulazioa. Lineala eta buruak. Produktuaren errotazioa eta ezarpena. Prezioak jakinaraztea.

- Establezimenduaren kanpoko elementuak: errotuluak, sarrera. Erakusleihoak.

- Saltokiko publizitatea: kartelak eta erakustokiak.

Mozkinen iturri gisa produktu kosmetikoak saltzeko interesa.

Erosketa mota bakoitzarekiko interesa.

Sustapeneko denda-marketineko modu berriak probatzeko jakin-mina.

Sustapeneko denda-marketinaren faktore erabakigarriekiko interesa.

6.- Salmenta-teknikak irudi pertsonalean

Salmenta-prozesuetan komunikazio-teknikak aplikatzea.

Saltzaile ideal batek bete beharreko nolakotasunak identifikatzea.

Saltzaileak edozein salmenta-harremanetan betetzen dituen eginkizunak deskribatzea.

Salmentak ixteko teknika egokiena erabiltzea.

Bezero baten aurrean salmenta gurutzatua erabiltzea.

Erosketa-seinale fisikoen eta hitzekoen artean identifikatzea.

Salmenten aholkulari ideal baten ezaugarriak. Irudi pertsonaleko produktuen eta zerbitzuen salmenta-aholkulariaren asertibotasuna eta enpatia.

Salmenta-faseak eta -teknikak. Salmenta prestatu eta planifikatzeko teknikak. Bezeroarekin harremanetan jartzea. Beharrak zehazteko teknikak. Merkataritza-argudiaketa. Eragozpenak: eragozpenen sailkapena eta tratamendua. Salmenta ixtea: seinaleak, teknikak eta itxiera motak. Salmenta gurutzatua.

Saldu ondoko laguntza-zerbitzua. Merkataritza-jarraipeneko edo saldu ondoko teknikak: jarraipen-dokumentazioa. Informatika-tresnak bezeroarekiko saldu ondoko harremanetan. Saldu ondoren erabiltzen diren prozedurak. Informazioa aztertzea: merkataritza-txostenak.

Erreklamazioak ebazteko teknikak. Protokoloa. Bezeroen balioespen-teknikak jasotako arretari dagokionez: erreklamazioa, kexa, iradokizunak, zoriontzea. Kexak eta erreklamazioak ebazteko prozedurak. Kexa edo erreklamazio baten elementuak: zuzeneko kexak eta zuzenekoak ez direnak. Erreklamazioak biltzeko prozedura. Erreklamazio batean beharrezkoak diren dokumentuak edo frogak. Kexak/erreklamazioak ebazteko faseak.

Enpresaren eta bezeroaren arteko gisa saltzaileak betetzen duen eginkizuna balioestea.

Salmentako profesional onak izan behar dituen ezaugarriak.

Erabil daitezkeen argudio motak eta aurkezteko era ezagutzeko interesa.

Itxiera-teknika ohikoenak ezagutzeko interesa.

7.- Kexak eta erreklamazioak tratatzea

Gatazkak eta erreklamazioak ebazteko prozedurak deskribatzea.

Erreklamazioen aurretik bezeroei eskaini diezazkiekeen prozedura-hautabideak deskribatzea.

Aurretik ezarritako hurrenkera hierarkikoaren arabera, erreklamazioei buruzko informazioaren jarraipena egitea.

Besteak beste, saldu ondokoaren, gorabeheren eta erreklamazioen jarraipenaren erregistroa egitea.

Erreklamazioak ebazteko teknikak. Protokoloa. Bezeroen balioespen-teknikak jasotako arretari dagokionez: erreklamazioa, kexa, iradokizunak, zoriontzea.

Kexak eta erreklamazioak ebazteko prozedurak.

Kexa edo erreklamazio baten elementuak: zuzeneko kexak eta zuzenekoak ez direnak.

Erreklamazioak biltzeko prozedura.

Erreklamazio batean beharrezkoak diren dokumentuak edo frogak.

Kexak/erreklamazioak ebazteko faseak.

Bezeroen erreklamazioak erregistratzeko interesa, egiten den zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta leialtasuna areagotzeko.

Bezeroen erreklamazioen jarraipena egitea.

12. lanbide-modulua: Ingeles teknikoa

Kodea: E100

Kurtsoa: 1.a

Iraupena: 33 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.

b) Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarritzko funtzionamendua.

c) Enpresaren testuinguruan emandako ahozko argibideak ezagutu ditu eta adierazpenei jarraitu die.

d) Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.

e) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilia.

g) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

2.- Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berriazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.

b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.

c) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berriazko dokumentazioa bete ditu.

d) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.

e) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.

f) Testuen deia nagusiak jaso ditu.

g) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.

h) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

3.- Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak identifikatu ditu.

b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.

c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

B) Edukiak:

1.- Ahozko mezuak ulertu eta sortzea

Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.

Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak

Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.

Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.

Sektoreko terminologia espezifikoak.

Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboa, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa eta bestelakoak.

Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.

Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.- Idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea

Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak.

Idea nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektoreko berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.

Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.

Sektoreko terminologia espezifikoa.

Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak.

Protokolo-formulak idazki profesionaletan.

Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.

Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.

Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.

Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.

Testuaren garapenean koherentziaren premia balioestea.

3.- Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea

Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.

Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea.

Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

13. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea

Kodea: 0644

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 105 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.

b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.

c) Profilaria lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.

d) Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.

e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.

f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.

g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2.- Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilaria lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.

b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.

c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.

d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.

e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.

f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.

g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3.- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.

b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.

2012ko martxoaren 22a, osteguna

- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4.- Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5.- Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.

d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.

e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.

f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.

g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6.- Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.

b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.

c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.

d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.

e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentzia zioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.

f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.

g) Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7.- Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.

b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.

c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.

d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.

e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinen osaera eta erabilera ere.

f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

B) Edukiak:

1.- Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko prozesua

Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.

Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea.

Norberaren ibilbidea planifikatzea:

- Beharrekina eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.

- Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.

Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.

Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.

Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.

Erabakiak hartzeko prozesua.

Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.

Europar ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus.

Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.

Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat balioestea.

Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea.

Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2.- Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea

Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea.

Antolamendu-egiturak aztertzea.

Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.

Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.

Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.

Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.

Lan-taldeen sorrera aztertzea.

Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.

Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.

Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarritzko elementu gisa.

Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.

Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.

Gatazka ebatzi edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.

Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.

Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa balioestea.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3.- Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak

Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.

Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.

Nomina interpretatzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artzatarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.

Lan-kontrata: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.

Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).

Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.

Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Kontrata aldatu, eten eta deuseztatzea.

Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.

Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.

Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...

Lana arautzearen beharra balioestea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa.

Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.

Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.

Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4.- Gizarte Segurantzaren enplegua eta langabezia

Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.

Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.- Arrisku profesionalak ebaluatzea

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.

Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.- Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarritzko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarritzko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun-mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzian (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko teknikaria).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako

aurrerapenak baloratzea.

Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza balioetsi eta zabaltzea.

7.- Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia balioestea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

14. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea

Kodea: 0645

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 63 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.- Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.

b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.

c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.

d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.

e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.

f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoak eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.

g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.

h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.

i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.- Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarritzko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.

b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.

c) Berriazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.

- d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.- Enpresa txiki eta ertain baten oinarritzko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarritzko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarritzko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarritzko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.

f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.

g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.- Ekimen sortzailea

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa,

erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

Enpresaburuaren kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika balioestea.

Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea.

2.- Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.

Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.

Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta balioestea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika balioestea.

3.- Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produkzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

4.- Administrazio-funtzioa

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

15. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza

Kodea: 0646

Kurtsoa: 2.a

Iraupena: 380 ordu

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1.- Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten dituen zerbitzu motekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- b) Enpresaren egitura sektorean dauden ereduako enpresa-antolamenduekin alderatu ditu.
- c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.- Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - Lanpostuak behar duen prestasun pertsonala eta denborakoa.
 - Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia...) eta profesionalak (ordena, garbitasuna, erantzukizuna...).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean eta norbera babesteko neurrien aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
- f) Esleitutako lanaren erantzukizuna hartu du, eta jasotako aginduak interpretatu eta bete

ditu.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri da.

h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta sortutako gorabehera garrantzitsuak jakinarazi ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta eginkizun-aldaketetara egokitu beharra balioetsi ditu.

j) Bere lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.- Merkataritza-ekintzarekin lotutako eragiketak egiten ditu, enpresak ezarritako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tutorearengandik jasotako jarraibideak interpretatu ditu, enpresaren arauan arabera, eta antzemandako desbideratzeak jakinarazi ditu.

b) Norberaren irudi pertsonala enpresaren irudi gisa balioetsi du, eta hainbat alderdi zaindu ditu, hala nola, higiene pertsonala, makillajea, orrazkerak, janzkera, etab.

c) Harrerako eta agurreko prozedurak aplikatu ditu.

d) Bezeroak telefono bidez eta zuzenean hartu ditu.

e) Agenda eskuz edo informatika bidez antolatu du.

f) Gainbegiratuta, kobrantza-eragiketak egin ditu.

g) Enpresak eskaintzen dituen zerbitzuetan erabiltzen diren produktuen eta materialen harreran, banaketan, biltegiatzean eta stock-kontrolan lagundu du.

h) Paketatu eta enbalatzeko teknikak aplikatu ditu, eta bidalketa mota bakoitza kudeatu du.

i) Merkataritza-prozesuan zehar erabilitako eta sortutako informazio/dokumentazio mota bakoitza maneiatu du.

j) Esleitutako jarduerekin lotutako instalazioak, tresneria eta lanabesak mantendu eta garbitzeko jardunak gauzatu ditu.

4.- Dagokion lanpostuarekin lotutako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzen du eta horiek saltzen ditu, marketin-teknikak garatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresak diseinatutako bezeroarenganako komunikazio- eta arreta-protokoloak aplikatu ditu.

b) Enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzu motak identifikatu ditu.

c) Bezeroaren tipologia, eta erosteko dituen motibazioak eta beharrak bereizi ditu.

d) Erabiltzaileekin, zerbitzu-enpresa baten berezko jarrerei, balioei eta araei eutsi die (hala nola, autokontrola, adeitasuna, jendetasuna eta zuhurtasuna)-

- e) Salmenta-teknikak aplikatu ditu.
- f) Erosketak sustatzeko lokalean erabiltzen diren denda-marketineko teknikak identifikatu ditu.
- g) Enpresak aplikatzen dituen publizitate motak antzeman ditu.
- h) Salmentak bultzatzeko estetika-kabinak diseinatutako pizgarriak sustatu ditu.
- i) Ohitura, produktu eta zerbitzu estetikoaren inguruan erabiltzailea informatu eta aholkatzeko hizkuntza teknikoaren erabili du.
- j) Kexak eta erreklamazioak ebazteko prozedurak aplikatu ditu.

5.- Bezeroaren larruazal-organoa, ezaugarriak eta beharrak aztertzen ditu, eta datuak fitxa teknikoan erregistratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Fitxa estetikoan agertzen diren datuak antzeman ditu.
- b) Tratamendua aplikatzen deneko eremuaren ezaugarri anatomofisiologikoak eta morfologikoak aztertzeke jarraibideak bete ditu.
- c) Proposatutako zerbitzuen indikazioa edo kontraindikazioa baldintzatzen duten asaldura nagusiak antzeman ditu.
- d) Informazio guztia fitxa teknikoan antolatu du.
- e) Analisiaren ondoren, tratamendu edo teknika egokiena proposatu du.

6.- Apainketa-teknikak egiten ditu, bai aurpegi- eta azazkal-makillajekoak, bai azazkal artifizialak ipintzekoak ere, araututako lan-prozedurei jarraituz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Egin beharreko jarduerak berezkoak dituen teknikak aplikatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Zerbitzurako jarrera ergonomiko egokienaren arabera ipini du bezeroa.
- c) Apainketa-zerbitzua egiteko material eta aparatu guztiak erabilgarri daudela egiaztatu du.
- d) Materialak, kosmetikoak eta tresneria modu erosoan ipini ditu estetika-kabinan.
- e) Larruazala, azazkalak eta azazkal inguruko eremua prestatu ditu, ondoren tratamendu bat aplikatzeko.
- f) Bezeroak haien egoera pertsonalen, sozialen eta profesionalen arabera makillatu ditu.
- g) Ezarritako jarraibideen eta arauen arabera gauzatu ditu azazkal artifizialak prestatzeko prozesuak.
- h) Eskuetako eta oinetako azazkalak estilo bakoitzean apaindu ditu.
- i) Higiene- eta osasun-arauen arabera, higiene- eta desinfekzio-neurriak aplikatu ditu.

7.- Aurpegiko, gorputzeko, eskuetako eta oinetako higiene, mantentze eta hidratazioko tratamenduak egiten ditu, ezarritako sekuentzia bezeroen ezaugarriekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bezeroa ipini du, haren erosotasuna kontuan izanda.
- b) Tratamendu bitartean eta ondoren nabaritutako dituen efektuen eta sentazioen berri eman dio bezeroari.
- c) Tresneria eta kosmetikoak pertsonal arduradunak emandako jarraibideen arabera hautatu ditu.
- d) Ondorengo tratamenduaren eraginkortasuna areagotzeko prestatu du tratatu beharreko eremua.
- e) Bezeroaren beharren arabera, larruazalaren higiene, hidratazio eta mantentzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Teknika horietan erabiltzen diren kosmetikoak banakatu ditu, olio esentzialak edo produktu naturalak erabilia.
- g) Manikura- eta pedikura-tratamenduak egin ditu, prozedurak enpresaren bitarteko-eskuragarritasunera egokituta.
- h) Zerbitzuaren kalitate-adierazle gisa, bezeroaren amaierako itxura, teknika egiteko denbora, girotzea, etab. antzeman ditu.
- i) Estetika-kabinaren kanpoan eta barruan egin behar dituen ondorengo tratamenduen berri eman dio erabiltzaileari.

8.- Gorputzeko ilea kendu edo koloregabetzeko eragiketak egiten ditu, erabiltzailearen analisira egokitutako prozedura mekanikoak eta/edo produktu kimikoak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bezeroaren ezaugarri baskularrak, ilearenak eta larruazalarenak ebaluatu ditu.
- b) Tratatu beharreko eremua prestatu du, narritadura-erreakzioak saihesteko.
- c) Pertsonal arduradunak gainbegiratuta, kosmetikoen nahasteak egin ditu, fabrikatzailearen jarraibideen arabera.
- d) Gorputzeko ilea dauden teknika mekanikoen bidez depilatu du.
- e) Ilea koloregabetzeko prozedurak gauzatu ditu.
- f) Tratamendua ezarritako denboran egin du.
- g) Bezeroen gogobetetze-parametro gisa, zerbitzuaren akabera egokia balioetsi du.
- h) Zerbitzuak gauzatzeko faseak garatzean, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak hartu ditu.

OTSAILAREN 28KO 27/2012 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. atala.- Espazioak.

Prestakuntza espazioa	Azalera (m ²) 30 ikasle	Azalera (m ²) 20 ikasle
Balio anitzeko gela	60	40
Kosmetologiako eta lurringintzako laborategia	90	40
Estetikako lantegia(k)	120	90

2. atala.- Ekipamenduak.

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Balio anitzeko gela	Ikus-entzunezko tresneria. Proiekzio-kanoia. Sarean instalatutako PCak, inprimagailuekin eta eskanerrarekin. Internet. Ikasgelako ekipamenduak.
Kosmetologiako eta lurringintzako laborategia	Ur- eta elektrizitate-zerbitzu osagarriak. Irakaslearentzako mahai eta aulki ergonomikoa. Arbela. Korrontea eta altzariak dituzten banakako postuak. Laborategiko tresneria: Maria bainua, irabiagailu magnetikoa, pH-aren neurgailua eta bestelakoak. Laborategiko materialak: prezipitatu-ontziak, pipetak, espatulak, beirazko hagaxkak eta bestelakoak. Mikroskopiaok eta horien material osagarria. Materialerako eta tresneriarako beira-arasak eta armairuak. Gizon klasikoa eta eredu anatomikoak.

2012ko martxoaren 22a, osteguna

Prestakuntza espazioa	Ekipamendua
Estetikako lantegia(k)	<p>Ur- eta elektrizitate-zerbitzu osagarriak.</p> <p>Zoruak, hormak, sabaiak, leihoen babesak eta hustubideak indarrean dagoen osasun-araudi teknikoaren arabera.</p> <p>Irakaslearentzako mahai eta aulki ergonomikoa.</p> <p>Arbela.</p> <p>Apala eta inguruko argia duten apain-mahaiak.</p> <p>Makillajerako berariatzko besaulkiak, altueran aldagarriak eta buru-euskarridunak.</p> <p>Altueran erregula daitezkeen masaje-ohatilak.</p> <p>Aulkiak.</p> <p>Altuera aldagarria duten taburete bizkarraldedunak.</p> <p>Orga osagarri gurgildunak.</p> <p>Erretilu osagarriak.</p> <p>Larruzala analizatzeko tresneria: lupak, Wood-en argia, hidratazio-neurgailua, sebo-neurgailua, mikrokamera eta bestelakoak.</p> <p>Makillajerako tresneria: hainbat pita eta tangatiko aerografoa, makillaje birtualeko informatika-programa: argazkigintza-eremua, argiztapen egokiaz, eta bideo- eta argazki-kameraz.</p> <p>Manikura- eta pedikura-tresneria: pedikurarako oin-euskarriak; azazkalak garbitzeko putzuetarako erretiluak; oin-bainurako kubeta; dutxak, lainoztatzeak, hainbat fresatako tornua eta azazkal artifizialeterako lanpara katalizatzailea.</p> <p>Depilazio mekanikorako tresneria: argizari berorako eta epelerako urgailuak.</p> <p>Tratamendu estetikorako tresneria: ozono-lurruneko aparatuak; ihinztargailuak eta bentosak; korrante zuzeneko tresneria, aldagarria eta goi-maiztasuneko; Keeling ultrasonikoa; parafina ur-berogailua.</p> <p>Tresnak, materialak eta tresneria garbitu eta desinfektatzeko tresneria; bero lehorreko UVC erradiazioetarako esterilizagailua; autoklabea.</p> <p>Materialerako eta tresneriarako beira-arakak eta armairuak.</p> <p>Material erreziklagarrirako eta kutsatzailerako edukiontziak.</p> <p>Botikina.</p> <p>Biltegia</p> <p>Aldagelak.</p> <p>Higiene-ontziak</p>

OTSAILAREN 28KO 27/20912 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

ESPEZIALITATEAK ETA IRAKASTEKO ESKUMENA «ESTETIKA ETA EDERGINTZA»
HEZIKETA-ZIKLOKO LANBIDE IRAKASLEAK

1. atala.- Irakasleen -moduluetan.

Lanbide modulua	Irakasleen espezialitatea	Kidegoa
0633. Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0634. Makillajea	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0635. Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0636. Eskuetako eta oinetako estetika	Estetika Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0637. Azazkal artifizialeterako teknikak	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0638. Analisi estetikoa	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0639. Estetika-kabinako jarduerak	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
0640. Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0641. Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0642. Lurringintza eta kosmetika	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0643. Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
E100. Ingeles teknikoa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak

2012ko martxoaren 22a, osteguna

Lanbide modulua	Irakasleen espezialitatea	Kidegoa
0644. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0645. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
0646. Lantokiko prestakuntza	Estetika	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Ile-apainketa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak
	Irudi pertsonalerako aholkularitza eta prozesuak	

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitate.

2. atala.- Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

Kidegoak	Espezialitateak	Titulazioak
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Irakaskuntzako irakasleak	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna Lan-harremanetan diplomaduna Gizarte-lanean diplomaduna Gizarte-hezkuntzan diplomaduna Kudeaketa eta administrazio publikoan diplomaduna
Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak	Estetika	Estetikako goi-mailako teknikaria Estetikako teknikari espezialista
	Ile-apainketa	Irudi pertsonalaren aholkularitzako goi-mailako teknikaria Ile-apainketako teknikari espezialista

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.- Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

Lanbide moduluak	Titulazioak
0633. Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion mailako titulua edo beste zenbait titulu baliokide
0634. Makillajea	Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion mailako titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
0635. Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea	Estetikako goi-mailako teknikaria eta bestelako titulu baliokideak
0636. Eskuetako eta oinetako estetika	Irudi pertsonalaren aholkularitzako goi-mailako teknikaria edo bestelako titulu baliokideak
0637. Azazkal artifizialeterako teknikak	
0639. Estetika-kabinako jarduerak	
0638. Analisi estetikoak	
0640. Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak	
0641. Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia	
0642. Lurringintza eta kosmetika naturala	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion mailako titulua edo beste zenbait titulu baliokide
0643. Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta	
0644. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
0645. Enpresa eta ekimen sortzailea	

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

2012ko martxoaren 22a, osteguna

OTSAILAREN 28KO 27/2012 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO URRIAREN 3KO
1/1990 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKO LANBIDE MODULUEN ETA
HEZKUNTZARI BURUZKO MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN
EZARRITAKOEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE 1/1990ean ezarritako heziketa zikloetan bildutako lanbide moduluak	«Estetika eta Edergintza» heziketa zikloko lanbide moduluak (LOE, 2/2006)
Depilazio mekanikoa eta teknika osagarriak	0635. Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea
Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak	0633. Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak
Makillajea	0634. Makillajea
Azazkalen eskultura eta esku-oinen estetika	0636. Eskuetako eta oinetako estetika 0637. Azazkal artifizialeterako teknikak
Estetikaren arloko produktuen eta zerbitzuen sustapena eta salmenta	0643. Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta
Oinarrizko giza anatomia eta fisiologia	0640. Gorputz-irudia eta ohitura osasungarriak
Dekorazio-estetikari aplikatutako kosmetologia	0641. Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	0645. Enpresa eta ekimen sortzailea
Dekorazio-estetika pertsonaleko teknikariaren tituluari dagokion lantokiko prestakuntza	0646. Lantokiko prestakuntza

OTSAILAREN 28KO 27/2012 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

KONPETENTZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO), ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. atala.- Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

Konpetentzia atala	Lanbide modulua
UC0354_2: Higiene, depilazio eta makillajeko zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, osasun eta higieneko baldintzetan arreta egitea. UC0345_1: Ilea prozedura mekanikoen bidez kentzea eta koloregabetzea.	0635. Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea
UC0355_2: Aurpegi eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-teknika estetikoak aplikatzea.	0633. Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak
UC0065_2: Aurpegiaren harmonia makillaje sozialeko estiloekin hobetzea.	0634. Makillajea
UC0358_2: Azazkal artifizialak landu eta aplikatzea.	0637. Azazkal artifizialeterako teknikak
UC0357_2: Azazkalak zaindu eta edertzeko teknikak aplikatzea. UC0359_2: Esku eta oinetako tratamendu estetikoak egitea.	0636. Eskuetako eta oinetako estetika
UC0352_2: Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzea eta horiek saltzea.	0643. Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta
UC0354_2: Higiene, depilazio eta makillajeko zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, osasun eta higieneko baldintzetan arreta egitea. UC0356_2: Esku eta oinetako zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, higiene eta osasuneko baldintzetan arreta egitea.	0638. Analisi estetikoa 0641. Estetikarako eta edergintzarako kosmetologia

Oharra; Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonak tituluaren barnean hartzen diren konpetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte – 1224/2009 Errege Dekretua, lan-esperientziaren bitartez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez eskuratutako lanbide-konpetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hau izango dute baliozkotuta: «0639. Estetika-kabinako jarduerak».

2. atala.- Titulu honetako lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko:

Lanbide modulua	Konpetentzia atala
0635. Depilazio mekanikoa eta ilea koloregabetzea	UC0345_1: Ilea prozedura mekanikoen bidez kentzea eta koloregabetzea.
0633. Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak	UC0355_2: Aurpegi eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-teknika estetikoak aplikatzea.
0634. Makillajea	UC0065_2: Aurpegiaren harmonia makillaje sozialeko estiloekin hobetzea.
0637. Azazkal artifizialeterako teknikak	UC0358_2: Azazkal artifizialak landu eta aplikatzea.
0636. Eskuetako eta oinetako estetika	UC0357_2: Azazkalak zaindu eta edertzeko teknikak aplikatzea. UC0359_2: Esku eta oinetako tratamendu estetikoak egitea.
0643. Irudi pertsonaleko marketina eta salmenta	UC0352_2: Irudi pertsonalerako produktuen eta zerbitzuen inguruan aholkatzea eta horiek saltzea.
0638. Anlisi estetikoa	UC0354_2: Higiene, depilazio eta makillajeko zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, osasun eta higieneko baldintzetan arreta egitea.
0641. Estetikarako eta edergintzarako kosmetogolia	UC0356_2: Esku eta oinetako zerbitzu estetikoaren bezeroari segurtasun, higiene eta osasuneko baldintzetan arreta egitea.